⁶ 334/2004 Errege Dekretua, otsailaren 27koa, hezkuntza-sistemaren eskola-irakaskuntzak irakasten dituzten irakasleen taldean eta hezkuntza-ikusatzailen taldean espezialitate berrietara sartzeko eta horiek lortzeko araudia onartzen duena. (51. EAO, 2004ko otsailaren 28koa).

1.2.1.2.2. Herri-funtsen bidez zati batean edo erabat finantzatutako irakaskuntza-enpresa pribatuen V. hitzarmen kolektiboa. 2006ko abenduaren 28ko Ebazpena. (2007ko urtarrilaren 17ko EAO)

2006ko azaroaren 20an, Hezkuntza eta Kudeaketa Zentroen Konfederazioa (EyG), Irakaskuntza Zentroen Espainiako Konferentzia (CECE) eta Serveis Educatius de Catalunya Elkarte Profesionala (ASPEC) izeneko enpresa-elkarteek eta FSIE, UGT, CCOO sindikatuak herri-funtsen bidez zati batean edo erabat finantzatutako irakaskuntza-enpresa pribatuen V. hitzarmen kolektiboa izenpetu zuten.

Hitzarmena sei titulutan antolatuta dago eta 96 artikulua, bederatziz xedapen osagarri, sei behin-behineko, azkeneko bat eta bost eranskin daude. Tituluak honako hauek dira:

I. Titulua. Xedapen orokorrak. Aplikazio-eremua (I. kapitulua), Batzorde paritariora (II. kapitulua) eta lanaren antolaketa (III. kapitulua) arautzen ditu.

II. Titulua. Langileak. Langileen sailkapena (I. kapitulua), kontratazioa (II. kapitulua), proba-aldia, hutsak eta lan-uzte boluntarioak (III. kapitulua) arautzen ditu.

III. Titulua. Lan-baldintzak. Lanaldia (I. kapitulua), oporrak (II. kapitulua), lan-egutegia (III. kapitulua), baimenak (IV. kapitulua), langileek ikastaroak eta azterketak (V. kapitulua), lan-utzialdiak, kontratu-etendurak eta erretiroak (VI. kapitulua) arautzen ditu.

IV. Titulua. Ordainsariak. Xedapen orokorrak (I. kapitulua), osagarri bereziak (II. kapitulua), bestelako osagarriak (III. kapitulua) arautzen ditu.

V. Titulua. Laguntza-erregimena. Lan-arriskuen prebentzioa (I. kapitulua), soldata-hobekuntzak (II. kapitulua), sindikatuen eskubideak (III. kapitulua) arautzen ditu.

VI. Titulua. Hutsak, zigorrak, arau-hausteak. Hutsak (I. Kapitulua) eta zigorrak (II. Kapitulua) arautzen ditu.

5. xedapen osagarriak ikasle/unitate ratioak aipatzen ditu. 8. xedapen osagarriari esker, berariaz aipatzen dituen gaien buruz Autonomia Erkidegoetan akordioak izan daitezke.

Hitzarmena 2008ko abenduaren 31ra arte izango da.

2007ko martxoaren 28ko ebazpenez (88. EAO, apirilaren 12koa), soldata-etaulak erregistratu eta argitaratzen dira.

1.2.1.2.3. Laguntza eta Haur Hezkuntzako Ikastetxeen X. hitzarmen kolektiboa. 2007ko maiatzaren 25eko Ebazpena. (136. EAO, 2007ko ekainaren 7koa)

X. hitzarmena ACDE, CECEI, EyG, CECE, eta FCIC enpresa-erakundeek eta CCOO, UGT, LSB eta FSIE sindikatu-erakundeek 2007ko otsailaren 9an izenpetu dute.

Hitzarmenaren indarraldia 2006ko urtarrilaren 1etik 2009ko abenduaren 31ra bitartean zabalduko da. Estatu guztian aplikatzen da eta Haur Hezkuntzako eta Esko-

laurreko Ikastetxe pribatuengan eragina du, ez badaude integratuta. Halaber, Haurtzaindegiei eragiten die.

80 artikulua ditu eta 19 kapitulutan egituratuta daude. Horrez gain, bederatzi xedapen osagarri, bost behin-behineko, hiru azkeneko eta hiru eranskin agertzen dira.

I. kapituluak eremuak aipatzen ditu.

II. kapituluak batzorde paritarioa zehazten du.

III. kapituluak lanaren antolaketa arautzen du.

IV. kapituluak langileen sailkapena aipatzen du.

V. kapituluak lanaldia zehazten du.

VI. kapituluak kontratuekin zerikusia du.

VII. kapituluak proba-aldiei, lan-uzteei eta hutsei buruzkoa arautzen du.

VIII. kapituluak oporrak arautzen ditu.

IX. kapituluak gaixotasunei eta baimenei buruzkoa da.

X. kapituluak eguneratze- eta hobetze-ikastaroak xedatzen ditu.

XI. kapituluak lan-utzialdiak eta kontratuak eteteko bestelako arrazoiak arautzen ditu.

XII. kapituluak erretiroei buruzkoa da.

XIII. kapituluak ordainsariak xedatzen ditu.

XIV. kapituluak soldata-erregimena ez aplikatzeko klausula zehazten du.

XV. kapituluak segurtasunari, lan-osasunari eta gaixotasun profesionalei buruzkoa da.

XVI. kapituluak gizarte-hobekuntzak adierazten ditu.

XVII. kapituluak sindikatuen eskubideei buruzkoa da.

XVIII. kapituluak hutsak xedatzen ditu.

XIX. kapituluak zigorrei buruzkoa da.

I. eranskinak kategoria profesionalak definitzen ditu.

II. eranskinak 2006. urterako soldata-taulak finkatzen ditu eta III. eranskinak 2007. urtekoak.

Hitzarmena irekia dago sektorean legezkoak diren bestelako erakundeak sartzeko. Hitzarmena urtez urte luzatuko da 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, berariaz bi hilabete lehenago salatzen ez bada.

1.2.1.2.4. Ikastetxe Pribatuen VIII. Nazioko hitzarmen kolektiboa. (2006ko apirilaren 26ko EAO)

2006ko otsailaren 15ean, ACADE eta CECE enpresa-elkarteak eta CCOO, FETE-UGT eta LSB sindikatuek hitzarmenik gabeko Ikastetxe Pribatuen VIII. Nazioko hitzarmen kolektiboa sinatu zuten.

Hitzarmenak sei titulu ditu eta 90 artikulua, hiru behin-behineko xedapen, xedapen osagarri bat, azkeneko zortzi eta hiru eranskin daude.

I. tituluan aplikazio-eremuak (I. kapitulua), hitzarmenaren salaketa, berraztertzea eta luzapena (II. kapitulua), Batzorde paritarioa (III. kapitulua), lanaren antolaketa (IV. kapitulua) lantzen dira. II. titulua langileei buruzkoa da.

III. tituluak lanaldia, oporrak, baimenak, lan-utzialdiak eta erretiroak arautzen ditu. I. kapitulua lanaldiari buruzkoa da, II.a oporrei buruzkoa, III.a gaixotasunei eta baimeinei buruzkoa, IV.a prestakuntzari eta sustapen pertsonalari buruzkoa, V.a lan-utzialdiari buruzkoa; VI.a erretiroei buruzkoa.

IV. tituluak ordainsariak arautzen ditu. I. kapituluak xedapen orokorrak xedatzen ditu; II.ak soldata-osagarriak eta produktibitate- eta garraio-plusak, III.ak soldata-erregimena ez aplikatzeko klausula ikastetxe defizitarioetan.

V. tituluak laguntza-erregimena lantzen du. I. kapituluak lanean segurtasunari eta higieneari buruzko gaia lantzen du, II.ak gizarte-hobekuntzak xedatzen ditu, III.ak sindikatuen eskubideak.

VI. tituluak hutsak, zigorrak eta arau-hausteak biltzen ditu. I. kapituluak hutsak lantzen ditu; II.ak, berriz, zigorrak.

1. behin-behineko xedapenak iraunkortasun-paga xedatzen du, 2. behin-behineko xedapenak hezitzailea bai, baina irakasle profesionalaren kategoria ez duena, 3. behin-behineko xedapenak antzinatasunaren osagarri zaharra.

I. xedapen osagarriak garapen profesionalaren osagarria aipatzen du.

1. azken xedapenak berriz egituratzeko mahaiari buruz konpromisoa biltzen du. 2. azken xedapena Batzorde Teknikoak osatzeari buruzkoa da. 3. azken xedapenak orokortasuna, xurgapena eta lortutako eskubideak aipatzen ditu. 4. azken xedapena erantzukizun zibileko aseguruiei buruzkoa da, 5.a testu konbentzionala aldatzeari buruzkoa, 6.a ABLEko langileei buruzkoa, 7.a soldata-bermearen klausulari buruzkoa eta 8.a testuaren sexu-hizkuntzari buruzkoa.

Hitzarmena 2009ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo da.

2007ko martxoaren 21eko ebazpenez, 2007. urterako soldata-taulak erregistratu eta argitaratzen dira.

Hitzarmenak 2009ko abenduaren 31ra arte iraungo du isilbidezko luzapena izango du urtez urte, bi hilabeteko aurrerapenez berariaz salatzen ez bada.

1.2.1.3. Irakaskuntzak

1.2.1.3.1. Haur Hezkuntzaren gutxieneko irakaskuntzak. 1630/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa. (4. EAO, 2007ko urtarrilaren 4koa)

2/2006 LOk, maiatzaren 3koak⁷, 6.2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Gobernuari dagokio gutxieneko irakaskuntzak finkatzea. Horiek 8/1985 LOk, ekainaren 3koak⁸, 1. Xedapen Osagarriaren 2. ataleko x) hizkian aipatzen ditu.

Haur Hezkuntzak bere identitatea duen hezkuntza-etapa da. ED-k etaparen helburuak, xedeak eta printzipio orokorrak xedatzen ditu. Hezkuntza-administrazioei dagokie lehenengo zikloko hezkuntza-edukiak zehaztea eta bigarren zikloko curriculuma xedatzea. Horien barruan sartuko dira dekretuak aipatzen dituen gutxieneko irakaskuntzak. Ikastetxeei dagokie curriculuma garatu eta osatzea.

Curriculumaren bidez umearen garapen integrala eta harmonikoa arlo fisikoan, mugimenduaren arloan, emozioetan, arlo afektiboan, sozialetan eta kognitiboan lortu nahi da. Era berean, garapena ahalbidetzen duten ikasketak lortzen saiatuko da.

Bigarren zikloko ikasketak hiru arlotan aurkezten dira: bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala izatea, ingurunea ezagutzea, hizkuntzak (komunikazioa eta irudikapena). Arlo horiek jarduera-eremu eta ikaste-espazio bezala ulertu behar dira. Arlo bateko edukiak zentzua izateko elkarren artean harremanetan jarri behar dira, etaparen etapak izaera orohartzailea baitu.

Bigarren zikloaren ebaluazioa orokorra, etengabea eta prestakuntzazkoa izango da eta ikasitakoa identifikatzea eta lortutako garapena balioztatzea izango du helburu. Horrez gain, ikaste-prozesuak eta hezkuntza-praktika ebaluatuko dira.

ED-k 2/2006 LO-k 12., 13., 14. eta 19. artikuluetan Haur Hezkuntzarako xedatutako printzipioak, xedeak, helburuak, ezagutza- eta antolaketa-arloak eta printzipio pedagogikoak jasotzen ditu.

1. eranskinean bigarren zikloko arloetako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak finkatzen dira.

Hezkuntzan esku hartzeko orduan, printzipioak ikasleen aniztasuna izan behar du, beraz, ezaugarrien eta beharren arabera, arreta pertsonalizatua jaso beharko du.

Ikastetxeetako autonomia pedagogiko eta antolakuntzazkoaren printzipioa kontuan hartzen da. Beren betebeharrak honako hauek dira: curriculuma osatzea, lehen aipatutako ezaugarriak identifikatzea, behar eta laguntza bereziak dituzten ikasleei arreta eskaintzeko neurri egokiak hartzea eta hezkuntza-prozesuan parte har dezaten, familiekin kooperatzea. 2/2006 LO-k erlijioa irakasteari buruz 2. XO-n xeda-

⁷ Ikusi 2. oharra

⁸ 8/1985 Legea, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubideari buruzkoa. (1985eko uztailaren 4ko EAO).

tutakoa garatzen da. Antolakuntza-neurriak hartuko dira, irakaskuntza hori hautatzen ez duten ikasleek hezkuntza-arreta egokia izateko.

1330/1991 ED, irailaren 6koa⁹, Haur Hezkuntzako curriculumaren oinarriko alderdiak xedatzen dituena, indargabetzen da. Halaber, 828/2003 ED, ekainaren 27koa¹⁰, Eskolaurreko Hezkuntzaren oinarriko hezkuntza-alderdiak xedatzen dituena, eta 2438/1994 ED¹¹, abenduaren 16koa, hezkuntza-maila horretan erlijioaren irakaskuntza arautzen duena, indargabetzen dira. Hala eta guztiz ere, hiru dekretuen indarraldia onartzen da, HLO-ren aplikazio egutegian (806/2006 ED¹², ekainaren 30ekoa), xedatutakoaren arabera, irakaskuntza berriak ezarri arte. Azkenik, kontra egiten duten arauak (maila berekoak edo gutxiagoak) indargabetzen dira.

Araua oinarrikoa da.

1.2.1.3.2. Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak. 1513/2006 ED, abenduaren 7koa (293. EAO, abenduaren 8koa)

2/2006 LO-k, maiatzaren 3koak¹³, 6.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, Gobernuari dagokio, 8/1985m-k, ekainaren 3koak¹⁴, I. XO-ko 2. ataleko c) hizkian aipatutako gutxieneko irakaskuntzak finkatzea.

Gutxieneko irakaskuntzak curriculumaren oinarriko alderdiak dira eta helburuak, oinarriko gaitasunak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak lantzen dituzte. Irakaskuntzen helburua Espainiako hezkuntza-sistemako ikasle guztientzat prestakuntza komuna ziurtatzea da, baita tituluen baliozkotasuna bermatzea ere. Gutxieneko irakaskuntzetan ikasleak DBH-n garatu eta lortu behar dituen oinarriko gaitasunak adierazten dira. Ezinbestez ikasi behar dena aipatzen da. Bere xedea ikasleak gaitzea da, pertsona bezala garatzeko, hiritar aktibo izateko, helduen bizimodura behar bezala egokitzeke eta bizitzan zehar ikasteko. Helburuak etapa guztirako definitzen dira; ebaluazio-irizpideekin ikaste-mota eta -maila balioztatuko da.

Hezkuntza-administrazioei dagokie gutxieneko irakaskuntzekin curriculum zehaztea; eskola-ordutegiaren %65 baino gehiago ez dute beteko eta %55 baino gehiago bi hizkuntza ofizial dituzten komunitateetan.

⁹ 1330/1991 Errege Dekretua, irailaren 6koa, Haur Hezkuntzako curriculumaren oinarriko alderdiak xedatzen dituena. (1991ko irailaren 7ko EAO).

¹⁰ 828/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa, Eskolaurreko Hezkuntzaren oinarriko alderdiak xedatzen dituena. (156. EAO, 2003ko uztailaren 1ekoa).

¹¹ 2438/1994 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, erlijioaren irakaskuntzak arautzen dituena. (1995eko urtarrilaren 26ko EAO).

¹² 806/2006 Errege Dekretua, ekainaren 30ekoa, 2/2006 LO-ko, maiatzaren 3koak, Hezkuntzari buruzkoak, xedatutako hezkuntza-sistemaren antolaketa berria aplikatzeko orduan egutegia zehazten duena. (167. NAO, 2006ko uztailaren 14koa).

¹³ Ikusi 2. oharra.

¹⁴ Ikusi 8. oharra.

ED-k 2/2006 LO-k 16., 17., 18. eta 19. artikuluetan Lehen Hezkuntzarako xedutako printzipioak, xedeak, helburuak, ezagutza- eta antolaketa-arloak eta printzipio pedagogikoak jasotzen ditu. I. eranskinean oinarrizko gaitasunak finkatzen dira. Oinarrizko gaitasunak garatzeko irakurketa oinarrizko faktorea dela azpimarratzen da. Jarduera honi egunero 30 minututik gora eskaini beharko zaizkio.

II. eranskinean arloen helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak finkatzen dira eta ordutegia III. eranskinean adierazten da.

Lehen Hezkuntzan oinarrizko ordutegiak urtean

Jakintzagaiak	1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa
Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunea Ezagutzea	175	175	140
Irakaskuntza artistikoa	105	105	105
Irakaskuntza fisikoa	105	105	105
Gaztelania eta literatura	315	280	280
Atzerriko hizkuntza	105	140	140
Matematika	175	210	175
Erljioa	105	105	105
Hiritarrentzako hezkuntza eta giza eskubideak	-	-	50
Hizkuntza ofiziala ¹⁵	300	345	330
Guztira	1.005	1.150	1.100

Jakintzagai bakoitzerako bete behar den ordu-kopurua alde batera utzi gabe, etapa guztian eta gutxieneko helburuak eta edukiak errespetatuz, lehen zikloko ordutegia egokitu ahal izango da bi hizkuntza ofizial izanik, hizkuntza-programa berezietan parte hartzen duten ikasleen kasuan.

Ebaluatzeko eta sustatzeko, HLO-k 20. artikuluan xedatutakoa jasotzen da. Ikaslearen prestakuntza-aurrerapena egokia ez denean, hezkuntzari dagokionez sendotze-neurriak zehaztuko dira, zailtasunak hauteman ahala. DBH-ra iritsiko da oinarrizko gaitasunak eta heldutasun-maila egokia lortu badu. Era berean, lortutako ikasketek etapa berria aprobetxatuz jarraitzea saihesten ez dutenean. Kasu horretan ikasleak behar duen laguntza jasoko du. Aurreko baldintzak betetzen ez badira, ezingo da sustatu, mailak errepikatzeari dagokionez arauan aurrez ikusitakoa agortu arte eta aurrez ikusitako hezkuntza-laguntzak jaso arte.

HLO-k hezkuntzan berdintasunari buruz II. Tituluak aurrez ikusitako garatzen du. Ildo horri jarraiki, hezkuntzan esku hartzeko orduan, ikaslearen aniztasunaren printzipioa kontuan hartu behar dela arautzen da. Hala, beharren arabera, arreta pertsonalizatua izan beharko du. Sendotze-mekanismoak ikaste-zailtasunak hauteman ahala aplikatuko dira. Neurriak antolakuntzazkoak, curriculumarenak, talde arruntari laguntza eskaintzekoak, taldekatze malguarenak edo curriculum-egokitzapenenak izango dira. Curriculum-egokitzapen esangarriak agintzen dira hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei arreta eskaintzeko. Egokitzapenen helburua

¹⁵ Ordutegi hori guztizko ordutegitik aterata dago. Jakintzagai batetik ezin daitezke 35 ordu baino gehiago ken.

oinarrizko gaitasunak ahalik eta gehien garatzea izango da eta ikaslearen ebaluazioa eta sustapena baldintzatuko dute. Egoerak kontuan hartuta, modu berezian agintzen dira ezagutzak, adina eta historia akademikoa, sistemara berandu iristen diren ikasleen eskolatzeara eta arreta berezia xedatzen da, eskolatzeari-hizkuntzari urritasun larriak badituzte. Gaitasun handiak dituzten ikasleen eskolatzeari-neurriak malku daitezke.

Ikastetxeen autonomia pedagogikoaren eta antolakuntzazkoaren printzipioa jasota dago Beren betebeharrak curriculumara osatzea, aniztasunari arreta eskaintzeko neurriak hartzea eta hezkuntza-aurrerapena errazteko familiekin konpromisoak hartzea dira.

HLO-k diagnostiko-ebaluazioari buruz 20. eta 144. artikuluetan xedatutakoa arautzen da. Emaitzak hirugarren zikloan sendotze-neurriak antolatzeko erabiliko dira, baita lehenengo bi zikloetako hezkuntza-jarduerak aztertu, balioztatu eta berriz orientatzeko ere.

Erljio irakaskuntzei buruzko 2. XO garatzen da. Irakaskuntza hori hautatzen ez duten ikasleek hezkuntza-arreta egokia izan dezaten, antolakuntza-neurriak hartuko dira.

1006/1991 ED¹⁶, ekainaren 14koa, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak zehazten dituena, indargabetzen da, baita 2438/1994 ED¹⁷, abenduaren 16koa, hezkuntza-maila horretan erlijioaren irakaskuntza arautzen duena, ere. Hala eta guztiz ere, bi dekretuen indarraldia onartze da HLO-ren aplikazio egutegian xedatutakoaren arabera irakaskuntza berriak ezarri arte (806/2006 ED¹⁸, ekainaren 30koa). Azkenik, maila berdineko edo txikiagoko arau guztiak indargabetzen dira, betiere kontrakoak badira.

Araua oinarritzkoa da.

1.2.1.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren gutxieneko irakaskuntzak. 1631/2006 ED, abenduaren 29koa. (5. EAO, 2007ko urtarrilaren 5koa)

2/2006 LO-k, maiatzaren 3koak¹⁹, 6.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, Gobernuari dagokio 8/1985 LO-k, ekainaren 3koak²⁰, 1. XOko 2. ataleko c) letran aipatutako gutxieneko irakaskuntzak finkatzea.

Gutxieneko irakaskuntzak curriculumaren oinarrizko alderdiak dira eta helburuak, oinarrizko gaitasuna, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazten dira. Irakaskuntzen hel-

¹⁶ 1006/1991 Errege Dekretua, ekainaren 14koa, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak zehazten dituena. (152. EAO, 1991ko ekainaren 26koa).

¹⁷ Ikusi 11. oharra.

¹⁸ Ikusi 12. oharra.

¹⁹ Ikusi 2. oharra.

²⁰ Ikusi 8. oharra.

burua Espainiako hezkuntza-sistemako ikasle guztientzat prestakuntza komuna ziurtatzea da, baita tituluen baliozkotasuna bermatzea ere. Gutxieneko irakaskuntzetan ikasleak DBH amaitzean garatu eta lortu behar dituen oinarrizko gaitasunak adierazten dira. Ezinbestez ikasi behar dena kontuan hartzen da. Ikasleak garapen pertsonalerako, hiritar aktibo izateko, helduen bizitzara zailtasunik gabe iristeko eta bizitza osoan zehar ikasteko gaitu behar dira. Helburuak etapa guztirako definitzen dira; ebaluazio-irizpideekin ikaste-mota eta –maila balioztatuko da. Halaber, lortutako oinarrizko gaitasunak balioztatuk dira.

Hezkuntza-administrazio aginpidedunei gutxieneko irakaskuntzez osatutako curriculum osatzea dagokie. Ez dute eskola orduen %65 baino gehiago beteko edo %55 baino gehiago bi hizkuntza ofizial dituzten komunitateetan

ED-k lehenengo hiru mailtako eta laugarren mailako printzipioak, xedeak, helburuak, ezagutza- eta antolakuntza-arloak biltzen ditu. Horiek guztiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan 2/2006 LO-k 22., 23., 24. eta 25. artikuluetan jasotzen ditu.

I. eranskinak oinarrizko gaitasunak finkatzen ditu. Oinarrizko gaitasunak garatzeko irakurketa oinarrizko faktorea dela azpimarratzen da. Jakintzagai guztietan irakurketarako denbora bat utziko da.

II. eranskinen jakintzagaien helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazten dira eta ordutegia III. eranskinen adierazten da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko ordutegiak urtean

Jakintzagaiak	I.etik 3. mailara	4. maila ²¹
Natur Zientziak	230	-
Biologia eta Geologia	-	*70
Fisika eta Kimika	-	*70
Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia	210	70
Heziketa Fisikoa	105	35
Hiritarrentzako Heziketa eta Giza Baliabideak	35	-
Heziketa Plastikoa eta Ikuste Heziketa	105	*70
Gaztelania eta Literatura	350	125
Atzerriko Hizkuntza	315	105
Bigarren Atzerriko Hizkuntza	-	*70
Matematika	280	105
Musika	105	*70
Teknologiak	140	*70
Erligjioa	140	35
Heziketa etiko-zibikoa	-	35
Informatika	-	*70
Latina	-	*70
Hizkuntza ofiziala ²²	%10	%10

²¹ Ikasleak asteriskoz markatutako hiru jakintzagai hautatu beharko ditu.

²² Ordutegia guztizko ordutegitik aterata dago. Hizkuntza ofiziala irakasteko, eskola-ordutegi guztia- ren %10 erabili ahal izango da eta horretarako jakintzagai bati ezin zaizkio 50 ordu baino gehiago kendu lehenengo hiru urteak batera hartuta, ezta 20 bigarrenen.

Testuak ebaluazioari eta sustapenari buruz HLO-k 28. artikuluan xedatutakoa jasotzen du. Ebaluazio etengabearen prozesuak ikastearen aurrerapena egokia ez dela agerian uzten duenean, hezkuntzan sendotze-neurriak hartuko dira, zailtasunak hauteman ahala. Ez da maila batetik bestera pasako, jakintzagaietan helburuak ez badira lortzen edo gehienez bi jakintzagaietan ebaluazio negatiboak lortzen badira. Salbuespenez, hiru edo jakintzagai gehiagorekin mailaz aldatu ahal izango da, ikasleek hala uste badute. Horretarako, jakintzagaiak ez dute saihestuko hurrengo maila arrakastaz jarraitzea.

Aruak aniztasunaren arretari buruz 25. artikuluan xedatutako printzipioak jasotzen ditu. Eskatutako neurriak maila hauetan aplikatuko dira: antolakuntza; curriculumak, talde arruntan eskainitako laguntza barne; taldea bitan banatzea; aukerako jakintzagaien eskaintza; sendotze-neurriak; curriculumaren egokitzapenak; jakintzagaiak eremuetan integratzea; curriculum-aniztasunaren programak eta arreta pertsonalizatua eskaintzeko bestelako programak. Eremuetan jakintzagaien integrazio-neurriak arautzen ditu eta sisteman berandu sartu diren ikasleak eskolatzeko neurriak xedatzen ditu, horiek eskolatzeko-hizkuntzarekiko urritasunak badituzte edo gaitasunen maila desfasatua badute. Era berean, gaitasun handiak dituzten ikasleen eskolatzeko kontuan hartzen da.

Curriculum-aniztasunari buruz 27. artikuluan aurrez ikusitakoa garatzen du. Programa horien xedea DBH-n graduatuaren titulua lortzeko oinarriko gaitasunak eta helburuak lortzea da. Hirugarren mailako ikasleentzat eta bigarren mailakoentzat bideratuak daude, ez badute ikasmailez aldatu eta etapan zehar maila errepikatu badute. Curriculum-programek metodologia, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztuko dituzte eta bi eremu berezietan antolatuko dira: bata, linguistiko-soziala eta, bestea, zientifiko-teknologikoa. Bakoitzaren jakintzagaiak adierazten dira.

HLO-k hasierako lanbide-prestakuntzako programei buruz 30. artikuluan aurrez ikusitakoa arautzen du. Aipatu programak 16 urtetik gorako ikasleentzat dira; salbuespenez, 15 urtekoentzat izan daitezke, baldintza zehatzak biltzen badituzte. Bi kasuetan Nazioko Prestakuntzen Katalogoan I. Mailari dagozkion gaitasun-unitateak lor ditzakete. Programak hiru modulu-motatan antolatzen dira: bereziak, prestakuntzakoak eta boluntarioak. Azkenekoa moduluka antolatzen da hiru eremuren inguruan: komunikazioa, gizartea eta zientzia eta teknologia. Bakoitzaren jakintzagaiak adierazten dira. Derrigorrezko moduluak gaindituz gero, ziurtagiri akademikoak eta lan-ziurtagiriak lortuko dira. Boluntarioa gaindituz gero, graduatuaren titulua lortuko da.

DBH-n graduatuaren titulua lortzeko, etapako oinarriko gaitasunak eta helburuak lortu behar dira. Jakintzagai guztiak gainditu beharko dira. Aniztasuneko ikasleek titulua eremu guztiak gaindituz gero lortuko dute. Halaber, lortu ahal izango dute ikasleek maila edo bi aniztasun-eremu amaitu badituzte jakintzagai batekin, birekin eta, salbuespenez, hirurekin, irakasleen iritziz etapako gaitasunak eta helburuak lortu badituzte. Prestakuntza-programetako ikasleek titulua lortuko dute, modulu boluntarioa gainditzeko badute. Gainerako ikasleek eskolatzeko-ziurtagiria lortuko dute. Ikasketak amaitu eta hurrengo bi urteetan titulurik gabeko ikasleek probak egin ahal

izango dituzte kalifikazio positiboa lortzeke dauden jakintzagaiak gainditzeko, horien kopurua 5etik gorakoa ez bada.

Curriculum osatzeko, aniztasunari arreta eskaintzeko neurriak hartzeko eta hezkuntza-aurrerapena errazteko familiekin konpromisoak hartzeko ikastetxeen autonomia pedagogikoaren eta antolakuntzazkoaren printzipioa kontuan hartzen da. Hainbat muga jarrita, esperimenta daiteke, lan-planak egin daitezke, antolaketa-moduak onar daitezke, ordutegia zabal daiteke.

HLO-k diagnostiko-ebaluazioari buruz 29. eta 144. artikuluetan xedatutakoa arautzen da. Ebaluazioaren emaitzak oinarritzko gaitasunak lor ditzaten neurriak eta programak antolatu eta lehenengo bi mailetan hezkuntza-jarduerak aztertu, balioztatu eta berriz orientatzeko erabiliko dira.

Eta honetako eskaintza helduaren baldintzetara eta beharretara egokituko da. Irakaskuntzak bi urtetan egin ahal izango dira eta moduluka antolatuko dira hiru eremutan: komunikazioa, gizartea eta zientzia eta teknologia. Bakoitzean bi maila izango dira. Bakoitzetik jakintzagaiak adieraziko dira. Eremu guztiak gaindituz gero, titulua lortu ahal izango da. Edozein eremu gaindituta dagoela adierazten duen ziurtagiria lurralde osoan baliagarria izango da.

Erljioko irakaskuntzei buruz 2. XO-n xedatutakoa garatzen da. Irakaskuntza horiek hautatzen ez dituzten ikasleek hezkuntza-arreta egokia izan dezaten, antolakuntza-neurriak hartuko dira.

1007/1991 ED²³, ekainaren 14koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak xedatzen dituena, indargabetu da, baita 2438/1994 ED²⁴, irailaren 16koa, maila honetan erlijioaren irakaskuntza arautzen duena, ere. Hala eta guztiz ere, bi dekretuen indarraldia onartze da HLO-ren aplikazio egutegian xedatutakoaren arabera irakaskuntza berriak ezarri arte (806/2006 ED²⁵, ekainaren 30ekoa). Azkenik, maila berdineko edo txikiagoko arau guztiak indargabetzen dira, betiere kontrakoak badira.

Araua oinarritzkoa da.

1.2.1.3.4. Hezkuntza-sistemako LH-ren antolaketa orokorra. 1538/2006 ED, abenduaren 15ekoa. (3. EAO, 2007ko urtarrilaren 3koa)

ED-k lanbide-heziketako titulu berrien egitura ezartzen du, Nazioko Lanbide Prestakuntzen Katalogoak xedatutakoarekin bat. Azkenekoa 1128/2003 ED-k²⁶, irailaren

²³ 1007/1991 Errege Dekretua, ekainaren 14koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion gutxieneko irakaskuntzak xedatzen dituena. (152. EAO, 1991eko ekainaren 26koa).

²⁴ Ikusi 11. oharra.

²⁵ Ikusi 12. oharra.

²⁶ 1128/2003 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Nazioko Lanbide Prestakuntzen Katalogoa arautzen duena. (223. EAO, 2003ko irailaren 17koa).

5ekoak, azaroaren 25eko 1416/2005 ED-ren²⁷ bidez aldatutakoak, arautzen du. Helburua titulazio berriek eta horiek lortzeko irakaskuntzek ezagutza-gizartearen beharrei erantzutea da; hala, pertsonen interesetara eta gaitasunetara egokituko dira. Tituluek produkzio-sistemen beharrek eskatutako lanbide-profilei erantzun behar diete. Profilak zehazteko honakoak erabiltzen dira: gaitasun orokorra, lanbide-gaitasunak, gaitasun pertsonalak eta sozialak eta prestakuntzen eta Nazioko Lanbide Prestakuntzen Katalogoko gaitasun-unitateen arteko harremanak.

Beraz, LH-ko titulu berrien egitura xedatzen da. Tituluak lanbide-familietan antolatzen dira; irakaskuntzak prestakuntza-zikloetan, gaitasun-unitateekin zerikusia duten lanbide-moduluetan eta unitate horiekin zerikusia ez duten lanbide moduluetan antolatzen dira. Era berean, 5/2002 LO-k²⁸, ekainaren 19koak, 3. XO-n aipatutako lehentasunezko arloak eranstean dira. Gainera, 2/2006 LO-k, maiatzaren 3-koak, 6.1. artikuluan aipatutako oinarrizko gaitasunak sartzen dira.

Irakaskuntzen eskaintzan, sartzeko, onartzeko eta matriculatzeko orduan, malgutasuna handiagoa da, batetik, behar eta interes pertsonaletara egokitutako prestakuntza-bideak konfiguratzeko eta, bestetik, prestakuntzatik lanerako eta lanetik prestakuntzarako bideak konfiguratzeko.

Helduari lanbide-prestakuntza hobetzeko aukera eskaintzen dio eta, xede horrez, bizitzan zehar lana eta etengabeko prestakuntza konbinatzeko aukera ematen du. Hala, LH-ko tituluak lortzeko probak arautzen dira. Halaber, urrutiko lanbide-heziketaren irakaskuntzak arautzen dira.

Hezkuntza-sistemaren lanbide-informazioari eta –orientazioari buruzkoa arautzen da, baita baliozkotzearen, salbuespenen eta lan-esperientziarekin bat egitearen sistema ere. Irakaskuntzen arteko loturak zehazten dira batetik bestera errazago pasatzeko eta ikaslearen behar eta interes pertsonaletara egokitutako prestakuntza-bideak konfiguratzeko.

Ondorioz, ED-k lanbide-prestakuntza, helburua eta xedea definitzen du.

Tituluek berezko prestakuntzak eta gaitasunak egiaztatzen dituzte; hogeita sei familietan multzokatzen dira. Horiek lortzeko irakaskuntzak maila ertaineko prestakuntza-zikloetan eta goi-mailako prestakuntza-zikloetan antolatzen dira.

²⁷ 1416/2005 Errege Dekretua, azaroaren 25ekoa, 1128/2003 ED, irailaren 5ekoa, Nazioko Lanbide Prestakuntzen Katalogoari buruzkoa, arautzen duena. (289. EAO, 2005eko abenduaren 3koa).

²⁸ 5/2002 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, lanbide-prestakuntzei eta –heziketari buruzkoa. (2002ko ekainaren 20ko EAO) Hirugarren Xedapen Osagarria. Prestakuntza-eskaintzetan lehentasunezko arloak.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiei, Europako Elkarteko herrialdeetako hizkuntzei, taldean lan egiteari, lan-arrikuak prebenitzeari eta Europako Elkarrekin adierazitako ildoan barruan daudenei buruzko lehentasunezko arloak dira eta herri-bitartekoaren kargura finantzaturako prestakuntza-ekintzetara erantsiko dira.

Tituluen egiturak eta lanbide-profilaren kontzeptua definitzen dira. Tituluak lortzera bideratutako irakaskuntzak prestakuntza-zikloetan antolatzen dira; horiek iraupen aldakorreko lanbide-moduluetan. Prestakuntza-ziklo bat gainditzeko, modulu guztietan ebaluazio positiboa lortu behar da. Lanbide-moduluak ezagutza-arlo teoriko-praktikoei erreparatuz antolatzen dira, lanbide-gaitasunen arabera. Iraupen txikiagoko prestakuntza-unitateetan lanbide-moduluak irakastea antolatu ahal izango da. Unitate guztiak gainditutakoan, modulua gainditu dela ziurtatuko da. Lanpostuetan prestakuntzaren lanbide-moduluari buruzkoa eta proiektu-moduluari buruzkoa goimailako zikloetan arautzen da. Lanbide-moduluen egitura definitzen da.

LH-ko irakaskuntzen ebaluazioari; tituluak luzatzeari, erregistratzeari eta ondorioei; eta zikloetan eskaintzari, horietara iristeari, onartzeari eta matrikulari buruzkoa arautzen da. Curriculum definitzea hezkuntza-administrazioei dagokie, baina ED-ren edukia eta tituluak arautzen dituzten araudiak errespetatu beharko dira. Hezkuntza Administrazioek edukia zabaldu ahal izango dute. Curriculumak ingurune sozio-produktibora egokitu ahal izango dira; ikastetxeek garatuko dituzte eta, horretarako, antolakuntza- eta kudeaketa-autonomia onartzen zaie.

Prestakuntza-zikloetako irakaskuntzen eskaintzari esker, ikasketak eta prestakuntza lan-jarduerarekin konbinatu ahal izango dira. Lanbide-heziketan sartzeko, DBH-ko graduatuaren titulua izan behar da maila ertainetako zikloen kasuan eta Batxilergo-arena goimailako zikloen kasuan. Hala eta guztiz ere, sartzeko probak gaindituz irits daiteke. Horiek nazioko lurralde guztian baliagarriak izango dira.

Helduentzako lanbide-prestakuntza eta tituluak lortzeko probak arautzen dira. Halaber, urrutiko lanbide-prestakuntza arautzen da.

Gaitasun-unitatean egiaztatuta lanbide-moduluen baliozkotzeak baimentzen dira, baita ziklo desberdinetako moduluen baliozkotzeak batxilergoko jakintzagaiekin, irakaskuntza unibertsitarioekin, jardunbide bereziko irakaskuntzekin ere eta lan-moduluen salbuespena arautzen da.

Lanbide-heziketa irakasten duten ikastetxeei buruzkoa arautzen da.

777/1998 ED²⁹, apirilaren 30ekoa; 942/2003 ED³⁰, uztailaren 18koa, indargabetzen dira, lanbide-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-arrunten bitartez lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatu eta onartzeko ahalmena izan ezik. Hori hala izango da 5/2002 Legeak, ekainaren 19koak, 8-3. artikuluan aipatutako prozedura xedatzen duen araua argitaratzen ez den bitartean. Halaber, 362/2004 ED³¹,

²⁹ 777/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, hezkuntza-sistemaren eremuan lanbide-heziketaren antolaketa-alderdi zehatzak garatzen dituena. (1998ko maiatzaren 8ko EAO).

³⁰ 942/2003 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Lanbide Heziketa Bereziaren barruan Teknikariaren eta Goi Mailako Teknikariaren tituluak lortzeko probek izan behar dituzten oinarrizko baldintzak zehazten dituena. (182. EAO, 2003ko uztailaren 31koa).

³¹ 362/2004 Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, lanbide-heziketa bereziaren antolaketa orokorra xedatzen duena. (74. EAO, 2004ko martxoaren 26koa).

martxoaren 5koa eta maila berdineko edo gutxiagoko xedapen guztiak indargabetzen dira, kontrakoak badira.

Araua oinarritzkoa da, aipatzen diren artikulua izan ezik.

1.2.1.3.5. Musikako irakaskuntza profesionalen curriculumaren oinarritzko alderdiak. 1577/2006 ED, abenduaren 29koa. (18. EAO, 2007ko urtarrilaren 20koa)

2/2006 LO-k³², maiatzaren 3koak, 45. artikuluan xedatutakoarekin bat, irakaskuntza artistikoez kalitatezko prestakuntza eskuratzea dute helburu, etorkizunean musikako, dantzako, arte dramatikoko, arte plastikoetako eta diseinuko profesionalen prestakuntza bermatzeko. Aipatu Legeak 48-2. artikuluan xedatutakoarekin bat, musika eta dantzako irakaskuntza profesionalak irakaskuntza artistikoak dira eta sei maila-tako maila profesionalean antolatzen dira.

ED instrumentuaren edo ahotsaren espezialitatearen ikasketan oinarritzen da; ikasleek interesetara ahalik eta gehien egokitu nahi du; dantzako eta musikako ikasketa profesionalen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketen artean egiazko bateragarritasuna kontuan hartzen du. Espezialitate berriak sortzen ditu: bataz flamenkoarekin zerikusia du, beteak, berriz, kontzeptu-tresnekin. Horrez gain, beste berriztapen bat du: taldeko musika-praktikaren tratamendua.

Abiapuntu horiekin ED-k maiatzaren 3ko 2/2006 LO-ren 46-I. artikulua garatzen du, gutxieneko irakaskuntzez osatutako curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzen ditu, baita musikako irakaskuntza profesionalen gutxieneko eskola-orduak ere.

ED-k I. kapituluak musikako irakaskuntza profesionalen helburua eta antolaketa xedatzen ditu, baita helburu orokorrak eta bereziak ere. Halaber, irakaskuntza horien espezialitateak aipatzen ditu.

II. kapituluak I. eranskineko edukia aipatzen du, curriculumaren oinarritzko alderdiak adierazteko. Administrazioek curriculumak zehaztuko dute eta horren barruan oinarritzko alderdiak sartuko dira. Oinarritzko edukiei dagozkien eskola-ordutegia II. eranskinean jasota dago. Musika-ikasketetako espezialitate guztiei dagozkien jakintzagai komunak zehazten ditu, baita espezialitate bakoitzari dagozkion zehatzak ere eta hezkuntza-administrazioei baimena ematen die jakintzagaiak maila desberdinetan banatzeko eta beste jakintzagaiak planifikatzeko.

III. kapituluak irakaskuntzetarako sarrera arautzen du: baldintza akademikoak eta sartzeko probak 2/2008 LO-k 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, proben kalifikazioa, ikasleak onartzeko printzipioak, matrikulazio-prozesuak.

IV. kapituluak ebaluazioaz, maila batetik bestera gora egitez, iraupen-mugez eta titulazioaz arduratzen da. Ebaluazioa etengabea eta integrazzailea izango da; ikasleek

³² Ikusi 2. oharra.

ikaste-maila eta irakaskuntza-prozesuak ebaluatuko dira. Maila batetik bestera pasatzeko, jakintzagaiak gainditu behar dira edo gehienez bitan ebaluazioa negatiboa da. 6. urtean hiru edo jakintzagai gehiago gainditu gabe daudenean errepikatuko da. Bi jakintzagai edo gutxiago gainditzeke izanez gero, bakarrik horiek egin beharko dira titulua lortzeko. Ikasketa horiekin honako titulua lortuko da: musikako titulu profesionala adierazitako espezialitatean. Halaber, batxilergoaren titulua lortuko da, batxilergoko jakintzagai komunak gainditu badira.

V. tituluak ebaluazio-dokumentuak aipatzen ditu.

VI. tituluak bigarren hezkuntzako irakaskuntzarekin dauden egokitzapenak aipatzen ditu. Batera egin ahal izango dira irakaskuntza artistiko profesionalak eta bigarren hezkuntza. Xede horrez, neurri egokiak hartuko dira antolaketari eta antolakuntza akademikoari, baliozkotzei eta zentro integratuei dagokienez.

Hezkuntza Administrazioei baimena ematen zaie instrumentuen eta ahozko espezialitateak zabaltzeko.

Aurreko planetatik datozen ikasleak sartzeko mekanismoa diseinatu da, horiek aldeztu aurretik gainditzeko jakintzagaiak bazituzten.

756/1992 ED³³, ekainaren 26koa, musika-irakaskuntzetako oinarritzko mailaren eta maila ertainaren curriculumari dagozkion oinarritzko alderdiak xedatzen dituena, indargabetu da. Hala eta guztiz ere, behin-behineko aplikatzea onartzen da, 806/2006 ED-k³⁴, ekainaren 30ekoak, HLO-n xedatutako aplikazio-egutegia ezartzen ez den bitartean. Halaber, 1995eko maiatzaren 29 Agindua³⁵, dantzako oinarritzko mailaren eta musikako oinarritzko mailaren eta maila ertainaren ebaluazio txostenei buruzko oinarritzko elementuak xedatzen dituena, indargabetu da.

Araua oinarritzkoa da.

1.2.1.3.6. Dantzako irakaskuntza profesionalen curriculumari dagozkion oinarritzko alderdiak. 85/2007 ED, urtarrilaren 26koa. (13. EAO, 2007ko otsailaren 13koa)

2/2006 LO-k³⁶, maiatzaren 3koak, 45. artikuluan xedatutakoarekin bat, irakaskuntza artistikoek honako helburua dute: etorkizunean musikako, dantzako, arte dramati-

³³ 756/1992 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, musikako oinarritzko mailaren eta maila ertainaren curriculumari dagozkion oinarritzko alderdiak xedatzen dituena. (1992ko abuztuaren 27ko EAO).

³⁴ 806/2006 Errege Dekretua, ekainaren 30ekoa, 2/2006 LO-k, maiatzaren 3koak, hezkuntzari buruzkoak, xedatutako hezkuntza-sistemaren antolaketa berriaren aplikazio-egutegia xedatzen duena. (167. NAO, 2006ko uztailaren 14koa).

³⁵ 1995eko maiatzaren 29ko Agindua, 1/1990 Legeak, urriaren 3koak, araututako musika-irakaskuntzen oinarritzko mailaren ebaluazio-txostenei dagozkien oinarritzko elementuak xedatzen dituena. (1995eko ekainaren 7ko EAO).

³⁶ Ikusi 2. oharra.

koetako, arte plasatikoetako eta diseinuko profesionalak izango direnen prestakuntza bermatzeko, kalitatezko prestakuntza artistikoa eskuratzea. Aipatu Legeak 48-2. artikuluan xedatutakoarekin bat, musikako eta dantzako irakaskuntza profesionalak irakaskuntza artistikoak dira eta sei ikasturteko maila profesionalean antolatzen dira.

ED espezialitatearen ikasketetan oinarritzen da eta ikasleen interesetik egokitzen handiena lortu nahi du; dantzako ikasketa profesionalen eta Bigarren Hezkuntzako ikasketen artean egiazko bateragarritasuna kontuan hartzen du. Espezialitate berriak sortzen ditu; batek flamenko dantzarekin zerikusia du.

Premisa horietatik abiatuta, ED-k maiatzaren 3ko 2/2006 LO-ren 46-I. artikulua garatzen du; gutxieneko irakaskuntzez osatutako curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzen ditu, baita dantzako irakaskuntza profesionalen gutxieneko eskola-ordutegiak ere.

ED-k I. kapituluak dantzako irakaskuntza profesionalen xedea eta antolaketa xedatzen ditu, baita helburu orokorrak eta bereziak ere. Halaber, irakaskuntzen espezialitateak aipatzen ditu.

II. kapituluak I. eranskinaren edukia aipatzen du eta curriculumaren oinarritzko alderdiak adierazten ditu. Administrazioek curriculumak xedatuko dituzte eta bertan oinarritzko alderdiak sartuko dira. Oinarritzko edukiei dagokien eskola-ordutegia II. eranskinean bilduta dago. Musika espezialitate guztiekiko jakintzagai komuna da; era berean, espezialitate bakoitzaren jakintzagaiak zehazten ditu eta hezkuntza-administrazioei baimena ematen die jakintzagaiak maila desberdinetan banatzeko eta beste jakintzagaiak planifikatzeko.

III. kapituluak irakaskuntzetan sartzeko baldintzak arautzen ditu: baldintza akademikoak eta sartzeko probak 2/2008 LO-k 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, proben kalifikazioa, ikasleak onartzeko printzipioak, matrikulazio-prozesuak.

IV. kapituluak ebaluazioa, mailaz pasatzeko modua, iraupen-mugak eta titulazioa xedatzen ditu. Ebaluazioa etengabea eta integratzailea izango da, nahiz eta jakintzagaien arabera desberdindu. Ikasleen ikaste-maila eta irakaskuntza-prozesuak ebaluatuko dira. Maila batetik bestera pasatzeko jakintzagai guztiak gainditu behar dira edo gehienez bitan ebaluazioa negatiboa izan da. 6. maila hiru edo jakintzagai gehiago gainditu ez direnean errepikatuko da. Gainditzeke 2 jakintzagai edo gutxiago izanez gero, bakarrik horiek egin beharko dira titulua lortzeko. Ikasketa horiekin dantzako titulu profesionala lortuko da eta espezialitatea adieraziko da Halaber, batxilergoaren titulua lortuko da, batxilergoko jakintzagai komunak gainditu badira.

V. tituluak ebaluazio-dokumentuak aipatzen ditu.

VI. tituluak beste irakaskuntzekiko egokitzapenak aipatzen ditu. Batera egin ahal izango dira irakaskuntza artistiko profesionalak eta bigarren hezkuntza. Xede horrez,

neurri egokiak hartuko dira antolaketa eta antolakuntza akademikoari, baliozkotzei eta zentro integratuei dagokienez.

Hezkuntza Administrazioei baimena ematen zaie instrumentuen eta ahozko espezialitateak zabaltzeko.

1254/1997 ED³⁷, uztailaren 24koa, dantzako irakaskuntzen maila ertaineko curriculumari dagokionez oinarrizko alderdiak xedatzen dituena, indargabetzen da. Hala eta guztiz ere, behin-behineko aplikatzea onartzen da, 806/2006 ED-k³⁸, ekainaren 30ekoak, HLO-n xedatutako aplikazio-egutegia ezartzen ez den bitartean. Halaber, indargabetu egiten da, baina behin-behineko aplikatu daitezke 1997ko azaroaren 17ko Agindua³⁹, dantzako maila ertaineko ebaluazio-txostenen oinarrizko elementuak xedatzen dituena.

Araua oinarrizkoa da.

1.2.1.3.7. Erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzen curriculumari dagozkion oinarrizko alderdiak. 1629/2006 ED, abenduaren 29koa. (4. EAO, 2007ko urtarrilaren 4koa)

2/2006 LO-k⁴⁰, maiatzaren 3koak, I. Tituluko VII. kapituluaren hizkuntzen irakaskuntza arautzen du. 59. artikulua xedatutakoaren arabera, hizkuntzen irakaskuntzaren helburua hezkuntza-sistemako etapa arruntetatik kanpo hizkuntzak egoki erabiltzeko gaitzea da. Hiru mailatan antolatzen dira: oinarrizkoa, ertaina eta aurreratua. Oinarrizko irakaskuntzek hezkuntza-administrazioak zehaztutako ezaugarriak eta antolaketa izango dituzte. Maila ertaina eta aurreratua hizkuntza-eskola ofizialek irakatsiko dituzte, curriculumaren oinarrizko alderdiekin bat. Eskakizun akademikoak gainditu direla ziurtatzeko ziurtagiriak emango dituzte. 2/2006 LO-k 6.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, oinarrizko alderdiak definitzea gobernuari dagokio, prestakuntza komuna ziurtatzeko eta ziurtagirien balioa bermatzeko.

ED-k ziurtagiria lortzeko oinarrizko mailaren gutxienezko eskakizunak finkatzen ditu. Halaber, administrazioei curriculumean sartu behar diren gutxienezko irakaskuntzak zehazten dizkie. Administrazioek curriculum horiek definituko dituzte maila ertainerako eta aurreraturako honako hizkuntzetan: alemana, arabiera, txinera, daniera, finlandiera, frantsesa, greziera, ingelesa, irlandera, italiara, japoniera, nederlandera, portugesa, errumaniera, errusiera, suediera, Autonomia Erkidegoetako hizkuntza ofi-

³⁷ 1254/1997 Errege Dekretua, uztailaren 24koa, dantza-irakaskuntzen maila ertainekok curriculumaren oinarrizko alderdiak xedatzen dituena. (1997ko irailaren 1eko EAO).

³⁸ Ikusi 12. oharra.

³⁹ 1997ko azaroaren 17ko Agindua, dantzako irakaskuntzen maila ertaineko ebaluazio-txostenen oinarrizko elementuak xedatzen dituena eta ikasleen mugikortasuna bermatzeko prozesu horren ondorioz beharrezkoak diren baldintza formalak zehazten dituena. (285 EAO, 1997ko azaroaren 28koa); akatsak zuzentzea (152. EAO, 1998ko ekainaren 26koa).

⁴⁰ Ikusi 2. oharra.

zialak eta espainiera atzerriko hizkuntza bezala. Aipatu curriculumek gutxieneko irakaskuntzak izan behar dituzte.

Halaber, mailak gairatuta daudela adierazten duten ziurtagirien ondorioak finkatzen ditu.

Oinarritzko mailak erreferentziatzen Europako Kontseiluaren A2 mailaren gaitasunak hartuko ditu. Maila ertainaren eta aurreratuaren erreferentziak B1 eta B2 izango dira. Hizkuntza-eskola ofizialek hizkuntza hobetzeko ikastaro espezializatuak antolatu eta irakatsi ahal izango dituzte C1 eta C2 mailetan.

Ziurtagiriak nazioko lurralde guztiak baliagarriak izango dira. Oinarritzko mailari dagokion ziurtagiriak balioa izango du hezkuntza-administrazioek eta bestelako erakundeek xedatutako prozeduretan maila horren gaitasunak ziurtatzeko. Maila ertaineko eta aurreratuak ziurtagiriak izanez gero, administrazioek eta bestelako erakundeek xedatutako hizkuntza-gaitasunari buruzko probak ez dira egin behar; betiere atxikitako mailarekin zerikusia badute. Europako Portfolioa erabiltzeari dagokionez, ziurtagiriak lortzen ez dituzten ikasleei ziurtapen akademikoa emango zaie, trebezia batzuk lortu direla egiaztatuz.

Ziurtagiriak lortzeko baldintzak zehazten dira, baita 967/1998 ED-k⁴¹, irailaren 2koak, eta 944/2003 ED-k⁴², uztailaren 18koak, araututako irakaskuntzen arteko balio-kidetasunak ere.

ED-k xedatutakoarekin bat, hizkuntzen irakaskuntzak ezartzen doazen heinean, honakoak balio gabetuko dira: 1523/1989 ED⁴³, abenduaren 1ekoa; 47/1992 ED⁴⁴, urtarrilaren 24koa; 944/2003⁴⁵, uztailaren 18koa, eta 423/2005 ED⁴⁶, apirilaren 18koa.

Araua oinarritzkoa da, 2. XO izan ezik.

⁴¹ 967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa, lehenengo mailako irakaskuntza espezializatuena (Hizkuntza Eskola Ofizialak) antolakuntzari buruzkoa. (218. EAO, 1988ko irailaren 10ekoa).

⁴² 944/2003 Errege Dekretua, ekainaren 18koa, 10/2002 Legeak, abenduaren 23koak, araututako erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzen egitura xedatzen duena. (182. EAO, 2003ko uztailaren 31koa).

⁴³ 1523/1989 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, irakaskuntza espezializatuena lehen mailako gutxieneko edukiak xedatzen dituena. (302. EAO, 1989ko abenduaren 18koa)

⁴⁴ 47/1992 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, espainieraren irakaskuntza espezializatuena dagozkien gutxieneko edukiak xedatzen dituena. (315. EAO, 1992ko otsailekoa).

⁴⁵ 944/2003 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, 10/2002/ Legeak, abenduaren 23koak, araututako erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzen egitura xedatzen duena. (182. EAO, 2003ko uztailaren 31koa).

⁴⁶ 423/2005 Errege Dekretua, apirilaren 18koa, 10/2002 Legeak, abenduaren 23koak, Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzen oinarritzko mailan irakaskuntza komunak finkatzen dituena. (103. EAO, 2005eko apirilaren 30ekoa).

1.2.2. Nafarroa

1.2.2.1. Administrazioa

1.2.2.1.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sail-egitura xedatzen da. 12/2007 FD, abuztuaren 16koa. (102. NAO, 2007ko abuztuaren 17koa)

14/2004⁴⁷ Legeak 30.7 artikuluan eta 15/2004⁴⁸ Foru Legeak, abenduaren 3koak, 19.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sail-egitura zehazten da.

Egituran Hezkuntza Saila sartzen da hurrengo aginpideekin:

Hezkuntza Sailari dagokio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari emandako gaitasunak garatzea irakaskuntzan (unibertsitarioa eta ez-unibertsitarioa), hizkuntza-politikan eta indarreko xedapenek ematen dioten gainerako arloetan.

37/2005 FD⁴⁹, otsailaren 24koa, eta maila bereko edo txikiagoko xedapenek indargabetzen dira, azkenekoen kontra egiten badute.

1.2.2.1.2. Sailen oinarrizko egitura zehazten da. 57/2007 FD, abuztuaren 20koa. (104. NAO, 2007ko abuztuaren 22koa).

Sail guztien egitura xedatzen du, besteak beste, Hezkuntza Sailarena.

Sail hori hurrengo organoekin egituratuko da:

- a) Antolaketa, Kalitate edo Berriztapen Zuzendaritza Orokorra
- b) Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Orokorra
- c) Lanbide Heziketa eta Unibertsitateen Zuzendaritza Orokorra
- d) Idazkaritza Tekniko Orokorra

Antolaketa, Kalitate eta Berriztapen Zuzendaritza Orokorrak Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Orokorra ordezkatzeko du eta bere aginpideak onartzen ditu, Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuari eta Ikasteko Laguntzen eta Zentroen Zerbitzuari emandakoak izan ezik. Horiek Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Orokorraren barruan sartuko dira. Lanbide Heziketaren Zerbitzua, berriz, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateen Zuzendaritza Orokorraren barruan sartuko da.

Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Orokorrak Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuen eta Ikasketetarako Laguntzen eta Zentroen Zerbitzuen agin-

⁴⁷ 14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernuarena eta bere Lehendakariarena. (150. NAO, 2004ko abenduaren 15koa)

⁴⁸ 15/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Foru Komunitateko Administrazioarena. (150. NAO, 2004ko abenduaren 15koa).

⁴⁹ 37/2005 Foru Dekretua, otsailaren 24koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren oinarrizko egitura organikoa xedatzen duena. (25. NAO, 2005eko otsailaren 28koa).

ptideak izango ditu. Horiek lehen Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Orokorrean sartuak zeuden. Horiez gain, Giza Baliabideen Zerbitzuaren aginptideak hartuko ditu ere bai.

Lanbide Heziketa eta Unibertsitateen Zuzendaritza Orokorra Unibertsitate eta Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Orokorra ordezkatzeko du eta bere aginptideak hartzen ditu. Halaber, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Orokorri zegokion Lanbide Heziketaren Zerbitzua hartzen du eta berarekin batera bere aginptideak.

Hurrengo organoak deuseztatu dira:

- a) Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Orokorra
- b) Unibertsitate eta Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Orokorra

Kontra egiten duten maila bereko edo txikiagoko xedapenak indargabetzen ditu.

1.2.2.1.3. Fitxategi informatizatua sortzen da Titulu Ofizial Ez Unibertsitarioen izenburupean. 7/2007 FA, otsailaren 8koa. (38. NAO, 2007ko martxoaren 28koa)

143/1994 Foru Dekretuak⁵⁰, uztailaren 26koak, 2. artikuluan xedatutakoarekin bat, "Titulu Ofizial ez Unibertsitarioak" izeneko fitxategia sortzen da. Fitxategiaren ezauzgarriak adierazten dira.

1.2.2.2. Ikastetxeak

1.2.2.2.1. 2007/2008 ikasturtean Haur Hezkuntzaren lehenengo ziklorako eskola-egutegia eta ordutegi orokorra. 407/2007 Ebazp. (73. NAO, 2007ko ekainaren 13koa)

	Haur/Lehen Hezkuntza herri-ikastetxeetan (1)	Haur/Lehen Hezkuntza ikastetxe pribatuetan
Gutxieneko eskola-egunak	215	172/213 (2)
Ikasturtearen hasiera	07/09/1	(3)
Ikasturtearen amaiera	08/07/31	(3)
Jaiegunak	Lan-egutegia	Lan-egutegia
Eskola egunak ez direnak	Udalerriko zaindariaren jaia	Udalerriko zaindariaren jaia
Eskola-egunak ez diren lanegunak	07/11/2, 07/12/7 eta 08/05/2	
Gabonetako oporrak	07/12/22tik 08/01/7ra	
Aste Santuko oporrak	08/03/17tik 08/03/25era	Martxoaren 20a, 21a eta 24a
Ordutegi orokorra	Astelehenetik ostiralera	Astelehenetik ostiralera

1) Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko egutegi orokorra aipatzen du. Proposamen bereziaren aukera aurrez ikusia dago. Bi kasuetan baldintzak adierazten dira. Asteazkenean saioa bakarrik goizez izango da.

(2) Lehenengo zifra ikastetxeak irekia egon behar duen gutxieneko egunak adierazten ditu; bigarrenarekin, berriz, gehieneko egunak adierazten dira.

(3) Ikasturteak guztizenez 10 hilabete eta gehienez 11 hilabete iraungo ditu.

Ordutegi-proposamen bereziak egin daitezke, baina zehazten diren baldintzak errespetatu beharko dira.

⁵⁰ 143/1994 Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere Erakunde Autonomoen organoen mendeko datu pertsonalei buruzko fitxategi informatizatuak arautzen dituena. (91. NAO, 1994ko uztailaren 30ekoa).

Ikastetxei maniobra-tarteak uzten zaizkie jaiegunekin zerikusia duten zenbait alderdi aldatzeko.

1.2.2.2.2. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Arte Plastiko eta Diseinuko eskola-egutegia eta ordutegi orokorra 2007/2008 ikasturtean. 433/2007 Ebazp. (68. NAO, 2007ko ekainaren 1ekoa)

	Haur/Lehen Hezkuntza (1)	DBH (2)	DBH (3)	Batzilergoa	Gainerakoa (4)
Gutxieneko eskola-egunak	175	175	175	175 ⁵¹	175 ⁵²
Ikasturtearen hasiera	07/09/1	07/09/1	07/09/1	07/09/1	07/09/1
Klaseen hasiera: hurrengo data baino beranduago ez	07/09/10	07/09/14	07/09/14	07/09/14	07/09/14
Klaseen amaiera: hurrengo data baino beranduago ez	08/06/19	08/06/20	08/06/20	08/06/20 (1.a), 08/06/06 (2.a)	08/06/20 ⁵³
Ikasturtearen amaiera	08/06/30	08/06/30	08/06/30		
Jaiegunak	Lan-egutegia	Lan-egutegia	Lan-egutegia	Lan-egutegia	Lan-egutegia
Eskola-egunak ez direnak	Udalerriko zaindariaren jaia	Udalerriko zaindariaren jaia	Udalerriko zaindariaren jaia	Udalerriko zaindariaren jaia	Udalerriko zaindariaren jaia
Hezk. Maila. Zaindariaren jaia	07-11-27	07-11-27 ⁵⁴	08/01/28	08/01/29	08/01/29, 07/10/22 ⁵⁵
Eskola-egunak ez diren lanegunak	07/11/2, 07/12/7 eta 08/05/2	07/11/2, 07/12/7 eta 08/05/2	07/11/2, 07/12/7 eta 08/05/2	07/11/2, 07/12/7 eta 08/05/2	07/11/2, 07/12/7 eta 08/05/2
Gabonetako oporrak	07/12/22tik 08/01/7ra	07/12/22tik 08/01/7ra	07/12/22tik 08/01/7ra	07/12/22tik 08/01/7ra	07/12/22tik 08/01/7ra
Aste Santuko Oporrak	20/03/08 al 30/03/08	20/03/08 al 30/03/08	20/03/08 al 30/03/08	20/03/08 al 30/03/08	20/03/08 al 30/03/08
Ordutegi orokorra ⁵⁶	Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsalde	Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsalde	Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsalde	Astelehenetik ostiralera, goizez eta gutxienez bi arratsalde	Astelehenetik ostiralera, goizez eta gutxienez bi arratsalde

(1) Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko egutegi orokorra aipatzen du. Proposamen berezia egiteko aukera dago. Bi kasuetan baldintzak zehazten dira. Asteazkenean saioa bakarrik goizez izango da.

(2) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako egutegiarekin bat dator, nahiz eta irakaskuntza behin-behinekoz Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan garatu. Bestela, ikastetxe horiekin batera funtzionatzen dute edo Bigarren Hezkuntzako Institutuetan egon arren, garraioa Lehen Hezkuntzarekin partekatzen dute.

(3) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan irakasten den Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin bat dator. Halaber, ikastetxe pribatuak eta Bigarren Hezkuntzako Institutuak sartzen dira.

(4) Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide Heziketa.

⁵¹ Batxilergoko 1. mailan urteko lanaldien kopurua 175 egun izango da, Batxilergoaren 2. mailan 165, Unibertsitatera sartzeko proba prestatzeko denboraldia barne. Klaseak 07/05/28an amaituko dira. 07/05/29tik 07/06/7ra bitartean lanaldiak Unibertsitatera sartzeko proba prestatzeko erabiliko dira.

⁵² Bi urte akademikoetako prestakuntza-zikloetako 1. mailan urtean eskola-lanaldiak 175 izango dira. 2. mailan edo urtebeteko prestakuntza zikloetako ikasturteetan urteko orduak zehazteko, curriculumeko orduen kopurua zati eguneko 5,5 eskola ordu egin beharko da.

⁵³ Bi urteko prestakuntza-zikloetako lehenengo mailarako

⁵⁴ Garraioa partekatzen duten institutuak izan ezik. Horientzat 2008ko urtarrilaren 29a izango da.

⁵⁵ Lehenengo data lanbide-heziketarako da; bigarrena, berriz, arte plastikoetarako eta diseinurako.

⁵⁶ Eskola-denboraldietan ordutegiak berrogeita hamar minutukoak izango dira Haur eta Lehen Hezkuntzan. Asteazkenean bakarrik goizeko saioa izango da.

Ordutegi-proposamen bereziak egin daitezke, baina zehazten diren baldintzak errespetatu behar dira. Ikasturtearen hasieratik amaierara arte garatu behar diren jarduerak arautzen dira, baita klaseen hasiera eta amaiera ere.

Ikastetxei maniobra-tarteak uzten zaizkie jaiegunekin zerikusia duten zenbait alderdi aldatzeko.

1.2.2.2.3. 2007/2008 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitatean musikako irakaskuntza arautuen eta dantzako ez-arautuen eskola-egutegia. 431/2007 Ebazp., maiatzaren 10ekoa. (66. NAO, 2007ko maiatzaren 28koa)

Musika eta Dantzako Irakaskuntzak Arautuak eta ez-arautuak

Gutxieneko eskola-egunak	160/150(1)
Ikasturtearen hasiera	07/09/1
Klaseen hasiera: hurrengo baino beranduago ez	07/09/24
Klaseen amaiera:	08/06/12 / 08/05/20 (1)
Ikasturtearen amaiera	08/06/30
Jaiegunak	Lan-egutegia
Eskola-egunak ez direnak	Zaindariaren jaia hezkuntza-mailan (2)
Eskola-egunak ez direnak	07/11/2, 2007/12/7 eta 08/05/02
Gabonetako oporrak	07/12/22tik 08/01/7ra
Aste Santuko oporrak	08/03/20tik 08/03/30era

(1) Lehenengo zifrak musikako irakaskuntza profesionalak eta musikako irakaskuntzak oinarritzko mailan eta maila ertainean adierazten ditu, baita dantzako eskola bereziko irakaskuntzak ere; bigarrenak, berriz, musikako goi-maila aipatzen du.

(2) Dantza Eskolako zaindariaren jaia nazioarteko dantza eguna ospatzen den data da; musika-zentroena, berriz, 08/11/22 izango da.

Ikasturtearen hasieratik amaiera arte garatu behar diren jarduerak arautzen dira. Halaber, klaseen hasiera eta amaiera arautzen da.

Ikastetxei maniobra-tarteak ematen zaizkie jaiegunekin zerikusia duten zenbait alderdi aldatzeko.

1.2.2.2.4. 2007/2008 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitatean hizkuntzen irakaskuntza espezializatuentzat eskola-egutegia. 432/2007 Ebazp., maiatzaren 10ekoa (66. NAO, 07/05/28koa)

Hizkuntza Eskolak

Gutxieneko eskola-egunak	130(1)
Ikasturtearen hasiera	07/09/1
Klaseen hasiera:	07/10/2
Klaseen amaiera:	08/05/30
Ikasturtearen amaiera	08/06/30
Jaiegunak	Lan-egutegia
Eskola-egunak ez direnak	Udalerriko zaindariaren jaia
Eskola-egunak ez direnak	07/11/2, 2007/12/7 eta 08/05/02
Gabonetako oporrak	07/12/22tik 08/01/7ra
Aste Santuko oporrak	08/03/20tik 08/03/30era

(1) Eskola-denboraldiak 60 minutukoak izango dira.

Ikasturtearen hasieratik amaiera arte garatu beharreko jarduerak arautzen dira. Halaber, klaseen hasiera eta amaiera arautzen da.

Ikastetxei maniobra-tarteak uzten zaizkie, jaiegunekin zerikusia duten zenbait alderdi aldatzeko.

1.2.2.2.5. 2007/2008 ikasturtean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko herri-ikastetxeen antolamendu eta funtzionamendurako argibideak. 695/2007 Ebazp., ekainaren 29koa. (97. NAO, 2007ko abuztuaren 8koa)

Emandako argibideek jarraibideak eskaintzen dituzte ikastetxeek beren autonomia-aren esparruan indarreko araudia antolakuntza- eta funtzionamendu-beharretara egoki dezaten. Ikasturtean hasten diren irakaskuntzen antolaketa berriak behar bezala aplikatzeko orientatu nahi dituzte ikastetxeak. Aplika daitezkeen araudia aipatzen da.

Joan den ikasturtekoekin erkatuz, berriak honako hauek dira:

Ikastetxeak ezarriak eta garatzen dituen programa bereziak sartzen dira; ikastetxe-etan bitartekoak kudeatu eta aplikazioa kudea daiteke.

Honakoa arautzen du: ikastetxeek erakunde-plangintzaren dokumentuak berraztertu eta egokitu behar dituztela, 2/2006 LO-k, maiatzaren 3koak⁵⁷, V. tituluko II. kapituluan eta 24.⁵⁸, eta 25.⁵⁹ FD-k, 2007ko martxoaren 19koak, xedatutakora moldatzeko. Era berean, hasten diren ikasturteen curriculumak zehaztu behar dituzte eta 2008/2009 ikasturtean hasiko direnak prestatu. Halaber, ikastetxeek zehaztutako planak berraztertu eta programatu behar dira.

Irakasleek mailaz aldatzeko edo titulazioak lortzeko hartutako erabakiei dagokienez, kalifikazioei buruz ikasleek egin dezaketen erreklamazio-prozesua osatzen da.

Irakasleak prestatzeko ikastetxearen plan berezia idazteko beharra arautzen da.

Haur Hezkuntzako etapan ebaluazioa agintzen zaio Ikuskaritzari.

229/2002 FD⁶⁰, azaroaren 4koa, aztertu behar da teknologia berrien arduraduna arautzeko.

⁵⁷ Ikusi 2. oharra.

⁵⁸ 24/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak xedatzen duena. 64. NAO, 2007ko maiatzaren 23koa).

⁵⁹ 25/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak xedatzen duena (65. NAO, 2007ko maiatzaren 25ekoa).

⁶⁰ 229/2002 Foru Dekretua, azaroaren 4koa, 225/1998 Foru Dekretua, uztailaren 6koa, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lan-ean Hasteko Programak irakasten dituzten herri-ikastetxeen langileen lanaldiari eta ordutegiari buruzkoa, aldatzen duena. (8. NAO, 2003ko urtarrilaren 17koa).

Ordutegi osagarrian hurrengo ikasturtean hasitako ikasturteen curriculumak zehaztuko dira.

Aurrez ikusitakoez gain, prestakuntza-ziklo bateko irakasleek bigarren mailan zehar garatu behar dituzten jarduerak azaltzen dira, bigarren urte horretan eskola-orduak murrizten badira. Era berean, antzeko egoeran dauden prestaketa-ikasturteko irakasleen jarduerak azaltzen dira.

Zuzendaria eskudun da jakintzagai berriei arreta eskaintzeko sail bat zehaztea, ino-lako sail didaktikoari ez bazaio atxiki edo lehentasuna ez badago zehaztuta.

63/2006 FD-k⁶¹ eta 119/2006 FA-k⁶² arautzen dituzten ikastetxe integratuen kasuan, argibideekin aplika daitekeenaz gain, argibide osagarriak egin ahal izango dira.

1.2.2.3. Langileak

1.2.2.3.1. Foru Komunitateko lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboa. 2007ko urtarrilaren 15eko Erabakia. (11. NAO, urtarrilaren 24koa)

Erabakiak 2006. eta 2007. urteetarako Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboa onartu eta argitaratzen du. 2005eko abenduaren 22an enpresaz gaindi Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak eta CCOO eta CSI-CSIF sindikatuetako ordezkariak (gehiengo sindikalak) onartutako hitzarmena biltzen du.

Hitzarmena lan-kontratuko langileei, finkoei edo aldi baterako direnei, aplikatuko zaie, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo erakunde autonomoen eskura lan egiten badute eta berariaz atxikitzen badira.

Hitzarmena hamabi titulutan antolatzen da eta 113 artikulua daude, baita zazpi xedapen osagarri eta indargabetzeko bat ere. Tituluak honako hauek dira:

I. titulua. Xedapen orokorrak. Aplikazio-eremua, zati hitzartuak eta Batzorde paritariario arautzen ditu.

II. titulua. Lanaren antolakuntza, adskripzio-eremuak, sailkapen profesionala (I. kapitulu-ua), sartzeta, kontratazioa (II. kapitulu-ua), sustapena eta mugikortasuna, kategoria desberdineko lanak (III. kapitulu-ua), hizkuntza-politika, langileen zerrenda (IV. kapitulu-ua).

III. titulua. Lanaldia eta ordutegia.

IV. titulua. Oporrak, baimenak eta lizentziak, lan-utzialdiak.

⁶¹ 63/2006 Foru Dekretua, irailaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan lanbide heziketako ikastetxe integratuak arautzen dituena. (116. NAO, 2006ko irailaren 27koa).

⁶² 119/2006 Foru Agindua, urriaren 3koa, esperimentalki lanbide-heziketako herri-ikastetxe zehatzak Zentro Integratu Politekniko bezala izendatzen dituena. (131. NAO, 2006ko azaroaren 1eko).

V. titulua. Ordainsariak. Xedapen orokorrak (I. kapitulua); oro har, langileen ordainsariak (II. kapitulua); Nafarroako Osasun Zerbitzura (Osasunbidea) dauden langileen ordainsariak (III. kapitulua).

VI. titulua. Gizarte-onurak

VI. titulua. Gizarte-onurak

VII. titulua. Enplegu-politika

VIII. titulua. Lan-osasuna

IX. titulua. Absentismoa

X. titulua. Diziplina-erregimena

XI. titulua. Sindikatu-eskubideak

XII. titulua. Ordaina, xurgapena, ordezkua.

Laugarren xedapen osagarria. Erljioa erakusten duten irakasleei dagokie, erakunde erlijiosoen proposamenez, lan-kontratuko erregimenean kontratatuak badaude eta automatikoki urtean berritzen bazaie.

Xedapen Indargabetzailea. Jakintzagai horiek bestelako moduan arautu dituzten aurreko xedapenak ordezkatzeko dira. Berariaz ordezkatzeko da Foru Komunitateko Administrazioaren eta Erakunde Autonomoen Lan-kontratuko Langileen 2004ko urriaren 14ko Hitzarmena. (29. NAO, 2004ko urriaren 29koa).

1.2.2.4. Irakaskuntzak

1.2.2.4.1. Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa arautzen da. 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa. (56. NAO, 2007ko maiatzaren 4koa)

Onartutako arauak kalitatezko, ongizatezko eta segurtasunezko hezkuntza-inguru-nea sortu nahi du, intentzioz antolatuta, umeen desberdintasun pertsonalak, kulturalak eta sozialak orekatzeko gai, familiekin lankidetzan; halaber, nortasunaren eta gaitasun guztien garapen ezin hobea lortu nahi da.

Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloa arautzen du, ikastetxe publikoek nahiz pribatu-ek bete behar dituzten baldintzak zehazten ditu eta ziklorako hezkuntza-edukiak xedatzen ditu.

Zikloa boluntarioa da eta zerotik hiru urtera bitarteko umeak hartuko ditu, aipatzen dituen printzipio orokorrekin bat. Ziklo osoa edo urtebete osoa duten ikastetxeetan eskaini ahal izango da.

Ikastetxeek proposamen pedagogikoa formulatu beharko dute eta bertan helburuak, edukiak, eta printzipio pedagogikoak eta ebaluazioa kontuan hartu beharko dira, horiek arautzen baitute hezkuntza-praktika. Berariaz adierazten dira arauan. Edukian garapen- eta esperientzia-esparruetan antolatzen dira.

Ikastetxeek familiekin lankidetzan dihardute, horien oinarriko hezkuntza-erantzukizuna errespetatzeko. Beren seme-alaben hezkuntza-prozesuari buruz aldizka emango zaie berri.

Umeen artean desberdintasunak saihesteko, jarduera prebentiboak eta orekatzaileak egitera derrigortua dago Hezkuntza Saila. Ildo horri jarraiki, hezkuntza-laguntzen berriazko beharrekiko arreta arautzen da; era berean, berdintasun-baldintzapean ikastetxeetan onarpen-prozesuak arautzen ditu. Debehatuta dago ikastetxeetan 16 astetik beherako umeak onartzea.

Haur Hezkuntzako ikastetxea zer den definitzeko beharrezkoa arautzen da, baita bere izaera publikoa edo pribatua, funtzionamendu-egutegia eta –ordutegia zehazteko eta baldintza fisikoak eta langile baldintzak administrazio-baimena emateko ere. Bai ikastetxe publikoen, bai ikastetxe pribatuen kasuan, administrazio-baimena emateko edo kentzeko prozedura adierazten da.

Umeen zuzeneko hezkuntza-arreta Maisu-maistren titulua duten profesionali dagokie eta Haur Hezkuntzan espezialitatea izan behar dute; bestela, maila baliokideko titulua izan beharko dute. Arreta-prozesuan beste langileek parte har dezakete, adin horretako umei arreta eskaintzeko titulazio egokia badute.

Herri-funtsekin finantzaturako ikastetxeen antolamenduan, gobernuan, funtzionamenduan eta ebaluazioan hezkuntza-komunitatearen partaidetza arautzen da. Ikastetxeei autonomia pedagogikoa eta antolatzeko orduan kudeaketazkoa onartzen zaie. Horren ondorioz, hezkuntza-proiektua eta kudeaketa-proiektua egingo da.

1996ko urtarrilaren 11ko Aginduan⁶³ xedatutakoaren arabera, lortutako gaitasun profesionala nahikoa da lehen zikloa irakasteko.

Zikloa 2007/2008 ikasturtean orokorrean ezarriko da.

Udal-titulartasuneko ikastetxeei eta ikastetxe pribatuei hiru urte ematen zaizkie Dekretuak xedatutako baldintzetara egokitzeko eta dagokion ikastetxea sortzea eskatzeko.

Indargabe uzten da 24/1997 FD⁶⁴, otsailaren 10ekoa, ziklo honi dagokionean eta 251/1992 FD⁶⁵, uztailaren 6koa, ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura xedatzen duena.

Kontra egiten duten maila berdineko edo txikiagoko arauak indargabetzen ditu.

⁶³ 1996ko urtarrilaren 11ko Agindua, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Berezirako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko irakasleentzat espezializazio-ikastaroak eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko profesionalen gaitzeak homologatzen dituena. (1996ko urtarrilaren 23ko EAO).

⁶⁴ Ikusi 58. oharra.

⁶⁵ 251/1992 Foru Dekretua, uztailaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitatean erregimen orokor ez-unibertsitarioko irakaskuntzak irakasten dituzten ikastetxeak baimentzeko prozedura xedatzen duena (93. NAO, 1992ko abuztuaren 3koa).

1.2.2.4.2. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzen curriculumak. 23/2007 FD, martxoaren 29koa. (51. NAO, 2007ko apirilaren 25ekoa)

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko gutxieneko irakaskuntzak 1630/2006 ED-k⁶⁶, abenduaren 29koak, xedatzen ditu. 2/2006 Lege Organikoak⁶⁷, maiatzaren 3koak, 5.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, hezkuntza-administrazioei dagokie Haur Hezkuntzako bigarren zikloko curriculumak zehaztea eta kasu guztietan gutxieneko irakaskuntzak sartuko dira. Ondorioz, Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu horretan curriculumak xedatzen du. Curriculumak garatu eta osatzeko arduradunak ikas-tetxeak dira.

Arauen arabera, gizakiaren garapenerako haurtzaroen eboluzio-aurrerapen erabakigarriak gertatzen dira. Horregatik, arauaren testuak umeek gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko beharrezko neurriak aipatzen ditu. Pertsonaren eta prestakuntzaren garapenari koherentzia eta jarraipena emateko, hamazazpi printzipio aipatzen ditu.

Arauk curriculumaren edukiak arauak berak berariaz aipatzen dituen hiru prestakuntza-eremutan antolatzen ditu. Curriculumaren helburuak ikasleak etapan garatu behar dituen gaitasunak dira. Ebaluazioaren helburua lortutako ikasketak identifikatzea eta lortutako garapena balioztatzea da. Ikaste-irakaste prozesua ikasleek ezagutzea pertsonaletara, beharretara, interesetara eta estilo kognitibora egokitu behar da. Azkenik, prestakuntza-prozesuan familiek lankidetzan aritu behar dutela azpimarratzen du.

Arauk Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoei, pribatuei eta pribatu hitzartuei eragiten die.

Etapak hiru urteko bi ziklotan antolatzen da eta zerotik sei urtera bitarteko umeak sartzen dira. Bere identitatea du eta bigarren zikloan boluntarioa eta doakoa da.

Arauk etaparen helburuak aipatzen ditu, helburuak zerrendatzen ditu eta edukiak arloka antolatzen ditu. Jakintzagaiak maila guztietako ikaste-espazioak dira. Jakintzagaien helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak berariazko eranskinetan jasota daude.

Etapak honetan hasiko da atzerriko hizkuntza ikasten eta bertan irakurketarekiko eta idazketarekiko hurbilketa egingo da; halaber, oinarriko zenbaki-abiak, informazioak, komunikazioak ikus- eta musika-espresioak lantzen hasiko dira.

Ebaluazioa prestakuntzako, etengabea eta orokorra izango da eta ikasitakoak identifikatzeko erabiliko da. Era berean, umearen eboluzioaren eritmoari eta ezaugarriei erreparatuko zaie. Horrez gain, ikaste-prozesua eta hezkuntza-praktika ebaluatuko da.

⁶⁶ 1630/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko gutxieneko irakaskuntzak xedatzen dituena. (4. EAO, 2006ko urtarrilaren 4koa).

⁶⁷ Ikusi 2. oharra.

Testuak ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolakuntza-autonomia sustatzen du, irakasleen taldeko lana erraztu nahi du eta irakasleen gizarte-onarpena zaindu nahi du. Hezkuntza-komunitatearekiko zuzendaritza-taldearen betebeharrak aipatzen ditu eta hezkuntza-prozesuan familien kooperazioa eta partaidetza bilatzearen beharra adierazten du.

Haur eta Lehen Hezkuntzaren artean koordinazio-irizpideak zehaztea arautzen da; era berean, aniztasuna behar bezala tratatu behar da; hala, guztion garapena bateratu behar da eta arreta pertsonalizatua eskaini behar da.

Etapan erlijio-irakaskuntzak curriculumean kontuan hartu behar dira, 2/2006 Legeak, maiatzaren 3koa, 2. XO-n xedatutakoarekin bat. Irakaskuntza horiek jasotzeko borondate-printzipioa zehazten da eta irakaskuntza horien curriculuma definitzeko eliza-hierarkiaren eta agintari erlijiosoen aginpidea errespetatzen da.

574/1991 Foru Dekretua ⁶⁸, abenduaren 30ekoa, indargabetzen da, baina 806/2006 ED-k⁶⁹, ekainaren 30ekoak, xedatutakoarekin bat, Haur Hezkuntzaren antolaketa berria ezarri arte aplikatzen jarraitzea arautzen da.

1.2.2.4.3. Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma xedatzen du. 24/2007 FD, martxoaren 19koa. (64. NAO, maiatzaren 23koa)

Eta boluntarioa eta doakoa da, bi urteko hiru ziklo ditu, seitik hamabi urtera bitarteko umeek egingo dute eta edukiak ezagutza-arloen arabera antolatzen dira 2/2006 LO-k⁷⁰, maiatzaren 3-koak, 18. artikuluan xedatutakoarekin bat. Foru Dekretuak irakaskuntzen curriculuma zehazten du eta 1513/2006 ED-k⁷¹, abenduaren 7koak, adierazitako oinarriko alderdiak jasotzen ditu. Beraz, ezagutza-arlo bakoitzaren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazten dira.

Etaparen helburuetatik honako hauek nabarmen daitezke: garapen pertsonala finkatzea eta abilezia akademikoak, sozialak, lan- eta ikaste-ohiturak eta afektibitatea lortzea. Aipatutako zazpi helburuak lortzeko gaitasunak garatu behar dira umeetan. Araututakoaren arabera, arlo guztietan landuko dira irakurketa-ulermena, ahozko eta idatzizko espresioa, ikus-entzunezko komunikazioa, informazio- eta komunikazio-teknologiak eta baloreetan prestakuntza.

Curriculumak ikasleen garapen pertsonalari eta prestakuntza-garapenari koherentzia eta jarraipena ematen dioten printzipioetan oinarritzen dira. Horiei esker, oina-

⁶⁸ 574/1991 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzaren curriculuma xedatzen duena. (13. NAO, 1992ko urtarrilaren 29koa).

⁶⁹ Ikusi 8. oharra.

⁷⁰ Ikusi 2. oharra.

⁷¹ 1513/2006 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, Lehen Hezkuntzan gutxieneko irakaskuntzak xedatzen dituena. (293. EAO, 2006ko abenduaren 8koa).

rrizko gaitasunak errazago garatuko dira. Ildo horri jarraiki, Dekretuak hemezortzi printzipio aipatzen ditu.

Curriculumetan adierazitako oinarritzko gaitasunei esker, ezinbestez ikasi behar dena identifikatzen da. Norainokoak ikasleari pertsona bezala garatzen utziko dio, hiritar aktibo izango da, helduen bizitzan arazorik gabe sartuko da eta bizitzan zehar ikasteko gaitasuna izango du. Oinarritzko gaitasuna zer den definitzen da. Bereziki azpimarratzen da hizkuntza-gaitasuna. Maila guztietan denbora eman behar da irakurtzeko.

Curriculumaren helburuak etapa guztirako planteatzen dira eta gaitasunen terminoetan definitzen dira. Edukiak zikloen arabera antolatzen dira. Curriculuma garatu eta osatzeko ikastetxeen autonomia onartzen da, eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan integratuko da.

Hirugarren zikloan bigarren hizkuntza atzerritara ikas daiteke. Halaber, curriculumaren jakintzagai batzuk atzerriko hizkuntzan irakats daitezke. Ikastetxeetan ikasleak onartzeko, irizpide orokorrekin erpreparatuko zaie eta ezingo dira hizkuntza-baldintzak sartu.

Ebaluazioa etengabea eta orokorra da. Ikaste-motaren eta mailaren balioztapena balora daiteke; halaber oinarritzko gaitasunak neurtuko dira eta hezkuntzako sendotze-neurriak definituko dira, ikaste-zailtasunak hauteman ahala. Gainera, irakas-kuntzaren prozesua eta hezkuntza-praktika ebaluatu behar du.

Hezkuntzan esku hartzen denean, aniztasunari arreta eskaintzeko printzipioa kontuan hartu behar da. Guztion garapena eta arreta pertsonalizatua bateratu behar ditu. Sailak beharrezkoak diren curriculum- eta antolaketa-neurriak aipatuko ditu. Horri buruz hartutako neurriak ikaste eta garapen pertsonalaren zailtasunak hauteman ahala aplikatuko dira.

Ikaslea ziklo batetik bestera pasatzeko eta, hala badagokio, DBH-ra iristeko, oinarritzko gaitasunak eta heldutasun-maila egokia lortu behar ditu eta, gainera, ikasi ez denak ez du hurrengo zikloa aprobetxatzea saihestuko. Ziklo batean urtebete gehiago egotea etapa guztian zehar bakarrik behin gertatuko da eta errekuiperatzeko edo sendotzeko neurriak beharko ditu. Baldintza horiek bete gabe DBH-ra iristen bada, maila errepikatzeari eta hezkuntza-laguntzak hartzeari dagokionez arauak aurrez ikusitakoa agortu beharko da. Gurasoek eta tutoreek ebaluazioari eta mailaz aldatzeari buruzko erabakiak ezagutu behar dituzte eta hezkuntza-aurreerapena errazteko ikastetxeekin lankidetzan jardun behar dute.

Haur eta Lehen Hezkuntzaren eta Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren artean koordinazioa beharrezkoa da. Tutorea ikasleen banan-banako eta taldeko hezkuntza-prozesuaren orientabidearen arduraduna da.

2/2006 Legeak, maiatzaren 3koak, 2. XO-n aurrez ikusitakoarekin bat, erlijioaren irakaskuntzak curriculumean aurrez ikusi behar dira. Irakaskuntza horiek jasotzeko bo-

rondate-printzipioa zehazten da. Aipatutakoarekin bat, ikastetxeek antolakuntza-neurriak hartuko dituzte erlijio-irakaskuntzak hautatzen dituzten ikasleentzat. Irakaskuntza horien curriculumak definitzeko, eliza-hierarkiaren eta agintari erlijiosoen aginpidea errespetatzen du. Irakaskuntza hau beste arloak bezala ebaluatuko da, baina espediente akademikoak lehian jartzen diren kasuan, kalifikazioa deialdietan ez da zenbatuko.

Azkenik, arauaren arabera, diagnostikoaren ebaluazioak ez du ondorio akademikorik izango, bigarren zikloaren amaieran egingo da eta hirugarren zikloa antolatzeko ikastetxeak prestatu eta orientatzeko erabiliko da; halaber, familiei eta hezkuntza-komunitateari berri emango zaie. Edozein ziklo amaitutakoan Sailari bestelako ebaluazioak egiten uzten dio.

100/1992 FD⁷², martxoaren 16koa, indargabetzen da, baina ordenazio berria ezarri arte aplikazioa ahalbidetzen da.

Araua Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoei, pribatuei eta pribatu hitzartuei aplikatuko zaie.

1.2.2.4.4. 2/2006 LO-k, maiatzaren 3koak, Hezkuntzari buruzkoak, xedatutako Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak eta ordutegiak antolatzeko argibideak. 51/2007 FA, maiatzaren 23koa. (74. NAO, 2007ko ekainaren 15ekoa)

Nafarroako Gobernuak, dagozkion aginpideen esparruan, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako oinarrizko curriculumak definitu ditu 23/2007⁷³ eta 24/2007 Foru Dekretuetan⁷⁴, biak 2007ko martxoaren 19koak. Lehenengoak 1630/2006 ED-k, abenduaren 29koak⁷⁵, aurrez ikusitakoa kontuan hartzen du eta bigarrenak 1513/2006 ED-k, abenduaren 7koak, xedatutakoa⁷⁶.

Foru Aginduak xedatutakoaren arabera, curriculumaren egitura osatzen duen arlo bakoitza tratatzeko denbora zehatza definitzea komenigarria da. Helburua HLO-ko sarreran eta 6. artikuluan aipatutako oinarrizko gaitasunak lortzea da. Halaber, garai berrietan hezteko printzipioekin bat, atzerriko hizkuntzaren aldeko apustu sendoa egiten da eta, beraz, goiztiar hasi behar da ikasten eta beste jakintzagaietako curriculum-edukiak ikasteko erabili behar da. Hala, funtzionaltasuna sustatuko da. Irakur-

⁷² 100/1992 Foru Dekretua, martxoaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak xedatzen duena. (58. NAO, 1992ko maiatzaren 13koa).

⁷³ 23/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzen curriculumak xedatzen duena. (51. NAO, 2007ko apirilaren 25ekoa).

⁷⁴ Ikusi 58. oharra.

⁷⁵ Ikusi 66. oharra.

⁷⁶ Ikusi 71. oharra.

keta ikaslearen oinarritzko gaitasunak garatzeko oinarritzko faktorea da eta berariazko eskola-denboraldia atxikitzen zaio.

Azkenik, Hiritarrentzako Hezkuntza izeneko arloa Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan erakustea zehazten da.

Arauk Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza aipatzen du eta Nafarroako Foru Komunitateko zentro publikoetan nahiz pribatu hitzartuetan du eragina.

Ikastetxeek kontuan hartu beharreko printzipio orokorrak definitzen dira. Ildo horri jarraiki, urtean gutxienez 175 eskola-egun izan beharko dira; aldeaz aurretik eskatuta, eskola-ordutegia zabaldu ahal izango da, baina asteko bost denboraldietan zehaztuta dago. Irakaskuntzen ordutegia banatzeko orduan, irakaskuntzen izaera orokorra eta integratzailea kontuan hartu beharko da eta 15/13/2006 ED-k⁷⁷, abenduaren 7koak, xedatutako gutxieneko ordutegiak errespetatu beharko ditu.

Arloak	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza		
		1. eta 2. zikloa	5. maila	6. maila
Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezagutza	7	4	4	4
Ingurunearen ezagutza	6			
Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena	6			
Aurreko arloetako jarduerak (1)	4			
Hezkuntza artistikoa (2)		2	2	2
Gorputz Hezkuntza		2	2	2
Gaztelania eta Literatura		4	4	4
Irakurketa		1	1	1
Matematika		4	4	4
Teknologia aplikatu berriak/Euskara eta Literatura (3)		4	4	4
Atzerriko hizkuntza		3	3	3
Atzerriko hizkuntza sendotzea	4	2	1	2
Erljioa eta hezkuntza-arreta	1	2	2	2
Bigarren atzerriko hizkuntza (4)				

(1) D ereduko ikasleek jarduera horiek gaztelaniaz egingo dituzte eta A eredukoek euskaraz.

(2) Denboraldi bat musikari eskainiko zaio.

(3) G/A ereduko zentroentzat. G ereduko ikasleek denboraldi guztiak teknologia aplikatu berriei eskainiko diete, erdia matematikari eta Gaztelanari. A eredukoek eskola-tarte hori Euskararentzat eta Euskal Literaturarentzat erabiliko dute.

(4) Arlo hori baimenduta duten ikastetxeentzat. G ereduko ikastetxeen kasuan, sendotze-tartean irakatsiko da G/A ereduaren ikastetxeetan. G ereduko ikasleek tartean Teknologia Berrietatik (TB) aterako dituzte, Matematikari eta Gaztelanari buruz aipatutako proportzio berean. A ereduaren kasuan, Euskarak eta Euskal Literaturak espazio hori beteko dute eta TB-en espazioetan.

Eskola-denboraldiak 50 minutukoak izango dira, asteazken bat izan ezik. Egun horretan 60 minutura zabalduko da; ekainean eta irailean ere 60 minutukoak izango dira.

Haur Hezkuntzako herri-ikastetxeei arloak antolatzeko orduan, ordutegi-malgutatsuna izaten uzten zaie, ikaste-erritmoak moldatu ahal izateko.

⁷⁷ Ikusi 71. oharra.

Haur Hezkuntzaren bigarren zikloan D eredia irakasten duten ikastetxeei atzerriko hizkuntzaren sendotze-irakaskuntza atzeratzea uzten zaie.

Erljio-irakaskuntzak 2/2006 LO-k⁷⁸, maiatzaren 3koak, 2. XO-n xedatutakoarekin bat irakatsiko dira. Erljio-irakaskuntzak jasotzea aukeratu ez dutenentzat hezkuntza-arreta antolatuko da.

Ikasleak Lehen Hezkuntzan urte naturalean sei urte beteak dituztenean hasiko dira. Hezkuntza Behar Bereziak dituzten ikasleen kasuan, urtebete beranduago iritsi ahal izango dira. Berandu hasten diren ikasleak azpiko maila batean eskola daitezke, gaitasunen mailan ziklo bat baino gehiagoko desfaseak badituzte.

230/1992 Foru Agindua⁷⁹, maiatzaren 12koa, eta 366/2002 Foru Agindua⁸⁰, uztailearen 5koa eta kontra egiten duten maila bereko edo txikiagoko xedapenak indargabetzen dira.

1.2.2.4.5. Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak zehazten da. 25/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa. (65. NAO, 2007ko maiatzaren 25koa)

Etaparen derrigorrezkoa eta doakoa da, lau maila sartzen dira eta hamabitik hamasei urtera bitartean egingo dira. Hala eta guztiz ere, ikasleek erregimen arruntan 18 urtera arte egoteko eskubidea onartzen da.

Irakaskuntzen curriculumak 1631/2006 ED-k⁸¹, abenduaren 29koak, xedatutako oinarriko gaitasunak jasotzen ditu. Beraz, ezagutza-arlo bakoitzean helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazten dira. Halaber, oinarriko gaitasunen garapenean eragina lantzen da.

Etapako helburuen artean honakoak azpimarratzen dira: kulturaren oinarriko elementuak lortzea, ikaste- eta lan-ohiturak garatu eta finkatzea, goi-mailako ikasketak egiteko eta lan-merkatuan sartzeko prestatzea eta hiritarren eskubideak eta betebeharrak betetzea. Aipatzen diren hamahiru helburuak lortzeko gaitasunak garatu behar dira gazteetan. Arreta berezia jarriko zaio hezkuntza- eta lanbide-orientabideari, bereziki, laugarren mailan.

⁷⁸ Ikusi 2. oharra.

⁷⁹ 230/1992 Foru Agindua, ekainaren 12koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzari buruzko irakaskuntzak ezartzeko arauak ematen dituena eta curriculum-garapenari, ikastetxe publiko-etak antolakuntza-alderdiei eta Lehen Hezkuntzako ordutegiari buruz argibideak ematen dituena. (88. NAO, 1992ko uztailearen 22koa).

⁸⁰ 366/2002 Foru Agindua, uztailearen 5koa, uztailearen 16ko 257/1998 Foru Aginduaren eta ekainaren 12ko 230/1992 Foru Aginduaren bidez, hurrenez hurren, araututako Haur eta Lehen Hezkuntzako Herri Ikastetxeetan Haur Hezkuntzako bigarren zikloari eta Lehen Hezkuntzakoari dagokion ordutegia aldatzen duena. (105. NAO, 2002ko abuztuaren 30koa).

⁸¹ 1631/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak xedatzen dituena. (5. EAO, 2007ko urtarrilaren 5koa).

Curriculumaren helburuak etapa guztirako planteatzen dira. Curriculumak, ikastetxeen antolaketak eta funtzionamenduak eta beren jarduerak erraztasunak eman behar dituzte etaparen amaieran oinarritzko gaitasunak garatzeko. Curriculumak garatu eta osatzeko ikastetxeen autonomia onartuko da eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan integratuko da. Esperimentazioan diseina daitezke; lan-planak, antolaketak eta moduak, baldintza zehatzetan eskola-ordutegiak zabaltzea zehatz daitezke.

Curriculumean aipatutako oinarritzko gaitasunei esker, ezinbestez ikasi behar dena identifikatzen da. Horietara iritsiz gero, ikaslea pertsona bezala garatuko da, hiritar aktibo izango da, helduen bizitzan modu egokian sartu ahal izango du eta bizitzan zehar ikasteko gaitasuna izango du. Oinarritzko gaitasunaren definizioa ematen da. Irakurtzeko orduan ulertzea, ahoz eta idatziz adieraztea, ikus-entzunezkoen bidez komunikatzea, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea eta baloreetan presatzea. Horiek guztiak arlo guztietan landu behar dira. Hizkuntza-gaitasuna bereziki nabarmentzen da. Maila guztietan irakurtzeko denbora utzi behar da.

Hezkuntzan esku hartzeko orduan, hezkuntza komunaren eta aniztasunaren printzipioak kontuan hartu behar dira. Guztion garapena eta arreta pertsonalizatua bateratu behar ditu. Sailak hori lortzeko curriculum- eta antolakuntza-neurriak aipatuko ditu.

DBH-n jakintzagaien arabera antolaketa honakoa da:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren jakintzagaiak			
I., 2. eta 3. mailatan		Laugarren mailan	
Derrigorrezkoak maila guztietan	Derrigorrezkoa bat	Derrigorrezkoa	Aukerakoak
Gizarte-zientziak, geografia eta historia		Gizarte-zientziak, geografia, historia	
Gorputz-hezkuntza		0. Gorputz -hez.	
Gaztelania eta Literatura		Gaztelania eta Literatura	Latina
Euskara eta Literatura		Euskara eta Literatura	
Matematika		Matematika	
Atzerriko hizkuntza		Atzerriko hizkuntza	2. atzerriko hezkuntza
Natur zientziak 3. mailan Biologian eta Geologian banatua			Biol eta Geol
	Hiri-hezkuntza	Hezkuntza etiko-zibikoa	Fisika eta Kimika
Hezkuntza plastikoa eta ikuste-hezkuntza			Hezkuntza plastikoa eta ikuste-hezkuntza
Musika			Musika
Teknologia			Teknologia
			Informatika
			Jakintzagai bat

DBH-ko mailatan jakintzagaiak antolatzeko irizpideak ematen dira. 4. mailan, aukerako jakintzagaietatik hiru egin behar dira. Hala, curriculum-aukerak egituratuko dira. Gainera, 4. mailan aukera-jakintzagai bat egin ahal izango da.

Curriculumaren arlo batzuk atzerriko hizkuntzan irakasteko baimena ematen da. Ikastetxeetan ikasleak onartzeko irizpide orokorrak jarraitu beharko dira eta ezin daitezke hizkuntza-baldintzak sartu.

Ebaluazioa etengabea izango da eta desberdindua arloen arabera. Oinarrizko gaitasunak eta helburuak lortu direla balioztatzeko erabili behar da. Ebaluazio-irizpideen bidez ikasitakoaren mota eta maila balioztatu ahal izango da eta oinarrizko gaitasunak lortu direla balioztatzeko erreferentziatzat hartzen dira. Irakaskuntza-taldeak ebaluazioan modu kolegiatuan jardungo du. Ikaslearen aurrerapena egokia ez bada, hezkuntza-mailan sendotze-neurriak hartuko ditu. Ikaste-prozesua eta hezkuntza-praktika ebaluatu behar dira.

Ikasleek maila batetik bestera pasatzeko, ikasitako arloetan helburuak lortu behar dituzte edo gehienez bi jakintzagai negatiboki ebaluatuak izango dituzte. Salbuespenez, hiru gaindituak izan gabe maila batetik bestera pasa daiteke, irakasleen taldea hurrengo maila arrakastaz jarraituko duelakoan badago, errekonstruzioa aukerak ikusten baditu eta onura akademikoak izango dituelakoan badago. Maila bera bakarrik behin errepikatu ahal izango da eta etapan gehienez bi aldiz errepikatu ahal izango da. Laugarren mailaa, salbuespenez, bi aldiz errepikatu ahal izango da egoera jakinetan. Orduan, egoteko epea (18 urte) urtebetez gehituko da. Irailean ohiz kanpoko probak egin ahal izango dira.

Curriculum-aniztasuneko programak hirugarren mailako ikasleek egingo dituzte edo bigarrengoek hirugarren mailara pasatzeko prest ez badaude eta etapan zehar behin errepikatu badute. Horretarako, alde zuzeneko komenigarritasuna ebaluatuko da.

Hasierako lanbide-prestakuntza programen helburua 16 urtetik gorako gazteak gizartean, hezkuntza-munduan eta lan-munduan sartzea da, DBH-n graduatuaren titulurik ez badute. Salbuespenez, aipatzen dituen egoeretan, 15 urteko ikasleak sartu ahal izango dira. Programek Lanbide Prestakuntzen Katalogoan NI lanbide-profilari erantzun beharko diote.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua etapako oinarrizko gaitasunak eta helburuak lortzean lortuko da. Jakintzagai guztiak gaindituak dituzten ikasleek lortuko dute; halaber, jakintzagai bat, bi eta, salbuespenez, hiru gainditzeke dituzten ikasleek lortuko dute, irakasle-taldearen iritziz, jakintzagai horiek etapako oinarrizko gaitasunak eta helburuak lortzea saihestu ez badute. Titulurik gabeko ikasleek eskolotze-ziurtagiria izango dute. Urtean behin proba bat izango da, maila amaitu eta hurrengo bi urteetan 18 urtetik gorako ikasleek titulua lortu ez badute, gainditu gabeko jakintzagaiak gainditzeko. Betiere kopurua ez da bostetik gorakoa izango.

Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren artean koordinazio-irizpideak zehaztu behar dira.

2/2006 Legeak⁸², maiatzaren 3koak, 2. XO-n xedatutakoarekin bat, erlijio-irakaskuntzak curriculumean aurrez ikusiak daude. Irakaskuntza horiek hartzeko borondate-printzipioa zehazten da. Xedatutakoarekin bat, ikastetxeek antolakuntza-neurriak hartuko dituzte erlijio-ikasketak egin nahi dituzten ikasleentzat. Irakaskuntza horien curriculum definitzeko, eliza-hierarkiaren eta agintaritzaren erlijiosoaren aginpidea erres-

⁸² Ikusi 2. oharra.

petatzen da. Irakaskuntza horiek beste jakintzagaiak bezala ebaluatuko dira, baina kalifikazioa espediente akademikoak lehian jartzen direnean ez da gehituko.

Azkenik, arauak xedatutakoari jarraiki, diagnostikoaren ebaluazioak ez du ondorio akademikorik izango, bigarren maila amaitutakoan egingo da eta ikastetxean antolaketa-betebeharren plangintzan prestatu eta orientatzeko erabiliko da eta, gainera, familiei eta hezkuntza-komunitateari berri emango die. Sailak etapan zehar bestelako ebaluazioak egin ahal izango ditu.

67/1993 FD⁸³, otsailaren 22koa, 116/1996 FD⁸⁴, otsailaren 19koa, 135/1997 FD⁸⁵, maiatzaren 19koa eta 61/2002 FD⁸⁶, martxoaren 25ekoa, indargabetuko dira. Hala eta guztiz ere, antolaketa berria ezarri arte aplika daitezke. Halaber, testuaren kontra doazen maila bereko edo txikiagoko xedapenak indargabetzen ditu.

1.2.2.4.6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan curriculum-aukeren eta aukerako jakintzagaien curriculum. 53/2007 Foru Agindua, maiatzaren 23koa. (73. NAO, 2007ko ekainaren 13koa)

2/2006 Lege Organikoak⁸⁷, maiatzaren 3koak, 24-5., 25-2. eta 25-6. artikuluetan honakoa xedatzen du: ikasleek aukerako jakintzagaiak egin ahal izango dituztela. Horrez gain, laugarren mailan aukera desberdinetan multzokatutako hiru hautatu ahal izango dituzte. Aipatu aginduak martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretuak⁸⁸ xedatzen ditu 5-7. eta 6. artikuluetan.

FA-k Sailak aukera-espazioa antolatzeko aplikatutako irizpideak aipatzen ditu. Ikasleen beharrak eta interesak kontuan hartu dituzte, baita hezkuntza-sistemaren kanpoko eta barruko ebaluazioen emaitzak eta gaur egungo gizartearen eskaerak ere. Laugarren mailako jakintzagaiak antolatzeko, hiru curriculum aukera (Zientifikoa, Humanistikoa eta Teknologikoa) definitzen dira. Aukera teknologikoa egiten duten ikasleek beren prestakuntza-ibilbidea maila ertaineko prestakuntza-zikloak egitera bideratu nahi dute.

Tutoreak orientazio-funtzio oso garrantzitsua izango du, ikasleek beren interesen, gaitasunen eta beharren arabera curriculum-aukera hauta dezaten. Curriculumaren aukerekin eta jakintzagaiekin etapako oinarritzko gaitasunak eta helburuak lortu behar dira.

⁸³ 67/1993 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum xedatzen duena. (60. NAO, 1993ko maiatzaren 14koa).

⁸⁴ 116/1996 Foru Dekretua, otsailaren 19koa, 67/1993 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumari buruzkoa, aldatzen duena. (1996ko martxoaren 8ko NAO).

⁸⁵ 135/1997 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako antolaketa-eta curriculum-alderdiei buruz argibideak ematen dituena. (1997ko maiatzaren 30eko NAO).

⁸⁶ 61/2002 Foru Dekretua, martxoaren 25ekoa, 67/1993 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumari buruzkoa, aldatzen duena. (50. NAO, 2002ko apirilaren 24koa).

⁸⁷ Ikusi 2. oharra.

⁸⁸ Ikusi 59. oharra.

DBH-n aukerako jakintzagaiak (1)				
Maila			Eredua	
1.a	2.a	3.a	G	D/A
2. atzerriko hizkuntza			3	2
Oinarizko Matematika	Matematika zabaltzea	Kultura klasikoa	3	2
Sormen literarioa	Hizkuntza-abileziak	Ikastetxeak diseinatutakoa	3	2
Curriculum-aukerak DBH-ko 4. mailan				
Jakintzagaiak eta asteko orduak				
Derrigorrezkoak	Aukerakoak			Aukerakoak (G eredia)
		Eredua		
		G	D/A	
Aukera zientifikoa (hiru jakintzagai)				
Biologia eta Geologia (3 ordu) Fisika eta Kimika (3 ordu)	Informatika	3	2	
	Atzerriko bigarren hizkuntza	3	2	Matematan sakontzea (3 h)
	Hezkuntza-plastikoa eta ikuste-hezkuntza	3	2	Fisikak eta Kimikan sakontzea (3 h)
	Musika	3	2	
Aukera humanistikoa (hiru jakintzagai)				
Latina (3 ordu) Informatika (3 ordu)	Atzerriko bigarren hizkuntza	3	2	Literatura Unibertsala (3 h)
	Hezkuntza Plastikoa eta ikuste-hezkuntza	3	2	Geografia ekonomikoa (3 h)
	Musika	3	2	
Aukera teknologikoa (3 jakintzagai)				
Teknologia Hezkuntza plastikoa eta ikuste-hezkuntza (3 ordu)	Informatika	3	2	Ikastetxeak diseinatutakoa (3 h)
	Atzerriko bigarren hezkuntza	3	2	Lanean hastea-bizitza aktiborako trantsizioa (3 h)
	Musika	3	2	

(1) A eredian aukerako jakintzagaia, G/A ikastetxean, Euskara eta Euskal Literatura izango da eta 3 eskola-ordu izango dira.

Curriculum-aukeraren jakintzagaiak honako hauek izango dira: aukerarekin zerikusia duten derrigorrezko bi eta aukerako bat. Hori aukerarekin zerikusia duten hiruen artean hautatu beharko da. Gainera, aukerakoen artean jakintzagai bat egin ahal izango du. Arlo hori etapa guztirako hautatuko da. Hala eta guztiz ere, edozein mailatan has daiteke arlo hori ikasten, maila egokia izanez gero. Xede horrez, egoera zehatzetan, eduki-maila desberdinak izan daitezke. Dena den, salbuespenez, edozein mailaren amaieran jakintzagaian baja ematea eska daiteke, baita baimendu ere.

Xedatutakoa Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu hitzartuetan aplikatuko da.

152/2004 Foru Agindua⁸⁹, ekainaren 15ekoa, indargabetzen du, programak ezartzen doazen heinean. Gainera, testuaren kontra doazen maila bereko edo gutxiagoko xedapenak indargabetzen ditu.

⁸⁹ 152/2004 Foru Agindua, ekainaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion aukerako jakintzagaien curriculumak onartzen duena eta De-

1.2.2.4.7. 2/2006 LO-k, maiatzaren 3koak, Hezkuntzari buruzkoak, xedatutako Bigarren Hezkuntza ezartzea eta horien ordutegia finkatzea. 52/2007 FA, maiatzaren 23koa (74. NAO, 2007ko ekainaren 15ekoa)

Nafarroako Gobernuak, dagozkion aginpideak aplikatuz, DBH-ri dagozkion oinarritzko curriculumak definitu ditu 25/2007 Foru Dekretuan, martxoaren 19koan⁹⁰. Arau honek 1631/2006 ED-k⁹¹, abenduaren 29koak, xedatutakoa kontuan hartu du.

Foru Aginduak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza aipatzen du eta Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu hitzartuetan eragina du.

Ikasturte bakoitzean urteko gutxienez 175 eskola-egun egin beharko dira; aldez aurretik eskatzen bada, eskola-ordutegia zabal daiteke, asteko bost alditan zehaztuta. Asteko eskola-aldiak 30 izango dira eta bat tutoretza-arretarako erabiliko da.

Euskara eta Euskal Literatura ezartzeko, laugarren mailan Matematika nahiz hirugarrenean Natur Zientziak antolatzeko argibideak ematen dira.

Astekoaldiak jakintzagaiei arabera (1)

Jakintzagaiak	Mailak				Guztira
	1.a	2.a	3.a	4.a	
Natur zientziak	3	3	4	-	10
Gizarte-zientziak, geografia eta historia	3	3	3	3	12
Matematika	4	4	4	4	16
Gaztelania eta literatura	4	4	4	4	16
Euskara eta euskal literatura (bakarrik D ereduan)	3	3	3	4	13
Atzerriko hizkuntza	3	3	3	3	12
Gorputz-hezkuntza	2	2	2	1	7
Teknologia	2	3	-	-	5
Musika	3	-	2	-	5
Hezkuntza plastikoa eta ikuste-hezkuntza	-	2	2	-	4
Erljijo/Hezkuntza-arreta	2	2	1	1	6
Hezkuntza etikoa-zibikoa	-	.	-	1	1
Hiri Hezkuntza eta giza eskubideak	-	-	1	-	1
Aukerakoa	3	3	3	3	12
Curriculum aukerak	-	-	-	9	9
Tutoretza	1	1	1	1	4

(1) D ereduan diharduten ikasleek hurrengo jakintzagaiei aldi bat gutxiago izango dute: 3. mailako natur zientzietan, laugarren mailako matematikan, bigarren mailako teknologian, 1. mailako musikan, aukerakoa lehenengo hiru mailatan, hirugarren mailako curriculum-aukerak. 4. mailan gimnasia-jakintzagaiei aldi bat gehiago izango dute. G/A ereduko ikastetxeetan euskara eta euskal literatura aukera-aldian ikasiko dira.

Erljijo-irakaskuntzak 25/2007 Foru Dekretuak⁹² 2. XO-n xedatutakoaren arabera irakatsiko dira. Erljijo-irakaskuntzak hartzea erabaki ez dutenentzat hezkuntza-arreta antolatuko da.

rrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren ikasturtean aukerako jakintzagaiak irakastea arautzen duena. (78. NAO, 2004ko ekainaren 30ekoa).

⁹⁰ Ikusi 59. oharra.

⁹¹ Ikusi 81. oharra.

⁹² Ikusi 59. oharra.

Laugarren mailako aukerak eta aukerako jakintzagaiak⁹³ eskaini eta erregulatzeko, curriculuma onartzen duen araudiari erreparatu behar zaio.

Adinaren arabera dagokion mailarekiko maila bat edo bi beherakoan eskola daitezke, ikasleek curriculum-gaitasunaren mailan bi urte edo gehiagoko desfaseak baidituzte.

514/1994 Foru Agindua⁹⁴, abenduaren 26koa, eta testuaren kontra egiten duten maila bereko edo gutxiagoko xedapenak indargabetzen ditu.

1.2.2.4.8. Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak xedatutako musika-irakaskuntza profesionalen curriculuma Nafarroako Foru Komunitatean zehazten du

21/2007 FD, martxoaren 19koa. (56. NAO, 2007ko maiatzaren 4koa)

Foru Dekretuak irakaskuntzen curriculuma xedatzen du eta 1577/2006 ED-k⁹⁵, abenduaren 22ak, adierazitako oinarrizko alderdiak kontuan hartzen ditu.

Musika-irakaskuntza hauen curriculuma ez da instrumentu-tekniken menderatze praktikora mugatzen, beraz, instrumentua ikasteaz gain, prestakuntza osatzeko bestelako jakintzagaiak daude. Testua berriztatzailea da, taldean egindako musikaren inguruan garatutako jakintzagai-aniztasunarengatik. Ondorengo ikasketen arabera, ibilbide desberdinak egituratzeko aukerako jakintzagaiak irakats daitezke.

Testuak musika-irakaskuntza profesionaleko helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazten ditu, musika-adierazpenean ikasleek kalitatezko prestakuntza artistikoa izan dezaten eta ondorengo ikasketetara irits daitezten. Hori jakintzagai kumententzat eta espezialitate bakoitzak bereak dituenentzat egiten du. Ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolakuntzazkoa onartzen da. Ildo horri jarraiki, ikastetxeak espezialitate desberdinetako curriculumak garatu eta osatzeko arduradun dira eta, horretarako, programazio didaktikoak egingo dituzte. Horiek ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan integratuko dira.

Irakaskuntzak sei mailatan antolatzen dira, baita instrumentu-espezialitateetan ere. Horiek instrumentua ikastearen inguruan egituratuak daude.

⁹³ 53/2007 Foru Agindua, maiatzaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu hitzartuetan aukerako jakintzagaien curriculuma onartzen duena eta horiek irakasteko modua, baita DBH-ko 4. ikasturterako aukerak ere arautzen dituena (73. NAO, 2007ko ekainaren 13koa).

⁹⁴ 514/1994 Foru Agindua, abenduaren 26koa, 1995/1996 ikasturtetik aurrera Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion irakaskuntzak arautzen dituena eta ordutegia finkatzen duena. (1995eko otsailaren 17ko NAO)

⁹⁵ 1577/2006 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, 2/2006 LO-k, maiatzaren 3koak, xedatutako musika-irakaskuntza profesionalaren curriculumari dagozkion oinarrizko alderdiak finkatzen dituena. (18. EAO, 2007ko urtarrilaren 20koa)

Curriculumaren berriazko helburu orokorren bidez lortu behar diren gaitasunak aipatzen dira, hezkuntza-sistemaren gaitasun orokorrak eta hiri-baloreak garatzeaz gain. Irakaskuntzak antolatzeko espezialitateak adierazten dira. Hogeita hiru dira. Sailak aipatuekiko desberdinak baimen ditzake. Espezialitate guztiekiko jakintzagai komunak zehazten dira, baita espezialitate bakoitzak bereak dituenak ere. Sailak zehaztuko ditu aukerako jakintzagaiak.

Ebaluazioa etengabea eta integratzailea izango da, jakintzagaien arabera desberdinu arren. Erreferentziatzat musika-irakaskuntza profesionalen helburuak hartuko dira, baita jakintzagai bakoitzeko curriculuma ere. Irakasleen taldeari dagokio eta irakasle tutorearekin modu integratuan eta koordinatuan arituko da. Azken ebaluazioa ekainean egingo da; hala eta guztiz ere, Sailak irailean ohiz kanpoko probak antolatzeko baldintzak arautuko ditu. Horietan ebaluazio negatiboa izan duten jakintzagaiak errekuperatu ahal izango dira. Ikasleek ikasitakoaz gain, ikaste-prozesuak eta irakaskuntza-praktika ebaluatu behar dira.

Maila batetik bestera pasako da betiere mailan bi jakintzagaik baino gehiagok ebaluazio negatiboa izan ez badute. Gainditu gabeko jakintzagaiak instrumentu- edo aho-praktikari dagozkionak badira, hurrengo urtean errekuperatuko dira, maila horretan irakatsiz gero. Hala ez bada, aurreko mailako klaseetara joan beharko da. Sei garren urtea hiru edo jakintzagai gehiago gainditzen ez badira errepikatuko da. Bestela, bakarrik gainditu gabeko jakintzagaiak egin beharko dira.

Ikasten gehienez zortzi urte emango dira, nahiz eta, salbuespenez, beste urtebete baimendu. Maila berdinean ezingo dira bi urte baino gehiago egon, sei garren mailan izan ezik.

Maila desberdinetan sartzeko proba berezia gainditu beharko da.

Baliokidetasunen erregimena adierazten da musika-irakaskuntza profesional berrietara antolamendu berriaren ondorioz iraungitzen diren irakaskuntza profesionaletatik datozen ikasleentzat, betiere gainditu gabeko jakintzagaiak badituzte.

Xedapena ikastetxe publikoei eta pribatuei aplikatuko zaie, irakaskuntza-mota hori irakasteko baimena badute.

Irakaskuntza horietako ikasketak gaindituz gero, Musika Profesionalaren titulua lortuko da eta ikasitako espezialitatean izango da. Batxilergoaren titulua lortu ahal izango da, batxilergoari dagozkion jakintzagai komunak gainditu badira.

Musika-irakaskuntza profesionalak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa batera ikasteko erraztasunak ematen dira.

34/1995 FD⁹⁶, otsailaren 13koa, musikako irakaskuntzen maila ertaineko curriculuma xedatzen duena, indargabetzen da; hala eta guztiz ere, antolamendu berria ezarri arte aplika daiteke.

⁹⁶ 34/1995 Foru Dekretua, otsailaren 13koa, Nafarroako Foru Komunitatean musika-irakaskuntzen maila ertainari dagokion curriculuma zehazten duena eta maila horretan sartzeko alderdi orokorrak arautzen dituena. (1995eko ekainaren 9ko NAO).

1.2.2.4.9. Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak xedatzen dituen erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzen oinarrizko mailari eta maila ertainari dagozkion curriculumak zehazten ditu Nafarroako Foru Komunitatean. 22/2007 FD, martxoaren 19koa. (56. NAO, 2007ko maiatzaren 4koa)

Foru Dekretuak irakaskuntzen curriculumak xedatzen du eta 1629 ED-k⁹⁷, abenduaren 29koak, adierazitako oinarrizko alderdiak biltzen ditu.

Irakaskuntza hauek egiteko, derrigorrezko hezkuntzan hizkuntzen irakaskuntzak eskaintako oinarrizko gaitasunak izan behar dira. Beren helburua hizkuntzak ezagutzea edo hobetzea da. Hiru maila daude: oinarrizkoa, ertaina eta aurreratua.

Oinarrizko maila eta maila ertaina antolatzen dira eta maila bakoitzari dagozkion irakaskuntzak definitzen dira erreferentziatuz honako hauek hartuta: A2 maila oinarrizko irakaskuntzen kasuan eta B1 maila irakaskuntza ertainei dagokienez. Biak hizkuntzentzat Europako erreferentzia-esparru komunean definituak daude.

Oinarrizko maila bi mailatan antolatzen da. Irakaskuntza horiei ekiteko derrigorrezko irakaskuntzaren bigarren maila edo baliokidea gainditu behar da eta 16 urte izan behar dira. Adinari buruz salbuespena egin daiteke. Bigarren mailan sar daiteke, beharrezko gaitasunak ziurtatzen badira.

Oinarrizko mailaren ziurtagiria proba berezien bidez lortuko da. Horri esker, maila ertaina egin ahal izango da.

Maila ertaina maila bakarrean antolatzen da. Batxilergoaren titulua izanik, maila hori egin daiteke. Beharrezko gaitasunak egiaztatuz gero, sar daiteke. Ziurtagiria proba berezien bidez lortuko da. Maila aurreratuan sartzeko aukera izango da.

Baliokidetasunaren erregimena zehazten da 967/1988 ED-k⁹⁸, irailaren 2koak, araututako eta 2/2006 Legeak⁹⁹, maiatzaren 3koak, xedatutako irakaskuntzen artean.

Arauren edukiak honako hizkuntzak aipatzen ditu: alemana, euskara, frantsesa, ingelesa eta italiara. Horiek Foru Komunitatean irakasten dira.

196/2001 FD¹⁰⁰, uztailaren 16koa, eta 272/2003 FD¹⁰¹, uztailaren 28koa, indargabetzen dira, antolamendu berria ezartzen den heinean.

⁹⁷ 1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, 2/2006 LO-k, maiatzaren 3koak, xedatutako erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzen curriculumari dagozkion oinarrizko alderdiak finkatzen dituena. (4. EAO, 2006ko urtarrilaren 4koa).

⁹⁸ 967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa, Hizkuntza Eskola Ofizialetan irakaskuntza espezializatuen lehenengo maila antolatzen duena. (218. EAO, 1988ko irailaren 10ekoa).

⁹⁹ Ikusi 2. oharra.

¹⁰⁰ 196/2001 Foru Dekretua, uztailaren 16koa, hizkuntza-irakaskuntza espezializatuen oinarrizko zikloa arautu eta curriculumak zehazten duena. (106. NAO, 2001eko abuztuaren 31koa).

¹⁰¹ 272/2003 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, lehenengo mailako hizkuntza-irakaskuntza espezializatuen goi-mailakoa arautu eta curriculumak zehazten duena. (108. NAO, 2003ko abuztuaren 25ekoa).

1.2.2.4.10. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa. 148/2006 FA, azaroaren 21 ekoa. (4. NAO, 2007ko urtarrilaren 8koa)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez, ebaluazioari, sustapenari eta titulazioari buruzko arauak behin-behinekoz xedatu ziren 2004/2005. eta 2005/2006. ikasturteetarako 350/2004 Foru Aginduan¹⁰², abenduaren 9koak, 10/2002 LO-k, abenduaren 23koak, xedatutakoa berariaz garatzen ez zen bitartean. Orain 2/2006 LO-k¹⁰³, maiatzaren 3koak, indargabetu du.

Behin-behinekoa denez, FA-k xedatutako edukia eguneratu behar da, edukia 806/2006 ED-k¹⁰⁴, ekainaren 30ekoak, 9. artikuluan xedatutakora egokitzeko. Horrek aipatutakoaren arabera, 2006-2007. ikasturtearen amaiera arte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa eta sustapena 831/2006 Errege Dekretuak¹⁰⁵, ekainaren 27koak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako antolaketa orokorra eta irakaskuntza komunak xedatzen dituenak, 13. eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin bat egingo da.

Horren ondorioz, FA-k oso osorik hartzen du 350/2004 FA-ko testua eta 2006/2007. ikasturtean aplikatuko da. Bestalde, 350/2004 FA-ren edukia 452/2003 FA-ren¹⁰⁶ antzekoa zen. 350/2004 FA, abenduaren 9koa, eta testuaren kontra doazen maila berdineko edo gutxiagoko xedapen guztiak indargabetzen dira.

Ebaluazioa etengabea, arauzkoa eta curriculumaren jakintzagaien eta arloen arabera bereiztua izango da. Arlo eta jakintzagai desberdinen curriculumetan jasotako helburuekin, edukiekin eta ebaluazio-irizpideekin bat egingo da. Helburuen artean etaparako orokorrak eta arlo eta jakintzagai bakoitzerako bereziak kontuan hartu behar dira. Irizpideak 67/1993 FD-k¹⁰⁷, 61/2002 FD-ren¹⁰⁸ bidez aldatutakoak, xedatzen ditu. Xede horrez, ziklo guztirako aipatutako irizpideak egokitu egingo dira eta etapa osatzen duten bi mailetan bereiziko dira.

Ebaluazio Batzordea prozesuaren garapenez arduratuko da; arlo edo jakintzagai bakoitzeko irakasleak ikaslearen kalifikazio pertsonala erabakiko du; irakasle tutoreak ebaluazio-saioa zuzendu eta koordinatuko du eta Batzordeak adostasunez edo, ha-

¹⁰² 350/2004 Foru Agindua, abenduaren 9koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautzen duena. (4. NAO, 2005eko urtarrilaren 10ekoak).

¹⁰³ Ikusi 2. oharra.

¹⁰⁴ Ikusi 12. oharra.

¹⁰⁵ 831/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren antolamendu orokorra eta irakaskuntza komunak zehazten dituena. (158. EAO, 2003ko uztailaren 3koa).

¹⁰⁶ 452/2003 Foru Agindua, urriaren 17koa, Hezkuntza Kontseilariarena, 2003/2004 ikasturteko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautzen duena. (145. NAO, 2003ko azaroaren 14koa)

¹⁰⁷ Ikusi 83. oharra

¹⁰⁸ Ikusi 86. oharra.

la badagokio, gehiengo osoz, tutorearen kalitatezko botoarekin, gainerako erabakia hartuko ditu.

Ebaluazio-prozesuan sei ebaluazio egin behar dira: ohiz kanpoko bi (bata hasieran eta bestea amaieran, irailean) eta lau arrunt (hiru hilez behin bana eta azkenekoa ekainean). Hasierako ebaluazioaren helburua irakaskuntza- eta ikaste-prozesua ikaslearen ezaugarrietara egokitzea da. Ikasturtearen lehenengo hilabetearen amaieran egiten da.

Ebaluazio arruntak, hiru hilez behin bana, kalifikazioez gain, ikasle bakoitzaren ikaste-prozesuari buruzko oharra bildu beharko ditu. Edukiaren berri tutoreak idatziz edo elkarrizketaren bitartez emango die gurasoei edo tutoreei. Etengabeko ebaluazioaren prozesuan ikasle bakoitzari dagozkion sendotze-neurriak eta curriculum-egokitzapenaren neurriak hartuko dituzte irakasleek.

Azken ebaluazio arrunta ebaluazio arruntaren hirugarren saioa amaitzean egingo da. Edukia dagokion aktan jasoko da.

Azken ebaluazioa ikaslea mailaz igotzeari buruz erabakia hartzeko unea da. Ebaluazio bakoitzean ebaluazio-akta egiten da ikasleen izenekin, jakintzagaien eta arloen araberako kalifikazioekin eta gelditu edo mailaz igotzeari buruzko erabakiarekin. Horrez gain, aurrekoekin batera akta osagarria egingo da, aurreko mailetako arloen eta jakintzagaien kalifikazioak jasotzeko. DBH-ko 4. mailako azken aktan titulua emateko proposamena egingo da.

Maila bakoitzean zehaztutako helburuak lortzen ez dituen ikasle bakoitza ebaluazio-eta kalifikazio-erregistroan adieraziko da (ebaluazio-dokumentazioa osatzen duen dokumentu bat) eta bertan helburuak lortzeko hartutako hezkuntza-neurriak idatziko dira.

Ikasturtea amaitzean, irakasle tutoreak idatziz jakinarazi beharko die familiei ikaslearen errendimenduari buruz.

Ebaluazio Batzordeak erabakiko du azken ebaluazioen amaieran ikasleak mailaz igortzea. Ikasleak jakintzagai edo arlo batean ekaineko azken ebaluazioan kalifikazio positiboa lortzen ez badu, irailearen hasieran ohiz kanpoko proba egin ahal izango du. Helburuak lortu gabe mailaz igotzen diren ikasleek lan-plan berezia egin beharko dute.

Maila osoa errepikatuko da ikasleak bi azken ebaluazioak (ekainekoa eta irailekoa) egin ondoren, bi jakintzagai edo arlo edo gehiago kalifikazio negatiboarekin dituzte. Xede horrez, maila desberdinetako jakintzagaiek edukiontzi progresiboa badeute kontuan hartuko dira. Eduki progresiboa duten jakintzagaiek adierazten dira.

Gaiztuzko dagoen eduki progresiboko jakintzagaia ezingo da ebaluatu, aurreko mailakoa gaiztuz gabe. Maila bakoitza bakarrik behin errepika daiteke, horregatik, errepikatu ostean gora igotzea saihesten duen egoera mantentzen bada, Ebaluazio Batzordeak Orientabide Sailaren aholkularitzarekin mailaz igotzeari buruz era-

bakiko du eta eranskinean aipatutako hezkuntza-neurri osagarriak aplikatu beharko ditu.

DBH-ko ikasketak amaitzean, helburuak lortu badira, Bigarren Hezkuntzan Graduatuaren titulua lortuko da eta Batxilergoa eta maila ertaineko Lanbide Heziketa egiteko gaitasuna ematen du. Helburuak lortutzat joko dira, etapako jakintzagai edo arlo guztiak kalifikazio positiboarekin gainditu badira. Salbuespenez, Batzordeak helburuak lortu gabe titulua ematea proposa dezake, betiere gainditu gabeko arloak edo jakintzagaiak Gaztelania eta Literatura eta Matematika batera ez direnean, horiek oinarritzko jakintzagaizat jotzen baitira. Horiez gain, Euskara eta Euskal Literatura kontuan hartu behar dira eta ezingo dira elkartu hiru horietatik bi. Erabakiak ikaslearen heldutasuna eta aurreratzeko aukerak kontuan hartu beharko ditu, hori guztia etapako helburuak lortzeko xedez.

Laugarren mailako ikasleak aipatutako bi edo hiru jakintzagaiak edo arlo edo jakintzagai gehiago ez baditu gainditzen, berdin du zer jakintzagai diren, maila errepikatu beharko du.

Berariaz arautzen da ikasleak ebaluatzeko eta modu berezian kalifikatzeko forma, curriculum-egokitzapena (esangarria eta oso esangarria; egokitzapen ez-esangarriak, UCA izenekoak eta curriculum-aniztasuna).

Kalifikazioen eskala honakoek osatuko dute: Ez Nahiko (0, 1, 2, 3, 4), Nahiko (5), Ongi (6), Oso Ongi (7, 8) eta Bikain (9, 10); parentesiaren artean aipatutako zenbaki-baliokidetasunen bat halaberrez izango dute.

2438/94 ED-k¹⁰⁹, 1984ko abenduaren 19koak, ondorio akademikoei buruz xedatutakoarekin bat, erlijio-irakaskuntzak curriculumeko gainerako jakintzagaiak bezala ebaluatuko dira eta kalifikazioak espediente akademikoan agertuko dira. AEO izenekoak, berriz, ez da ebaluatuko.

Eranskin bat agertzen da, 2006/2007. ikasturtekoa, sustapenari eta tituluei buruzkoa eta maila bakoitzaren amaieran ikaslearen egoera bereziak eta hurrengo mailan eskaintzen diren aukera akademikoak elkartuko dira.

Araua 2006/2007 ikasturtean ikastetxe publikoei eta pribatuei aplikatuko zaie.

1.2.2.4.11. BHI-entzat ingelesezko sail elebidunen programa esperimental. 328/2007 Ebazp., apirilaren 2koa. (58. NAO, 2007ko maiatzaren 9koa)

Atzerriko hizkuntzak ikastea oinarritzko elementua da Europako Elkartearen eratzeko prozesuan eta hiritarren mugikortasuna sustatzeko orduan. Europako Batzordearen helburua gizarte poliglota lortzea da.

¹⁰⁹ Ikusi 11. oharra.

Joan den ikasturtean sail elebidunen programa esperimentalala sustatu zen frantsesez¹¹⁰ eta ebaluazio positiboa izan du. Hala, ingelesez sail elebidunak baimentzeko programa berriaren deialdia justifikatzen da.

Sail horietan ingelesa irakasteaz gain, curriculumaren jakintzagai bat edo bi ingelesez irakatsiko dira, baina astean ez da eskola-karga gehituko.

Ebazpenak deialdia onartzen du. DBH-ko I. mailako eta ondorengo mailetakoko ikasleentzat da.

Ikaslea partaidea DBH-ko lehenengo mailan matrikulatua egongo da eta hasierako proban ebaluazio positiboa lortu behar du. Horrez gain, gurasoek edo tutoreek idatzizko baimena emango dute. Ikasle berriak sartu ahal izango dira batxilergoaren I. mailan, DBH-ko laugarren mailan hizkuntzan eta sail elebiduneko arloan “oso ongi” kalifikazioa badute. Ikasleek hizkuntza-proba ofizialak egin ahal izango dituzte.

Sailean parte hartzeko, irakasleen baldintzak definitzen dira, baita saila baimentzeko baldintzak, baimena aurkezteko dokumentazioa eta epea, hautespen-irizpideak eta –batzordea, irakasleen prestakuntza eta plan-jarraipena, ikasturtearen azken txostena eta partaidetza luzatu eta amaitzeko mekanismoa ere.

1.2.2.4.12. Eskola-liburutegiei buruz HZM-rekin eta Hazkuntza Sailarekin lankidetzahitzarmena. (7. NAO, 2007ko urtarrilaren 15ekoa)

Hitzarmenaren helburua honakoa da: HZM-ren eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren artean lankidetzak-mekanismoak zehaztea eskola-liburutegien hobekuntzarekin zerikusia duten Foru Komunitateko jarduerak laguntzeko.

Hitzarmenaren ondorioz ikastetxeetako liburutegietan eta ikasgelako liburutegietan bibliografia-hornidurak hobetuko dira; altzariak, material informatikoa eta multimedia erosiko dira; internetera konexioak egiteko instalazioak fisikoki moldatuko dira; ikastetxearen barruan erabiltzeko eta eskola-orduetatik kanpo erabiltzeko egokituko dira; arreta hobetuko da eta liburutegiaren erabilera eta aplikazioei buruz irakasleentzat prestakuntza-programak antolatuko dira.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailari dagozkion konpromiso ekonomikoak honako hauek dira: lehenengoak 135.633,12 euro jarri beharko ditu 2006. urteko aurrekontuaren kargura. Nafarroako Gobernuak antzeko zenbatekoa jarriko du eta oraingo eta hurrengo bi urteetako aurrekontuaren kargura izango da.

Hitzarmena 2008ko abenduaren 31ra arte egingo da indarrean. Hitzarmena berri-
tu edo aldatzeko berriazko dokumentua egin beharko da. Hurrengo ekitaldietan

¹¹⁰ 298/2006 Ebazpena, martxoaren 21ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako Institutuetan frantsesezko sail elebidunen programa esperimentalerako deialdia egiten duena. (48. NAO, 2006ko apirilaren 21ekoa).

kreditu berriak eskura jartzeko “addenda” dokumentuan aipatuko dira eta hitzarmenaren barruan sartuko da.

1.2.2.4.13. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren eta Herrizaingo Ministerioko Trafikoko Zuzendaritza Orokorren arteko hitzarmena bide-hezkuntzan. (16. EAO, 2007ko otsailaren 5koa)

Nafarroako Bide Segurtasunaren Estrategia Nafarroako Gobernuak onartu zuen 2005eko uztailan. Herrizaingo Ministerioaren Bide Segurtasunaren Plan Estrategikoa, berriz, 2006ko otsailan onartu zen. Horiei eutsiz, hezkuntza-ekintzen bidez, zirkulazio-istripuak murrizten dira, baita bide-ezbeharrak eta ondorioak ere.

Hitzarmenaren helburua indarrean dagoen legerian xedatutako helburuak lortzeko bide-hezkuntzan lankidetzan aritzea da.

Hezkuntza Sailak hartutako konpromisoek bide-hezkuntza Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduentzako Hezkuntzako curriculumetan sartzea aurrez ikusten dute. Halaber, irakasleen prestakuntza-planetan gaia lantzeko prestakuntza-jarduerak kontuan hartzen dira; berriztapen-proiektuak sustatzen dira eta gaiari buruz jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak diseinatu eta aplikatuko dira.

Bere aginpideen esparruan, Trafikoko Zuzendaritza Orokorrek honako ekintzak egiteko konpromisoa hartzen du: aholkularitza, lankidetzako profesionalekin, beharrezko material didaktikoak idaztea, bide-hezkuntzari buruz hezkuntza-berriztapen proiektuak laguntzea, hezkuntza-jarduera horri buruz jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak sustatzea eta praktikak egiteko azpiegitura interesgarrietara ikasleak eta irakasleak sartzeko erraztasunak ematea.

Konpromiso bateratua dago bi administrazioek bide-hezkuntzari buruzko argitalpenak eta material didaktikoak trukatu, egin eta batera argitaratzeko.

Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du eta hitzarmena izenpetzen den unetik hasiko da zenbatzen. Automatikoki luzatuko da, indarraldia amaitu baino hilabete bat lehenago alde batek salatzen ez duen bitartean.

1.2.2.4.14. Nafarroako Foru Komunitatean, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak xedatutako erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzen oinarritzko mailaren eta maila ertainaren curriculumak zehazten da. 22/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa. (56. NAO, 2007ko maiatzaren 4koa)

Foru Dekretuak irakaskuntzen curriculumak zehazten du eta 1629 ED-k¹¹¹, abenduaren 29koa, xedatutako oinarritzko alderdiak biltzen ditu.

¹¹¹ 1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, 2/2006 LO-k, maiatzaren 3koa, xedatutako erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzen curriculumari dagozkion oinarritzko alderdiak finkatzen dituena. (4. EAO, 2006ko urtarrilaren 4koa).

Irakaskuntza hauek egiteko oinarrizko gaitasunak behar dira eta horiek derrigorrezko hezkuntzan hizkuntzak ikastea lortzen dira. Beren helburua hizkuntzaren ezagutza lortzea eta hobetzea da. Hiru mailatan antolatzen dira: oinarrizkoa, ertaina eta aurreratua.

Oinarrizko maila eta maila ertaina antolatzen dira eta maila bakoitzari dagozkion irakaskuntzak definitzen dira erreferentziatuz honako hauek hartuta: A2 maila oinarrizko irakaskuntzen kasuan eta B1 maila irakaskuntza ertainei dagokienez. Biak hizkuntzentzat Europako erreferentzia-esparru komunean definituak daude.

Oinarrizko maila bi mailatan antolatzen da. Irakaskuntza horiei ekiteko derrigorrezko irakaskuntzaren bigarren maila edo baliokidea gainditu behar da eta 16 urte izan behar dira. Adinari buruz salbuespena egin daiteke. Bigarren mailan sar daiteke, beharrezko gaitasunak ziurtatzen badira.

Oinarrizko mailaren ziurtagiria proba berezien bidez lortuko da. Horri esker, maila ertaina egin ahal izango da.

Maila ertaina maila bakarrean antolatzen da. Batxilergoaren titulua izanik, maila hori egin daiteke. Beharrezko gaitasunak egiaztatuz gero, sar daiteke. Ziurtagiria proba berezien bidez lortuko da. Maila aurreratuan sartzeko aukera izango da.

Baliokidetasunaren erregimena zehazten da 967/1988 ED-k¹¹², irailaren 2koak, araututako eta 2/2006 Legeak¹¹³, maiatzaren 3koak, xedatutako irakaskuntzen artean.

Arauren edukiak honako hizkuntzak aipatzen ditu: alemana, euskara, frantsesa, ingelesa eta italiara. Horiek Foru Komunitatean irakasten dira.

196/2001 FD¹¹⁴, uztailaren 16koa, eta 272/2003 FD¹¹⁵, uztailaren 28koa, indargabetzen dira, antolamendu berria ezartzen den heinean.

1.2.2.5. Ikasleak

1.2.2.5.1. Irakaskuntza ez-unibertsitarioak irakasten dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu hitzartuetan ikasleak onartzea 31/2007 FD. (52. NAO, apirilaren 27koa)

Foru Dekretuaren helburua honakoa da: bai ikastetxe publikoetan, bai pribatu hitzartuetan ikasleak onartzeko arauak ematea, horiek irakaskuntza ez-unibertsitarioak irakasten badituzte. Eskolatzeko Batzorde orokorra sortzen du eta eskolatzeko

¹¹² Ikusi 98. oharra..

¹¹³ Ikusi 2. oharra.

¹¹⁴ Ikusi 100. oharra..

¹¹⁵ 272/2003 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, lehenengo mailako hizkuntza-irakaskuntza espezializatuen goi-mailakoa arautu eta curriculuma zehazten duena. (108. NAO, 2003ko abuztuaren 25ekoa).

ko tokiko Batzordeak sortzeko baimena ematen da. Hitzartuak ez diren ikastetxe pribatuek ikasleak onartzeko sistema nahi duten bezala zehatz dezakete.

Arauk hezkuntzarako eta eskola-posturako eskubidea bermatu eta jasotzen du; aipatzen dituen arrazoiengatik diskriminazioa debekatzen du; ikastetxeak aukeratzeko gurasoek eta legezko tutoreek edo adin nagusiko ikasleek duten eskubidea aipatzen du, 2/2006 Lege Organikoak¹¹⁶, maiatzaren 3koak, xedatutako mugak kontuan hartuta; ikastetxea aukeratzeko askatasuna onartzen du; eskola-postuetara berdintasun-egoeran sartzea bermatzen du eta ikasleak hezkuntza-proiektua eta ikastetxea errespetatzeko betebeharra zehazten du.

Hezkuntza Sailak laguntza-behar berezia duten ikasleen eskolatze egokia eta orekatua lortu behar du. Xede horrez, aurretiko izen-ematearen denboraldiaren amaiera arte ikastetxeetan eskola-plazen zati bat gordeko du eta ikasgelako eskola daitezkeen ikasleen kopurua %10 gehi dezake.

Halaber, ikastetxeak kokatzeko onarpen eta zona geografikoaren irizpideak eta prozedura zehazten ditu. Ildo horri jarraiki, eskola-plazak norik eskatu behar dituen xedatzen da, baita tokia, eskaera-eredua eta prozesuan onartzeko baldintzei buruzko prozeduraren bestelako gaiak ere. Era berean, aurkeztu behar den eskaera-kopurua eta justifikazio-dokumentuak zehazten dira. Onarpen-eskaera lehenengo aldiz ikastetxeetara iristean lortuko da eta ez da urtez urte errepikatu behar; ikastetxez aldatzea eskatzen ez bada.

Eskaerarekiko eskaintza nahikoa ez denean, onarpen-eskaerak ebazteko lehentasunezko irizpideak aipatzen dira. Batxilergorako irizpide bereziak eransten dira, baita lanbide-heziketako maila ertaineko eta goi-mailako prestakuntza-zikloetan onartzeko irizpide bereziak ere. Ikasleak batera egiten baditu musika- edo dantza-ikasketak edo errendimendu altuko kirol-programak eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzak, zehazten diren ikastetxeetan lehentasun berezia ezarriko da. Irakaskuntza berezietan onartzeko bestelako irizpide osagarriak ezar daitezke.

Hurrengo koadroaren arabera lehentasunezko irizpidea balioztatzeko modua azaltzen da.

Onartzeko lehentasunezko irizpideen baremoa

Anai-arrebak ikastetxeetan ¹	Lehenengo anai-arreba	4 puntu
	Hurrengo bakoitzeko	1 puntu
Etxearekiko hurbiltasuna ¹	Eragin-eremuan	4 puntu
	Mugetan	2 puntu
	Bestelako zonetan	0 puntu

¹¹⁶ Ikusi 2. oharra.

Onartzeko lehenetsuneko irizpideen baremoa

Familia-unitatearen urteko errentak	Lanbide arteko gutxieneko soldataren berdina edo txikiagoa	1,5 puntu
	Lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitzearaino goragokoa	0,5 puntu
	Lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza baino gehiago	0 puntu
Minusbaliotasunak elkartzea	Ikasleak	2 puntu
	Gurasoetan eta anai-arrebetan	0,5 puntu
Batxilergorako irizpide bereziak	DBH-ko espediente akademikoa	Batez besteko nota
Maila ertaineko LH-rako irizpide bereziak ²		
Goi-mailako LH-rako irizpide bereziak ²	Batxilergoko espediente akademikoa	

1. Irizpide horren ordez ikastetxean lan egiten duten gurasoak edo legezko tutoreak erabil daitezke, baina lan-helbidea ikastetxearen eragin-zonan kokatzea ere. Kasu horietan atala 4 punturekin balioztatuko da.
2. Onartzeko irizpide esklusiboa da.

Ikastetxe publikoetan ikasleak onartzeko erabakia Ikastetxeko Eskola Kontseiluak hartuko du; ikastetxe pribatuetan, berriz, titularrak Kontseiluaren bermearekin.

Eskola Kontseiluek eta Eskolatze Batzorde Orokorrek ikasleak onartzeari buruz hartutako erabakien kontra egin daiteke Nafarroako Gobernuaren aurrean.

Dekretuak xedatutako onarpen-erregimena 2/2006 Legeak, maiatzaren 3koak, I. Tituluko VI. kapituluaren araututako irakaskuntza artistikoen maila eta gradu desberdinetara hedatzen da. 5/2002 Lege Organikoak¹¹⁷, abenduaren 19koak, aurrez ikusitako lanbide-heziketaren zentro integratu politeknikoetan ikasleak onartzeko, berriz, arau bereziak izango dira. Hezkuntza-eskola ofizialetan eta pertsona helduentzat hezkuntza-zentroetan ikasleak onartzeko, 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, I. Tituluko VII. eta IX. kapituluaren xedatutakoari erreparatuko zaio, hurrenez hurren. Halaber, Hezkuntza Sailak araudi berezia zehatz dezake. NEE-ak dituzten ikasleak onartzeko, araudi berezia zehaztuko da, alde batera utzi gabe Dekretuan laguntza-behar bereziak dituzten ikasleentzat xedatutakoa.

56/1994 Foru Dekretua¹¹⁸, otsailaren 28koa, 130/1996 Foru Dekretua¹¹⁹, martxoaren 4koa, eta kontra egiten duten xedapen guztiak indargabetzen dira.

Apirilaren 16ko 31/2007 Foru Aginduz¹²⁰ FD-ko 7. artikuluan aipatutako eragin-eremuak zehazten dira.

¹¹⁷ Ikusi 28. oharra.

¹¹⁸ 56/1994 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, herri-funtsen bidez eutsita, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe ez-unibertsitarioetan ikasleak onartzeari buruz arauak ematen dituenak. (1994ko martxoaren 16ko NAO).

¹¹⁹ 130/1996 Foru Dekretua, martxoaren 4koa, 56/1994 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, herri-funtsekin eutsita, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe ez-unibertsitarioetan ikasleak onartzeari buruzkoa, aldatzen duena. (1996ko martxoaren 20ko NAO).

¹²⁰ 31/2007 Foru Agindua, 31/2007 FD-k, apirilaren 2koak, ikasleen onarpena arautzen duenak, 7. artikuluan aurrez ikusitako ikastetxe publikoetan eta pribatu hitzartuen eragin-eremuak zehazten dituenak. (53. NAO, 2007ko apirilaren 30ekoak).

1.2.2.5.2. 31/2007 FD-k, apirilaren 2koak, irakaskuntza ez-unibertsitarioak irakasten dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu hitzartuetan ikasleak onartzeko arauak ematen dituenak, aurrez ikusitako Eskolatzeko Batzorde Orokorra eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeak sortzen ditu. 35/2007 FD, apirilaren 2koa. (57. NAO, 2007ko maiatzaren 5ekoa)

DF 31/2007 FD-k¹²¹, apirilaren 2koak, 2. eta 21. artikuluetan eta 2/2006 LO-k¹²², maiatzaren 3koak, 86. artikuluan xedatutakoarekin bat, FD-k Nafarroako Foru Komunitatean Eskolatzeko Batzorde Orokorra eta bost Tokiko Batzorde sortzen ditu.

Batzorde Orokorra Hezkuntza Saileko organoa da eta Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Orokorrari atxikita dago. Bere zeregina ikasleen eskolatzeko zuzendu, aztertu eta koordinatzea da, alde batera utzi gabe Tokiko Batzordeei dagozkien aginpideak. Dena delakoa, azkenekoen funtzionamendua lehenengoak koordinatu eta ikuskatuko du. Erantzukizunak zentro publiko eta pribatu hitzartuen eskolatzeko gelditzen dira. Arauak funtzioak eta konposizioa aipatzen ditu.

Tokiko Batzordeak lurralde-eremu zehatzerako osatutako organoak dira eta aipatu lurralde-eremu horretan Batzorde Orokorra duen xede bera izango du. Aldi baterako (ikasturterako) sor daitezke edo iraunkorrak izan daitezke. Funtzioak, konposizioa eta funtzionamendu-prozedurak definitzen dira. Eskolatzeko proposamena loteslea izango da ikastetxeentzat eta hautazkoa gurasoentzat.

Xedapen osagarrian bost Tokiko Batzordeak zehazten dira eta Iruñako nahiz bere eskualdeko eragin-eremuak xedatzen dira. Azaldutakoaren kontra ez doazen heinean, hitzarmena iraungi arte egungo Batzordeek funtzionatzen jarraituko dute.

Xedatutakoaren kontra doazen xedapen guztiak indargabetzen dira.

1.2.2.5.3. Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan 2/2006 Legeak xedatzen dituen musika-irakaskuntza profesionalek sartzeko. 78/2007 FA, ekainaren 29koa. (95. NAO, 2007ko abuztuaren 3koa)

Arauak 2/2006 LO-k¹²³, maiatzaren 3koak, xedatutako musika-irakaskuntza profesionalek sartzeko arauak ematen ditu. Bai lehenengo mailan sartzeko, bai beste edozein mailatan sartzeko, sartzeko proba berezia gairatzen behar da. Hautagaiak ezagutza nahikoak izan behar ditu aprobetxamenduz irakaskuntzak gauzatzeko eta, gainera, lehenengo mailan sartzeko probaren kasuan, heldutasuna eta gaitasuna fro-

¹²¹ 31/2007 Foru Dekretua, apirilaren 2koa, irakaskuntza ez-unibertsitarioak irakasten dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu hitzartuetan ikasleak onartzeko arauak ematen dituena. (52. NAO, 2007ko apirilaren 27koa).

¹²² Ikusi 2. oharra.

¹²³ Ikusi 2. oharra.

gatu beharko dira. Lehenengo maila alde batera utzita, beste edozein mailatara sartzeko probak erreferentziatzat aurreko mailetakoko helburuak, curriculumak eta jakintzagaien edukiak kontuan hartuko ditu.

Arauk honakoak arautzen ditu: probak, izen-emateko eskaerak, probaren edukia, sartzeko kalifikazioa, epaimahaiak eta aktak, erreklamazioak, proben ondorioak, plazen eskaintza, plazen esleipena, matrikulazioari buruzko alderdiak.

Proba honako eskemari jarraiki egingo da:

Musikako irakaskuntza profesioaletan sartzea				
	Zatiak	Edukia	Kalifikazioa	Azken kal.
Sartzeko proba	Instrumentuarekin interpretatzea espezialitatea	Errepertorioko hiru, memoriaz bat	Otik 10era 5ekin gainditzen da	Notaren %70
	Entzumena eta ezagutzak	Musika-hizkuntzari buruzko aniketa	Otik 10era 5ekin gainditzen da	Notaren %30

Lehenengo mailan sartzeko probarako errepertorioa, baita musika-lengoiari buruzko ariketaren deskribapena ere FA-ren eranskinean adierazita dago. Beste proben kasuan, berriz, bi alderdiak zentroak hezkuntza-proiektuan zehazten ditu.

Lehen mailan sartzeko interpretazio-proban, hautagaiak errepertoriotik interpretazio bat hautatuko du.

Plazak azken kalifikazioaren arabera esleitu dira. Epaimahaiak hautagaia berak eskatutakoa baino maila txikiagoan jartzea baimen dezake, hautagaiak sartzeko proba gainditzen ez badu.

Proba bakarrik deialdia egin den ikasturtean izango da baliagarria. Gehienez bi espezialitatetako ikasketak batera egin ahal izango dira. Sailak goiko maila batean matrikulatzea baimenduko die ikasle batzuei baldintza zehatzekin.

2

Parlamentuaren jarduera

2.1. 2006ko maiatzaren 25etik 2007ko maiatzaren 25era bitartean hezkuntzari buruz Parlamentuaren Jarduera

Parlamentuaren eremuan Hezkuntza ez-unibertsitarioaren inguruan sortzen den jarduera parlamentarioa, Parlamentuak atxikia duen bultzada- eta kontrol-jarduerari dagokionez, Hezkuntza eta Kultura Batzordean edo Parlamentuaren Osoko Bilkuran gertatzen da.

Hezkuntza eta Kultura Batzordea honako kideek osatzen dute:

Eratze-data: 2003ko irailaren 16a

Mahaia

Lehendakaria:	Miguel Alfonso Úcar Zaratiegui jn. (UPN)
Lehendakariordea:	Miguel José Izu Belloso jn. (IUN-NEB)
Idazkaria:	Aurelia Lumbreras Íñigo and. (SPN)

Batzarkideak

UPN	Josefina Bozal Bozal and.
UPN	Pedro Eza Goyeneche jn.
UPN	Esteban Garijo Pérez jn.
UPN	José Antonio Rapún León jn.
UPN	Begoña Sanzberro Iturriria and.
UPN	Jesús Angel Mendaza Marrodán jn.
SPN	José Luis Izco Biarge jn.
SPN	Carlos Cristóbal García jn.
ARALAR	Patxi Telletxea Ezkurra jn.
CDN	Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.
EA	Maiorga Ramirez Erro jn.
MISTOA	José Luis Etxegarai Andueza jn.

Egindako saioak

Landutako gaiak anitzak izan dira. Batzordearen izenak adierazten duen bezala, bere helburu hezkuntza da, unibertsitarioa barne. Ondoren eskaintzen diren datuak Nafarroako Parlamentuaren Jarduera Txostenetik bildutako en laburpena dira eta

2006ko maiatzaren 25etik 2007ko maiatzaren 25era bitartean gertatu dira, hain zuzen ere, VI. Legealdian. Hezkuntza ez-unibertsitarioa aipatzen da.

Batzordeak **26** saio egin ditu.

2.1.1. Parlamentuaren osoko bilkuran landutako gaiak

Jarduera-mota	Kopurua	Oharrak
Foru Legeen proiektuak	6	Guztiak onartuak
Foru Legeen proposamenak	2	Ez dira kontuan hartu
Interpelazioak	-	-
Mozioak	5	3 onartuak, 2 kenduak
Hitzarmenak	-	-
Galderak ahozko erantzunekin	18	3 kenduak

Foru Legeen proiektuak: 6

1. 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Herri Kontratuari buruzkoa. 72. NAO, 2006ko ekainaren 16koa. Bilkura osoaren onarpena: 06-6-1. Saioen Egunkaria: 76.a. NPAO: 56.a, 06-6-10ekoa. Bozketen emaitza: artikuluka onartua.
2. 9/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, 2005eko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzkoa. Bilkura osoaren onarpena: 07-3-29. Saioen Egunkaria: 97.a. NPAO: 37.a, 07-4-11koa. Bozketen emaitza: BAI-27; EZ-17; ABS.-1.
3. 17/2006 Foru Legea, abenduaren 27koa, 2007. ekitaldirako Nafarroako Kontu Orokorrei buruzkoa. Bilkura osoaren onarpena: 06-12-22. NPAO: 114.a, 06-12-28koa. Saioen Egunkaria: 90.a. Bozketen emaitza: artikuluka onartua.
4. 6/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren behin-behineko xedapenaren babesean, alde aurretik borondatezko erretiroa eskatzen duten irakaskuntza ez-unibertsitarioko langileentzat borondatezko erretiro-prima osagarria jasotzeko baldintzak xedatzen dituen eta alde aurretik borondatez erretiratzeagatik primaren zenbatekoa finkatzen duena. Bilkura osoaren onarpena: 07-3-15. NPAO: 33.a, 07-3-29koa. Saioen Egunkaria: 95.a. Bozketen emaitza: artikuluka onartua.
5. 7/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, euskaldunak ez diren zonetan ordura arte 26/2002 Foru Legeak, uztailearen 2koak, irakaskuntza ez-unibertsitarioak hobetzeko neurriei buruzkoak, finantzatutako ikastolak finantzatzen dituen. Bilkura osoaren onarpena: 07-3-15. NPAO: 33.a, 07-3-29koa. Saioen Egunkaria: 95.a. Bozketen emaitza: artikuluka onartua.
6. 11/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzen duena. Bilkura osoaren onar-

pena: 07-3-29. NPAO: 37.a, 07-4-1 I koa. Saioen Egunkaria: 97.a. Bozketen emaitza: artikuluka onartua.

Foru Legeen proposamenak: 2

1. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa, 5.1b) artikuluan aldatzeko. Ez da kontuan hartu. 06-11-23ko bilkura osoa. NPAO: 107.a, 06-12-5ekoa. Saioen Egunkaria: 87.a.
2. 0tik 3 urtera bitarteko irakaskuntzei buruzko neurriak. Ez da kontuan hartu. 06-2-8ko bilkura osoa. NPAO: 12.a, 06-2-19koa. Saioen Egunkaria: 91.a.

Mozioak: 5

1. Hezkuntzako mahai sektorialean talde negoziatzailetik Fermin Villanueva jaunak ahalik eta azkarren ordezkatzeari Nafarroako Gobernuari eskatzen diona. Eztabaida hurrengo bilkura osoan: 06-6-1. Saioen Egunkaria: 76.a. Kendua: NPAO: 55.a, 06-6-9koa.
2. Ikasle emigranteak edo hezkuntza-behar bereziak dituztenak eskolatzen dituzten ikastetxeekin Nafarroako Gobernuari konpromiso berezia izatea eskatzen diona. Eztabaida hurrengo bilkura osoan: 06-6-29. Saioen Egunkaria: 78.a. Bozketen emaitza: BAI: 44; EZ: 2; ABS: 0. Ebazpena: NPAO: 69.a, 06-7-11koa.
3. 0-3 urtetik 18 urtera bitartean Sarrigureneko eskola-eskaintza publikoa ziurtatu eta definitzeko Nafarroako Gobernuari eskatzen diona. Eztabaida hurrengo bilkura osoan: 06-6-29. Saioen Egunkaria: 78.a. Bozketen emaitza: BAI: 21; EZ: 26; ABS: 0. Baztertua: NPAO: 69.a, 06-7-11koa.
4. Nafarroako Herri Administrazioetik ateratako dokumentazio guztian hizkuntza ez-sexista erabili eta sustatzeko arauak egitea Nafarroako Gobernuari eskatzen diona. Eztabaida bilkura osoan: 06-9-14. Saioen Egunkaria: 80.a. Bozketen emaitza: BAI: 42; EZ: 0; ABS: 0. Ebazpena: NPAO: 78.a, 06-9-25ekoa.
5. Alderdi politikoen aurrean Ganberan Campoy jaunak hezkuntzaren arloan hartutako konpromiso guztiak berehala betetzeko Nafarroako Gobernuari eskatzen diona. Eztabaida bilkura osoan: 07-3-30 Saioen Egunkaria: 98.a. Bozketen emaitza: BAI: 19; EZ: 26; ABS: 0. Baztertua: NPAO: 36.a, 07-4-10ekoa.

Galderak ahozko erantzunarekin: 18

1. Maristak ikastetxe hitzartua baino lehen Sarriguren herri-ikastetxea eraikitzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 06-9-14. Saioen Egunkaria: 80.a.

2. Corellako Alhama BHI-n pabilioia eraikitzea aurrez ikusia dagoen jakitea. Mahaiak kendua: 06-9-11. NPAO: 76.a, 06-9-15koa.
3. Funtzionarioen ordainsariei buruzko Auzitegi Konstituzionalaren epaiari buruzkoa. Bilkura osoan kendua: 06-6-29. Saioen Egunkaria: 78.a.
4. Euskararen erabileraren aplikazioan jarduera-planak berraztertzeari buruzkoa. Bilkura osoaren aurrean erantzuna: 06-9-14. Saioen Egunkaria: 80.a.
5. 2005-2006 ikasturtean beka artistikoen finantzazioari buruzkoa. Bilkura osoaren aurrean erantzuna: 06-10-11. Saioen Egunkaria: 82.a.
6. Gurasoek, irakasleek eta zuzendaritza-taldeak eskatu ostean, Patxi Larrainzar ikastetxean laugarren lerroa ez irekitzearen arrazoiei buruzkoa. Kendua: 06-10-16. NPAO: 85.a, 06-10-20koa.
7. Nafarroako ikastetxeetan gertaera bandalikoak saihesteko Hezkuntza Sailak hartutako segurtasun-neurriei buruzkoa. Bilkura osoaren aurrean erantzuna: 06-10-26. Saioen Egunkaria: 85.a.
8. Iruñako eskualdeko hizkuntza-zonak berraztertzeko Euskarari buruzko Foru Legea aldatzeko lege-proiektuari buruz Gobernuak duen asmoari buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 06-11-9 Saioen Egunkaria: 86.a.
9. Jakintzagai batean bigarren, hirugarren edo ondoz-ondoko urtez Nafarroako Unibertsitate Publikoan matrikulatzen diren ikasleei matrikula-tasen igoera nabarmenaren arrazoiei buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 06-11-23. Saioen Egunkaria: 87.a.
10. Otsagabiako Alejandro Torrea, Garraldako Begoña Mitxeo eta Erronkariko Marina Zubiri ikastetxeetan ikasleek egonkortasun handiagoa izateko Hezkuntza Sailak inplementatzen dituen neurriei buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 06-11-23. Saioen Egunkaria: 87.a.
11. Bitarteko irakasleen plazak esleitzeko sistema eraginkorragoa eta modernoagoa izateko Hezkuntza Sailak inplementatzen dituen neurriei buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 06-11-23. Saioen Egunkaria: 87.a.
12. Euskaraz bizi nahi dutenen eskubideei buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 06-11-23. Saioen Egunkaria: 87.a.
13. Euskararen erabilera sustatzeko Gobernuak egindakoari buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 06-11-23. Saioen Egunkaria: 87.a.
14. Lekarozen hizkuntzaren murgiltze-zentroa sortzeari buruz Nafarroako Gobernuak dituen asmoei buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 06-11-28. Saioen Egunkaria: 88.a.
15. Zigor juridikoa jaso ostean, Nafarroako Gobernuak euskararekiko jazarpen-politikarekin jarraitzeko asmorik ba al duenari buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 06-11-28. Saioen Egunkaria: 88.a.

- 16. Nafarroako Musika Kontserbatorioa eraikitzeko atzerapenari buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 06-12-22. Saioen Egunkaria: 90.a.
- 17. Bztintxurin, Sarrigurenen eta Mendillorri osasun- eta eskola-zentroak eraikitzeko Gobernuaren aurreikuspenei buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 07-3-30. Saioen Egunkaria: 98.a.
- 18. Eskola-zona horretako hornidura-beharrak arintzeko Atarrabian edo Uharten ikastetxe berria eraikitzeko Hezkuntza Sailaren aurreikuspenei buruzkoa. Erantzuna bilkura osoaren aurrean: 07-3-30. Saioen Egunkaria: 98.a.

2.1.2. Batzordeak landutako gaiak:

Ekimen-mota	Kop.
Moziak	-
Agerpenak	13
Galderak ahozko erantzunekin	3
Lan-saioak	18

Agerpenak: 13

- 1. Hezkuntza Kontseilariak Tuteran UPNA-ren unibertsite-ikasketak ezartzeko egoeraren berri eman dezan. Agerraldiaren data: 2006ko maiatzaren 31.
- 2. Hezkuntza Kontseilariak Hezkuntzaren Konferentzia Sektoriala balioztatzeko eta landutako gai ei buruz Gobernuaren ikuspuntua jakinarazteko. Agerraldiaren data: 2006ko ekainaren 20a.
- 3. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Orokorrak 2006-2007 ikasturterako alde z aurretik matrikulatutako ikasleen banaketari eta lerroak edo ikasgelak sortu edo kentzeari buruz berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko ekainaren 20a.
- 4. Hezkuntza Kontseilariak hezkuntza-zerbitzuei buruzko arau-xedapenez berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko irailaren 19a.
- 5. Hezkuntza Saileko arduradunek ikastetxeetan bizikidetasuna hobetzeko planaren aplikazioari dagozkion emaitzen berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko irailaren 19a.
- 6. Hezkuntza Kontseilariak azken urteetan euskararen eboluzioari buruz Iruñan eta bere eskualdean egindako ikasketa soziolinguistikoei buruz berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko urriaren 10a.
- 7. Hezkuntza Kontseilariak Atlante proiektua xedatzen zuen Foru Agindua nulua aitortzen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzi Aretoren epaiaren berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko urriaren 10a.

8. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzi Aretoak Atlante proiektua xedatzen zuen Foru Agindua nulutzat jo du epaian. Hezkuntza Kontseilariak epaiaren ondoren hartuko diren neurrien berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko urriaren 10a.
9. Atlante proiektuari buruz Eskola Kontseiluko ordezkariak bere iritzia emateko. Agerraldiaren data: 2007ko otsailaren 13a.
10. Hezkuntza Kontseilariak hezkuntza sistemaren garapenari buruzko Plan Gidariaren berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko abenduaren 19a.
11. Hezkuntza Kontseilariak Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Garapenari buruzko Plan Gidariaren berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko abenduaren 19a.
12. Hezkuntza Kontseilariak irakaskuntzaren hobekuntza-akordioa lortzeko hezkuntza-sindikatuekin izandako kontaktuen berri emateko. Agerraldiaren data: 2007ko otsailaren 27a.
13. Hezkuntza Kontseilariak Vázquez de Mella herri-ikastetxean ikasle inmigranteen kopuruaren berri emateko. Agerraldiaren data: 2007ko martxoaren 13a.

Galderak ahozko erantzunekin: 3

1. Hezkuntzaren mahai sektorialean akordiorik ez lortzearen arduradunari buruzkoa. Erantzuna Hezkuntza Batzordearen aurrean: 06-5-31. Saioen Egunkaria: 48.a.
2. Elorri herri-ikastetxeko Eskola Kontseiluaren eta zuzendaritza-taldearen dimisioari buruzkoa. Erantzuna Hezkuntza Batzordearen aurrean: 06-9-19. Saioen Egunkaria: 50.a.
3. Egungoa zabaltzeko Zizur Nagusian herri-ikastetxe berria eraikitzeko Hezkuntza Sailaren irizpide-aldaketari buruzkoa. Erantzuna Hezkuntza Batzordearen aurrean: 07-2-13 Saioen Egunkaria: 54.a.

Lan-saioak: 18

1. Hezkuntzaren eremuan drogen kontsumoarekin zerikusia duten arazoak prebenitzeari buruz taldeek eta adituek berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko ekainaren 6a.
2. Nafarroako hezkuntza-orientabidea arautzeko duen Dekretu Proiektuari buruz Nafarroako Psikologoek Elkargo Ofizialeko kideen ordezkariak berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko ekainaren 7a.
3. Nafarroako Musika Eskolen Elkarteko ordezkariak egoeren eta beharren berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko ekainaren 7a.

4. Aldez aurretiko matrikulazio-prozesua amaitu ondoren, Patxi Larrainzar Herri Ikastetxeko gurasoen elkarteko ordezkariak egoeraren berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko maiatzaren 30a.
5. Mendillorriko Elorri herri-ikastetxeko gurasoen ordezkariak seme-alabak eskolatzeko arazoaren berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko ekainaren 6a.
6. Funtzionarioen ordezkariak batek 60 urterekin eta 35 urte kotizatu ondoren borondatezko erretiroari buruz konparaziozko bidegabekeriaren berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko ekainaren 16a.
7. Iruñako Prestakuntza Zentro Politeknikoko arduradunek ikastetxearen egoera eta hezkuntza-eskaintzari buruz berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko irailaren 5a.
8. STEE-EILAS sindikatuak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzi Aretoak emandako epaiak Nafarroako hezkuntza-sisteman izango duen eragina balioztatzeke. Epaiak Atlante proiektua xedatzen zuen Foru Agindua nulutzat jotzen du. Agerraldiaren data: 2006ko urriaren 3a.
9. FETE-UGT-ko ordezkariak 2006-2007 ikasturtearen hasieran Nafarroako hezkuntza-sistemaren egoeraren berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko azaroaren 2a.
10. CCOO-ko hezkuntza-arduradunek ordezkariak 2006-2007 ikasturtearen hasieran Nafarroako hezkuntza-sistemaren egoeraren berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko azaroaren 2a.
11. STEE-EILAS-eko ordezkariak 2006-2007 ikasturtearen hasieran Nafarroako hezkuntza-sistemaren egoeraren berri emateko. Agerraldiaren data: 2006ko azaroaren 2a.
12. ELA eta LAB sindikatuak hezkuntza-ordezkariak Nafarroako hezkuntza-sistemaren arloan balioztatpena azaltzeko. Agerraldiaren data: 2006ko azaroaren 30a.
13. CSI-CSIF sindikatuaren ordezkariak 2006-2007 ikasturtean Nafarroako hezkuntza-sistemaren arloan balioztatpena egiteko. Agerraldiaren data: 2006ko azaroaren 30a.
14. Ikasle eta familia kaltetuek beka artistikoetarako aurrekontu-saila deuseztatzeari buruz berri emateko. Agerraldiaren data: 2007ko otsailaren 7a.
15. "Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas" Herri Enpresaren Administrazio Kontseiluko Lehendakariak "Hezkuntza eta Prestakuntza" Europako Elkarteko programa ezartzearen berri emateko. Agerraldiaren data: 2007ko otsailaren 27a.
16. Hezkuntza-sistema publikoan ordezkariak duten gizarte-eragileen ordezkariak Hezkuntza Batzordeari Nafarroan eskolatzeari buruz sinatu berri den agiriaren zehaztasunak emateko. Agerraldiaren data: 2007ko otsailaren 22a.

17. Eskolatzte-araudiei buruz agiria izenpetu duten erakundeek (AFAPNA, ANPE, Institutuko Zuzendarien Elkartea, CCOO, CSI-CSIF, ELA, Herrikoa, Sortzen-lkasbatuaz, STEE-EILAS, UGT) berri emateko. Agerraldiaren data: 2007ko otsailaren 22a.
18. Vázquez de Mella Herri Ikastetxeko Gurasoen Elkarteko ordezkariak Eskolatzeko Tokiko Batzordea aktibatuz ikastetxean ikasleen eta banaketa berdina egiteko proposamenaren berri emateko. Agerraldiaren data: 2007ko martxoaren 8a.

2.1.3. Bestelako kontrol-jarduerak

Ekimen-mot	Kop
Galderak idatzizko erantzunarekin	44
Informazio-eskaerak	14

Galderak idatzizko erantzunarekin: 44

1. Ikastetxeetan izena emandako ikasleen datuei buruz. Idatzizko erantzuna: 06-6-15. NPAO: 70.a, 06-7-20koa.
2. Nafarroan azken ikasturteetan Haur Hezkuntzan alde zuzenetik matrikulatutako eta matrikulazioen datu estatistikoei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-6-16. NPAO: 70.a, 06-7-20koa.
3. Euskaltegiei egindako erasoari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-7-6. NPAO: 72.a, 06-8-7koa.
4. Uhartan Arte Plastikoetarako bideratutako eraikina eraikitzeari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-7-31. NPAO: 73.a, 06-8-11koa.
5. 0-3 urteko hezkuntzaren ondorioz Nafarroako Gobernuak onartutako gastu guztien kostuari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-9-13 NPAO: 78.a, 06-9-25koa.
6. "I" eredia berriaz inplementatzera Nafarroako Gobernuak bideratutako bideratutako buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-9-13. NPAO: 78.a, 06-9-25koa.
7. Etxalarko Landagain herri-ikastetxeko irakasleei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-9-13 NPAO: 79.a, 06-9-28koa.
8. Ikastetxe publikoetan eta pribatuetan ikasle inmigranteen proportzioari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-9-22 NPAO: 86.a, 06-10-24koa.
9. Doktoretzaren ondorengo beka emateko Unibertsitate Zuzendari Orokorren 66/2006 Ebazpenari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-9-22. NPAO: 86.a, 06-10-24koa.

10. Ikastetxeetan eraikuntza- eta berritze-lanak egiteko aurreikuspenari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-9-22. NPAO: 86.a, 06-10-24koa.
11. Lekarozeko Nuestra Señora de Buen Consejo ikastetxea Gobernuak eros-teari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: —
12. Lekarozeko ikastetxea erosteko arrazoiei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-9-6 NPAO: 81.a, 06-10-5ekoa.
13. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan ezagutzak dituzten Ikuskapen Zerbitzu Teknikoaren ikuskari adituei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-10-5. NPAO: 94.a, 06-11-8koa.
14. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa (0-3 urte) arautzeko Foru Dekretuaren proiektuari dagokion 4. artikuluko 2. puntua Hezkuntzako Kontseilariak interpretatzeari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-11-6. NPAO: 112.a, 06-12-21ekoa.
15. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa (0-3 urte) arautzeko Foru Dekretuaren proiektuari dagokion 13. artikuluko 2. puntua Hezkuntzako Kontseilariak interpretatzeari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-11-6. NPAO: 112.a, 06-12-21ekoa.
16. Arautzeko Foru Dekretua amaitu ostean, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloaz arduratuko den Hezkuntza Saileko administrazio-unitateari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-10-5. NPAO: 94.a, 06-11-8koa.
17. Haur Hezkuntzako zikloak irekitzeko ikastetxe pribatuek eskatzen ez dituzten baldintzei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-10-5. NPAO: 94.a, 06-11-8koa.
18. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa arautzen duen Dekretuaren proiektuko 18. artikuluan zehaztutako proposamena justifikatzeko txosten teknikoei eta hezkuntza-txostenei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-10-5. NPAO: 94.a, 06-11-8koa.
19. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa arautzen duen Dekretu-proiektuaren 22. artikuluan atxikitako funtzioak betetzeko Zerbitzu desberdinetan Hezkuntza Sailak Otik 3 urtera bitartean dituen profesional adituei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-10-5. NPAO: 94.a, 06-11-8koa.
20. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa arautzen duen Dekretu-proiektuaren 16. artikuluan zehaztutako baldintza fisikoen proposamena justifikatzeko txosten teknikoei eta hezkuntza-txostenei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-10-5. NPAO: 94.a, 06-11-8koa.
21. Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen Dekretu-proiektuak 26. artikuluan zehaztutako ikastetxe pribatuen baimen-eskaeren proposamena justifikatzeko txosten teknikoei eta hezkuntza-txostenei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-10-5. NPAO: 94.a, 06-11-8koa.
22. Mendillorriko Institutuaren obren egite-faseei eta amaitze-datei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-9-22. NPAO: 86.a, 06-10-24koa.

23. "Ave María-Patxi Larrainzar" herri-ikastetxean modulu aurrefabrikatuak instalatzeari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-10-5. NPAO: 94.a, 06-11-8koa.
24. Hurrengo urteetan eskola-eraikin berriak eraikitzeke eta daudenak berritzeke Hezkuntza Sailaren inbertsioen aurreikuspenei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-10-19. NPAO: 104.a, 06-11-27koa.
25. Atlante proiektua egin, kostatu eta aurkezteari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-10-19. NPAO: 104.a, 06-11-27koa.
26. Antsoingo Ezkaba herri-ikastetxearen barrakoietan Hezkuntza Sailak inbertitutako zenbatekoari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-11-6. NPAO: 112.a, 06-12-21ekoa.
27. Helduak euskalduntzearen eta alfabetatzearen eremuan gizartearen eta ikaslearen beharrei hezkuntza-eskaintza egokia egiteko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-11-28. NPAO: 40.a, 07-4-18.
28. 129/2006 Ebazpena, ekainaren 20koa, UPNA-ko prezioak finkatzen dituen, Hezkuntza Kontseilariak egin ordez Unibertsitate eta Hizkuntza Politikako Zuzendari Orokorrek egitearen arrazoiei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-12-18. NPAO: 42.a, 07-4-30ekoa.
29. Uhartan, Eguesen eta Esteribarren bigarren hezkuntzako eskaerari arreta eskaintzeko Hezkuntza Sailaren aurreikuspenei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-12-18. NPAO: 42.a, 07-4-30ekoa.
30. Atarrabian Bigarren Hezkuntzako Institutua eraikitzeke Hezkuntza Sailaren asmoei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-12-29. NPAO: 42.a, 07-4-30ekoa.
- 2. ABIES eskola-liburutegietako programa informatikoa banatzea eta mantentzea. Hezkuntza Ministerioak sortu du.
- 3. Ikastetxearen barruan ekipo informatikoen artean konektibitatea errazteko kableak instalatzea. Halaber, eskola-liburutegitik pasatzen dira. Ekintza hori TRENZA proiektuaren barruan sartzen da.
- 4. Liburutegi nagusiak altzariez eta ekipo informatikoez hornitzea. Erregimen orokorreko herri-ikastetxeen %15 gutxienez horretaz baliatu da.
- 5. Prestakuntza-jarduerak eskola-liburutegietan. Guztira 540 irakasle (%10) izan dira eskola-liburutegien antolaketari eta kudeaketari buruzko prestakuntza berezietan.
- 6. Ikastetxeetan bertan izan da aholkularitza. Batez beste 16 ikasturte bisitatu dira urtean (%40).
- 7. Familia irakurlea izenburupean familian irakurketa sustatzeko kanpainak. Gaur egun sei kanpaina banatu dira:
 - Irakurketarekin altuera irabazten dugu 1. 2001-2002 ikasturtea
 - Ozenki. 2002-2003 ikasturtea
 - Eskutik. 2003-2004 ikasturtea
 - Atera punta. 2004-2005 ikasturtea
 - Irakurketarekin altuera irabazten dugu 2. 2005-2006 ikasturtea
 - Apalategi-hondoa. 2006-2007 ikasturtea
- 8. Irakurketa Sustatzeko Sariak.
- 9. Hezkuntza Berriztapenaren Sariak.



Arestian aipatutako ikerketarekin jarraitzeko erregimen orokorreko ikastetxe guztietara, erregimen bereziko ikastetxeetara (arte-eskolak, hizkuntzen eskola ofizialak eta musika-kontserbatorioak) eta helduentzako ikastetxeetara hedatzea planteatu da.

Guztira galdeketa 308 ikastetxeri bidali zitzaizen posta elektronikoz Irakasleak Laguntzeko Zentroetatik eta Hezkuntza Saitetik. Lan hori 2006. urteko bigarren hiruhilekoan egin zen.

233 erantzun jaso ziren: 206 herri-ikastetxeetakoak eta 27 pribatu hitzartuetakoak; beraz, ehuneko oso altua izan da: %75.


Hurrengo ondorioak atera dira:

- I. Liburutegi nagusiar dagokionez:
 - Galdetutako ikastetxeen %86k liburutegi nagusia du.
 - Horrez gain, %92k beste liburutegi-mota du.
 - Ia ikastetxe guztietan liburutegia beste jardueretarako erabiltzen da.




LIBURUTEGIAREN BESTE ERABILERA BATZUK (%)

Liburutegiaren erabilera (1999)



Liburutegiaren erabilera (2006)



2. Liburutegi-arduradunari dagokionez:


- Nafarroako ikastetxeen %81ek liburutegi nagusia badu, koordinatzailearen irudia du.
- Nagusi dira arduradun finkoa duten ikastetxeak (%33).
- la arduradunen erdiak (%47) prestakuntza izan du. Bien bitartean, 1999. urtean %19k zuen.
- Arduradunek astean 1etik 5 ordura bitartean dituzte liburutegiari arreta eskaintzeko, bai pertsona bakarra izanik, bai batzuk izanda.
- Arduradunen jardura nagusia katalogatzea da; bien bitartean, 1999. urtean maileguak ziren.

Ataza nagusiak

Liburutegietako arduradunen atazak	Portzentajea
Katalogazioa	%66,6
Materialak eskuratzea	%48,43
Mailegatzea	%46,35
Irakurtzea sustatzea	%21,51
Aholkularitza dokumentala	%15,62
Beste batzuk	%14,58
Materialak prestatzea	%9,89

3. Liburutegiaren antolaketari dagokionez:

- Ikastetxe gehienek liburutegia ikastorduetan dute irekia.



- 1.000 (ikastetxeen %21) eta 3.000 ale (ikastetxeen %35) bitartean dituzten zentroak nagusi dira.
- Liburutegien erdiak baino gehiagok (%58) aldizka eguneratzen dituzte funtsak.
- Liburutegi nagusia duten ikastetxe gehienek (%72) beren funtsak katalogatuak dituzte edo katalogatze informatikoa egitearen prozesuan daude.
- Erdiak baino gehiagok (%54) katalogatzeko sistematizat Saillkapen Hamartar Unibertsala (SHU) hartzen du.
- Literatura-funtsak nagusi dira.
- Geroz eta ikus-entzunezkoen bitarteko gehiago daude. Ikastetxeen %25 liburutegian zentralizatzen dira.
- Liburutegien %63k erregistro-liburua erabiltzen du.
- Liburutegien %65ek baino gehiagok katalogo-motaren bat du.
- Ia ez dago ikastetxerik liburutegitik informazio-buletina argitaratzen duena (%7,8).
- Maileguak aste osoan funtzionatzen du ikastetxeen %70ean baino gehiagon.
- Ikastetxeen erdiak baino gehiagok liburutegirako aurrekontua du.

Aurrekontua	
Aurrekontua	Portzentajea
300 eurotik behera	%3
300-600 euro	%25,5
600-1.200 euro	%24
1.200-2.400 euro	%9
2.400-6.000 euro	%2
6.000 eurotik gora	%0,5
Ez dute aurrekonturik	%47

4. Liburutegia informatizatzeari dagokionez:
 - Informatikoki liburutegia katalogatzen ari diren ikastetxeen %90ek ABIES programa erabiltzen du.
 - Liburutegian ordenagailua duten ikastetxe gehienek CD-ROM-en irakurlea eta Internetekiko konexioa dute.
 - Ikastetxeen %20ak baino pixka bat gehiagok ordenagailu bat baino gehiago du liburutegian. Ia guztiak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak dira.
5. Liburutegiari eta ikastetxeari dagokionez:
 - Galdetutako ikastetxeen ia erdiak (%48) liburutegirako urteko programazioa du; bien bitartean, 1999. urtean %21 zen.
 - Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienek irakurketa-planak dituzte.
6. Eskola-liburutegiek beste liburutegiekin dituzten harremanei dagokienez:
 - IGZ-ren liburutegiekin harreman garrantzitsua eta harreman urria (%46) herri-liburutegiekin. 1999. urtean ehunekoa %17 zen.

Harremanak kanpoko liburutegiekin	
Harremanak	Portzentajea
ILZetako liburutegiak	%58
Liburutegi publikoak	%26
Biokin eta beste batzuekin	%16

Hori guztia kontuan hartuta hurrengo jarduerak proposatzen dira:

- Bitarteko didaktikoen kudeaketa hobetzea ikastetxeko funts guztiak eskola-liburutegian zentralizatuz.
- Eskola-liburutegiko arduradunaren arduraldia hobetzea, ikastetxearen ezaugarrien eta ikasle-kopuruaren arabera.
- Liburutegian diziplina anitzeko ekipoa zehaztea eta astean gutxienez ordubeteko arduraldia izatea.
- Liburutegi-ekipoen prestakuntza hobetzea.
- Funts dokumentalaren konposizioa hobetzea.
- Hezkuntza-komunitateari eskola-liburutegiak eskaintzen dion informazioa hobetzea.
- Eskola-liburutegiaren hornidura ekonomikoa hobetzea.

- Liburutegi nagusietan ekipo informatikoak hobetzea.
- Ikastetxe guztiek liburutegi-proiektua egin dezaten sustatzea.
- Liburutegiaren funtzionamenduan zuzendaritza-taldearen inplikazioa hobetzea.
- Liburutegi nagusien ezarpena hobetzea eta, horretarako, eskola-liburutegien sarea sortzea.
- Beste liburutegiekin harremanak hobetzea eta inguruneko bitartekoak optimizatzea.
- Nafarroan eskola-liburutegien funtzionamendua biltzeko legeria idaztea.
- Nafarroak etorkizunean eskola-liburutegien estatuko sarea sortzeko oinarriko dokumentazioa egin du eta hurrengo web orrian kontsulta daiteke: <http://www.pnte.cfnavarra.es/profesorado/recursos/biblioteca/>

3.7.2. Argitalpenak

- Nafarroako Atlas, M^a Cruz Pérez Equiza, Hezkuntza Berriztapen eta Curriculum Garapenaren Saila.

Edukia: Nafarroako alderdi geografiko, soziologiko, ekonomiko, historiko eta kultural garrantzitsuenei buruz informazio zehatza eta eguneratua eskaintzen du. Bi bloke handi ditu hurrengo informazioarekin: Geografia: Lurraldearen Antolaketa, Geografia Fisikoa, Giza Geografia, Hiri Geografia eta Geografia Ekonomikoa; Historia: lehenengo arrastoak, baskoietatik Iruñako Erreinura, Nafarroako Erreina, Erreinitik Foru Komunitatera.

Gaztelaniaz 5.500 ale eta euskara 1.500 ale argitaratu ziren.

Gainera, honako argitalpenak egin dira:

3.7.2.1. Blitz, liburutegiko arratoia

- Apalategi-hondoa. Hezkuntza Berriztapen eta Curriculum Garapenaren Saila.
Edukia: familientzako proposamena da; bere helburua oinarriko funts anitzekin liburutegi txikia egiten hastea da. Ez du testuliburuekin zenikusirik, baina eskola-zereginetarako erabilgarria izan daiteke. Irakurketa sustatzeko kanpainaren barruan sartzen da. Aipatu kanpaina Hezkuntza Sailak egin du.
Gaztelaniaz 20.000 ale eta 10.000 ale elebidun argitaratu ziren.
- Ozekin. Eskola Antolaketa eta Berriztapen Zerbitzua.
Edukia: irakurketa-kanpainaren barruan sartuta dago eta ikastetxeko tutoreen bidez familientzat zen.
3.000 ale argitaratu ziren.

- Irakurketarekin altuera irabazten dugu. Eskola Orientabide eta Berriztapen Zerbitzua.
Edukia: liburuxka irudikatua da eta hainbat orientabide ditu familientzat, seme-alaben artean irakurketa-ohitura sustatzeko.
3.000 ale argitaratu ziren.
- Sailkapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumetan. M.^a Antonia del Burgo Tajadura.
Edukia: Sailkapen Hamartar Unibertsalaren aurkezpena egiten du eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Institutuetako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako Institutuetako, Hizkuntza Eskoletako, Arte Aplikatu eta Ofizio Artistikoetako Eskoletako, Musika Eskoletako eta IGZ-etako liburutegietan bibliografia-funtsak gaika antolatzeko aplikazioa adierazten du.
Gaztelaniaz 700 ale eta euskaraz 500 ale argitaratu ziren.
- Eskolako Liburutegia nola antolatu. M.^a Antonia del Burgo Tajadura.
Edukia: eskola-liburutegia antolatzeko zenbait orientabide praktikoko eskaintzen ditu: bitartekoak kontrolatzea, funtsak eguneratzea, espazioa banatzea, seinaleztapena, katalogazioa, mailegua, funtsak hedatzea, erabiltzaileak prestatzea, ikastetxeko liburutegirako proiektua egitea, etab. Halaber, eranskinak ditu eta honakoak erreproduzitzen dituzte: kontrol-dokumentuak, fitxen ereduak, buruak jartzekok arauak, txartel-ereduak eta SHU-ren gai-sailkapenaren taula.
500 ale argitaratu ziren.
- Irakurketa, liburuak eta animazioa. Hausnarketak eta proposamenak. Víctor Moreno Bayona.
Edukia: lehenengo zatian irakurketari, hezkuntza linguistiko literarioari eta irakurketara animatzeko teknikei buruz iritzia ematen ditu. Bigarrenean, eskola-liburutegian egiteko jarduerak proposatzen ditu.
700 ale argitaratu ziren.
- Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan. Pedro Jimeno Capilla.
Edukia: lehenengo zatian idazketari eta bere iritziz “ondo idazteari” buruz aipamenak egiten ditu. Bigarren zatian hurrengo lantzen da: idatzizko adierazpenaren irakaskuntzan ikastetxeek eta irakasleek duten zeregina. Edozein arlotako irakasleei proposamen zehatzak egiten dizkie, bereziki, eskolan egiten diren testu-moitei dagokienez.
500 ale argitaratu ziren.
- Eskola Liburutegian Ikasi eta Ikertzea. M.^a Jesús Illescas
Edukia: eskola-liburutegia ikasteko eta ikertzeko bitarteko-iturri bezala aurkezten du. Ikasleei hiztegiak, liburutegiak, kontsulta-liburuak eta liburutegia osatzen duten gainerako materialak erabiltzen erakusteko hainbat ariketa eskaintzen ditu.
700 ale gaztelaniaz eta 500 ale euskaraz argitaratu ziren.

- Bibliografia-funtsaren eredia Bigarren Hezkuntzako eskola-liburutegiarentzat. Zenbait egile.
Edukia: Bigarren Hezkuntzako ikastetxean eskola-liburutegian bibliografia-funtsa osa dezaketen liburu-sorta aurkezten du. Curriculum-arloka eta literatura-generoka antolatuta dago. Liburu bakoitzetik argitalpen-datuak eta aipamen txikia egiten da.
1.200 ale argitaratu ziren.
- Irakurketa-plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. Luis Iza Dorronso-ro.
Edukia: lehenengo zatian irakurketaren esparru teorikoa aurkezten digu. Bigarrenean irakurketa-plana, bere helburua, ezaugarriak eta aurrez ikusi behar dituen elementuak lantzen ditu. Gainera, gauzatzeko baliozko orientabideak eskaintzen dizkigu.
Gaztelaniaz 1.600 ale eta euskaraz 800 ale argitaratu ziren.
- Ikasleak irakurzaletzen ahotsa, sentimendua eta sormena erabiliz. Víctor Moreno Bayona.
Edukia: testuen bidez ahotsa, sentimendua eta sormena lantzeko ariketak eta teknikak aurkezten dizkigu. Bere helburua irakurketaren gaitasuna garatu eta finkatzea da. Proposatzen dituen tekniketarako hainbat testu egoki sartzen ditu.
1.000 ale argitaratu ziren.
- Eskola-liburutegiaren funtsak eta ikastetxearen irakurketa-planak. M.^a Antonia del Burgo; Ana Bernal.
Edukia: eskola-liburutegiak izan behar dituen oinarriko funtsei buruz orientabideak eskaintzen ditu. Halaber, haur- eta gazte-literaturako argitaletxeen, informazio-liburuen eta interneteko baliabideen zerrenda luzea aurkezten du, ikasleekin ikaste- eta irakurketa-planak aplikatzeko.
1.000 ale argitaratu ziren.

3.7.2.2. Chipi-Txapa. Nafarroa Ezagutuz

- Nafarroako erreinua. Matías Múgica, M.^a Antonia del Burgo.
Edukia: zenbaki honetan ikasleei Nafarroako historia aurkezten zaie hurrengo kapituluetan antolatuta: historia baino lehen, baskoiak eta erromatarrak, kristauak eta paganoak, bisigodoak, musulmanak, Iruñako erreinua, Nafarroako erreinua, Nafarroako gizartea Erdi Aroan, Santiagoko bidea Nafarroan, Frantziako dinastiak eta historiaren amaiera.
Gaztelaniaz 8.000 ale eta euskaraz 3.000 ale argitaratu ziren.
- Nafarroako sinboloak. Eskola Antolaketa eta Berriztapen Zerbitzua.
Edukia: Chipi-Txapa bildumaren 1. zenbakia da eta bere helburua Lehen Hezkuntzako ikasleek Nafarroa ezagutzea da. Zenbaki honetan sinboloak azter-

tzen dira: ezkutua, bandera eta himnoa. Argitalpen hau Ikaslearen Aretorako egin da eta Baluarten izan apirilaren 20an eta 21ean

2.000 ale argitaratu ziren.

- Nafarroa, fauna eta flora. Daniel Fernández León (Laminak) ; M.^a Josefa González Machín (testua).

Edukia: Nafarroako zonetako flora eta faunarekin laminaz egindako koaderno da. Ikasgelan lantzeko ariketak proposatzen ditu.

Gaztelaniaz 8.000 ale eta euskaraz 3.000 ale argitaratu ziren.

3.7.2.3. Atlante bilduma

- Irakurketa-ulermena curriculumaren hizkuntzetan. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Orokorra.

Edukia: CD-ROM-ez hornitutako karpeta da eta gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz irakurketak ulertzeko probak ditu. Halaber, agerpen teorikoak eta gure ikasleen artean hobetzeko proposamenak egiten ditu. Horietan gaitasun honi buruzko nazioarteko proben koordinatuak jarraitzen dira eta idatzizko nahiz ahozko ulermen- eta adierazpen-alderdiei erreparatzen zaie.

550 ale argitaratu ziren.

- Idatzizko adierazpena curriculumaren hiru hizkuntzetan. Hizkuntzen Bulegoa. Erregimen Bereziko Irakaskuntzen Saila.

Edukia: CD-ROM-a da eta gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz idatziz adierazteko ariketa-proposamenak ditu. Hizkuntzen garapen integratuaren proiektuaren barruan sartuta dago.

700 ale argitaratu ziren.

3.7.2.4. Curriculumak

- Curriculumak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 3. liburukia: Aukerazko hautagaiak. Hezkuntza Saila.

Edukia: 53/2007 Foru Agindua, 23koa, hurrengo aukerako jakintzagaien curriculumak zehazten dituena du: sormen literarioa, D ereduak; oinarriko matematika, hizkuntza-abileziak, D ereduak; Matematika hedatzea, kultura klasikoa, geografia ekonomikoa, lanbide-hasiera-helduen bizitzarako iragaita, literatura unibertsala, matematikan sakontzea eta fisika eta kimikan sakontzea.

1.500 ale argitaratu ziren.

- Curriculumak. Haur Hezkuntza. 2. zikloa. Hezkuntza Saila.

Edukia: 23 /2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Haur Hezkuntzako 2. zikloko irakaskuntzen curriculumak zehazten dituena du. Halaber, honako arloetako curriculumak aurkezten ditu: bere burua ezagutzea edo autonomia pertsonala, ingurunea ezagutzea, hizkuntzak (komunikazioa eta irudikapena).

1.600 ale argitaratu ziren.

- Curriculumua. Lehen Hezkuntza. 2. liburukia: Hizkuntzen tratamendu integratua. Hezkuntza Saila.
Edukia: Lehen Hezkuntzan irakasten diren hizkuntzen curriculumua aurkezten du: gaztelania eta literatura (L1); euskara eta euskal literatura. D eredua (L1); euskara. A eredua (L2); ingelesa (L2).
1.300 ale argitaratu ziren.
- Curriculumua. Lehen Hezkuntza. 1. liburukia. Hezkuntza Saila.
Edukia: 24/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Lehen Hezkuntzako curriculumua zehazten duena du. Hurrengo arloetako curriculumua garatzen du: natur, gizarte eta kultur ingurunearen ezagutza, hezkuntza artistikoa, gorputz-hezkuntza, hiritar izateko hezkuntza eta giza eskubideak eta matematika.
1.700 ale argitaratu ziren.
- Curriculumua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2. liburukia. Hezkuntza Saila.
Edukia: curriculumua aurkezten du hurrengo hizkuntzen tratamendu integratuarekin: Gaztelania eta literatura (L1); euskara eta literatura. D eredua (L1); euskara. A eredua (L2); ingelesa (L2); bigarren atzerriko hizkuntza: frantsesa (L3); bigarren atzerriko hizkuntza.
1.100 ale argitaratu ziren.
- Curriculumua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 1. liburukia. Hezkuntza Saila.
Edukia: 25/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculumua zehazten duena, lantzen du. Etaparen oinarritzko gaitasunak eta hurrengo arloetako curriculumak ditu: natur zientziak, gorputz-hezkuntza, gizarte-zientziak, geografia eta historia, hiritar izateko hezkuntza eta giza baliabideak, hezkuntza plastikoa eta ikuste-hezkuntza, informatika, latina, matematika eta musika.
1.400 ale argitaratu ziren.

3.7.2.5. Euskara

- Literatur sorkuntza eta oinarritzko hizkuntza trebetasunak. Maite Lakar Iraizoz; Mirentxu Oteiza Piera.
Edukia: ariketa-corpusarekin CD-ROM-a du.
500 ale argitaratu ziren.
- Porfolioa Nafarroan: Hastapenak/ El Porfolio en Navarra: Fundamentos. M.^a Jesús Asiain Yarnoz, Txuma García Armendáriz, Iñaki Mundiñano.
Edukia: Europako Kontseiluak sustatuta, Europako Hizkuntzen Porfolioaren (EHP) esparruan hizkuntzak ikasteko, irakasteko eta ebaluatzeko dokumentu teorikoak eta praktikoak aurkezten ditu. Porfolioaren helburua honakoa da: gizarte hizkuntza anitzean arrakastaz mugitu ahal izateko Europako hiritar guztiak hizkuntza-gaitasunak garatzea.
500 ale argitaratu ziren.

3.7.2.6. Irakasleen prestakuntza

- Plan de Formación de Profesorado 2006-2007/ Irakasleentzako Prestakuntza Plana 2006-2007. Irakasleak Prestatzeko Saila.
Edukia: 2006-2007 ikasturterako irakasleen prestakuntza-jarduerak aurkezten ditu hezkuntza-etapa guztietan.
2.500 ale argitaratu ziren.
- Irakasleen Prestakuntza Plana 2006-2007. Irakasleak Prestatzeko Saila.
Edukia: 2006-07 ikasturterako irakasleen hobetze-jarduera guztiak aurkezten ditu hezkuntza-etapa guztietan.
6.500 ale argitaratu ziren.
- Zuzendaritza-taldeak prestatzeko programa. Irakasleak Prestatzeko Saila.
Edukia: Zuzendaritza-taldeentzat prestakuntza-ikastaroak dituen informazio-trip-tikoa da.
30 ale argitaratu ziren.
- Biribilka 4. Zenbait egile. Consuelo Allué (koord.).
Edukia: CD-ROM-a da eta karpeta baten barruan sartuta dago. Dibulgazio-artikuluak, esperientzia pedagogikoak, elkarrizketak, liburu-aipamenak eta material didaktikoak nahiz bestelako ekarpenak ditu.
1.200 ale argitaratu ziren.
- Irakasleak Prestatzeko Zentroetako Zuzendarien V. Estatuko Jardunaldiak. Irakasleak Prestatzeko Saila.
Edukia: maiatzaren 16an, 17an eta 18an egindako Tuterako jardunaldien programa du.
60 ale argitaratu ziren.

3.7.2.7. Lanbide Heziketa

- PL Prestakuntza Lanpostuetan. Lanpostuetan Prestatzeko Bulegoa.
Edukia: Lanpostuetan Prestakuntza-moduluak jarraitzeko materialak dira. Horiek Maila Ertaineko eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloetan irakasten dira.
Argitaratutako aleen kopurua: aldakorra material bakoitzean.

3.7.2.8. Ikasketa Gida

- Ikasketa Gida. Unibertsitatea. Testu eta Material Didaktikoen Bulegoa.
Edukia: sistema unibertsitarioari buruz informazioa du: nola egituratzen dira sistema unibertsitarioak; Ikasketa-jakintzagaiak; batxilergotik unibertsitatera iristea: sartzeko proba, probaren kalifikazioa; unibertsitatera Goi Mailako Lanbide Prestakuntza Bereztik iristea; unibertsitatean sartzeko arauak: onartzeko irizpide orokorrak, beste unibertsitateetan ikastea; UPNA-n onartea eta matrikula; Nafarroako Unibertsitatean

onartzea eta matrikula; Urrutiko Nazioko Hezkuntza Unibertsitatea; bestelako unibertsitate-ikasketak; zerbitzuak eta beka; Erasmus programa; bestelako ikasketak. Gaztelaniaz 4.200 ale eta euskaraz 1.200 ale argitaratu ziren.

- Ikasketa Gida. Lanbide Heziketa, Arte Plastikoa eta Diseinua. Testu eta Material Didaktikoen Bulegoa.

Edukia: Lanbide Heziketaren eta Arte Plastiko eta Diseinuaren irakaskuntzei buruzko informazioa du: Lanbide Heziketa berria; prestakuntza-zikloen egoera hezkuntza-sisteman; nola egituratzen da Lanbide Heziketa Berezia; maila ertaineko prestakuntza-zikloak; goi-mailako prestakuntza-zikloak; goi-mailako zikloetatik Unibertsitatera iristea; maila ertaineko eta goi-mailako prestakuntza-zikloak Arte Plastikoetan eta Diseinuan; bestelako ikasketak; zerbitzuak eta beka.

6.500 ale argitaratu ziren gaztelaniaz eta 1.500 ale euskaraz.

- Ikasketa Gida. Batxilergoa. Testu eta Material Didaktikoen Bulegoa.

Edukia: hezkuntza-etapari buruzko informazioa du; zer da Batxilergoa; Batxilergoaren egoera Espainiako Hezkuntza Sisteman; nola egituratzen da Batxilergoa; Arteen modalitatea; Teknologiararen modalitatea; Natur eta Osasun Zientzien modalitatea; Gizateria eta Gizarte Zientzien modalitatea; ebaluazioa; sustapena; titulazioa; Lanbide Heziketaren ondorengo ikasketak eta Arte Plastikoen eta Diseinuaren prestakuntza-zikloak; ikasketa unibertsitarioak; sartzeko proba; unibertsitate-karrerak; zerbitzuak eta beka; bestelako ikasketak.

Gaztelaniaz 6.000 ale eta euskaraz 1.500 ale argitaratu ziren.

3.7.2.9. Ikuskapena

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ebaluazioa. Ikuskapen Teknikoaren eta Zerbitzukoaren Zerbitzua.

Edukia: 2005. urteko abenduan egindako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailako ebaluazioaren emaitzak aurkezten ditu. Matematika, Gaztelania eta Euskara ebaluatu ziren. Jakintzagai horien probak sartzen dira.

600 ale argitaratu ziren.

- Ikastetxeetako kanpoko eta barruko ebaluazioak egiteko orientabideak. Ikuskapen Teknikoaren eta Zerbitzukoaren Zerbitzua.

Edukia: Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan 2006-2007 ikasturtearen amaieran egingo den kanpoko ebaluazioaren esparrua aurkezten du. Ebaluatuko diren jakintza-gaietarako proba-ereduak daude: irakurketa ulertua gaztelaniaz, testuen ekoizpena gaztelaniaz eta ariketak euskaraz.

1.600 ale argitaratu ziren.

- Lehen Hezkuntzako Ebaluazio Koadernoak. Ikuskapen Teknikoaren eta Zerbitzukoaren Zerbitzua.

Edukia: Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailako ebaluazio-probak dira. Ariketen ebazpena, irakurketa-ulermena eta idatzizko testuen ekoizpena ebaluatzen da. Ebaluazioa 2007ko maiatzean egingo zaie ikasturte horietako Nafarroako ikasle guztiei.

95.200 ale argitaratu ziren.

3.7.2.10. Instrumenta

- Matematika. Ariketen Ebazpena. Isabel Echenique Urdiain.

Edukia: Matematikak gure gizartean duen zereginari buruz ebazpena egin ostean, liburu honetan Lehen Hezkuntzako maila eta zikloetan ariketak ebazteko tailleraren eredia planteatzen da. Halaber, jarduera ugari proposatzen dira ikasgelan egiteko. CD-ROM-arekin batera aurkeztuko da eta zenbait ariketa eta proposamen didaktiko ditu, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.

Lehen Hezkuntzako irakasleentzat da, baina erabilgarria izan daiteke DBH-ko lehenengo mailakoentzat ere bai.

1.000 ale argitaratu ziren.

- Hezkuntza Artistikoa. José Luís Valenciano-Plaza, Ignacio Aranguren eta Fermín Iriarte.

Edukia: Hezkuntza Plastikoaren, Musikaren eta Dramatizazioaren proposamen didaktikoak aurkezten ditu eta horietan alderdi komunak nabarmentzen dira. Horretarako, egileek edukiak modu integratuan garatzen dituzte, adierazpen-modu desberdinen eta irudikapen artistikoaren artean lotura estuak aurrez ikusten dituen ikuspuntuarekin.

1.000 ale argitaratu ziren.

- Gaztelania. Idatzizko adierazpena. Pedro Jimeno Capilla.

Edukia: bildumaren 3. zenbakian ikasleek idatzitako testuetan agertzen diren urritasunen eta akatsen analisi zehatza egiten du eta idatzizko adierazpena hobetzen laguntzeko ariketen sorta anitza proposatzen da. Bertan ortografiatik paragrafomota desberdinetara lantzen da, zuzentasun gramatikaletik, puntuaziotik eta testuen koherentziatik pasa ondoren.

1.200 ale argitaratu ziren.

3.7.2.11. Bestelakoak

CREENA

- Ikasleak entzuteko urritasun larriekin Haur eta Lehen Hezkuntzan. Nieves Alemán Gómez; Juliana Ardanaz Aicua; Dolores Muruzabal.

Edukia: entzuteko urritasuna definitzen du, halako urritasuna duen ikaslearen ebaluazioa nola egin behar den eta halako ikasleekin ikastetxearen jarduerak zehaz-

ten ditu. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak ebaluatzeko eta jarraitzeko, baita horien datuak biltzeko ere adibideak eta zenbait eranskin eskaintzen ditu.

1.000 ale argitaratu ziren.

Legeria

- Nafarroako Foru Komunitatean aplikatu daitezkeen hezkuntza-legeriaren bilduma. Javier Marcotegui Ros.

Edukia: Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzen diren hezkuntza-legeen bilduma du. Hezkuntza-araudi orokorra duen kapitulua izateaz gain, irakaskuntzei, ikastetxeei, ikasleei, ebaluazioari, langileei, euskarari, unibertsitateari eta bestelako gaiei buruzko araudia aurkezten du. Gainera, arauen aurkibidea eta orriaren oinean oharrak agertzen dira.

1.000 ale argitaratu ziren.

Ikasgela Aholkularia

- “Petilla de Aragón, un enclave navarro para conocer e investigar” V. diziplina arteko lehiaketa. Hezkuntza Berriztapenaren eta Curriculum Garapenaren Saila.

Edukia: Santiago Ramón y Cajal jaunaren irudiari buruz Aragoiko Petillako Udalak egindako lehiaketaren oinarriak ditu.

1.500 ale argitaratu ziren.

- Ikasgela Aholkularia. Hezkuntza eta Etengabeko Prestakuntzaren Saila.

Edukia: Ikasgela Aholkulariari eta prestakuntza-ikastaroei buruz informazio guztia duen goitibeherakoa da. Helduen irakaskuntzara bideratuta dago.

1.000 ale argitaratu ziren.

0-3 bilduma

- Araudia eta edukiak. Hezkuntza Saila.

Edukia: Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua du eta irakasten duten ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak xedatzen ditu, baita hezkuntza-edukiak ere.

700 ale argitaratu ziren.

Beste zenbait

- Herri Ikastetxeen Antolamendurako eta Funtzionamendurako Argibideak. Antolamendu Akademikoaren Saila.

Edukia: 2006/2007 ikasturtean herri-ikastetxeen antolamendua eta funtzionamendua arautuko duten argibideak onartzen, 687/2006 Ebazpena du.

1.100 ale argitaratu ziren.

- Nafarroan Hezkuntza Estatistika. Informazioa Kudeatzeko Bulegoa.
Edukia: 2005-2006 ikasturteko hezkuntza-estatistika aurkezten du.
100 ale argitaratu ziren.
- Oinarrizko gaitasunak. Hezkuntza Berriztapenaren eta Curriculum Garapenaren Saila.
Edukia: curriculum berriek Europako oinarrizko zortzi gaitasunak bete behar dituztela irakasleei berri ematea.
Gaztelaniaz 5.400 ale eta euskaraz 2.300 ale argitaratu ziren.
- Kanpoko ebaluazioa. Ikuskapen Teknikoaren eta Zerbitzuko Zerbitzua.
Edukia: irakurketa-gaitasunaren, idatzizko testuen ekoizpenen eta matematikaren kanpoko ebaluazioak izango dituen ezaugarriak aurkezten ditu triptikoak. Hori maiatzean egingo da Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 5. mailako ikasleekin.
Gaztelaniaz 2.500 ale eta euskaraz 1.000 ale argitaratu ziren.
- 3tik 12 urtera jokabide arduratsuak garatzea. M.^a Asunción Fernández; José Luís Idoate Iribarren; M.^a Carmen Izal.
Edukia: jokabide arduratsuei buruz haurrei kontseiluak eskaintzen dizkie eta gurasoei erantzukizunean hezteko jarraibideak ematen dizkie. 3tik 12 urtera bitartean umeen eboluzio-alderdiak lantzen ditu eta gurasoentzat nahiz seme-alabentzat galdeketak aurkezten ditu.
1.500 ale argitaratu ziren.
- KAMISHIBAI. Zenbait egile
Edukia: lau titulu egin dira: Momotaro; Elefantito tiene hambre; Rapónchigo eta Gigante con Aspas.
1.200 ale argitaratu ziren.
- Hezkuntza Sailaren Hobekuntza Planekin Kartelak-web egutegiak. Hezkuntza Berriztapenaren eta Curriculum Garapenaren Saila.
Edukia: Hezkuntza Sailaren Hobekuntza Planekin WEB orri nagusia aurkezten du.
2007ko egutegia sartuta dago.
Gaztelaniaz 500 ale eta euskaraz 500 ale argitaratu ziren.
- Zifrak, datuak eta informazioa. 2005-2006 ikasturtea. Eskola eta Lanbide Irakas-kuntzen Zuzendaritza Orokorra.
Edukia: karpetan batean CD-ROM-a aurkitzen zen 2004-2005 ikasturteko informazioarekin, datuekin eta zifrekin.
100 ale argitaratu ziren.
- Pertsona helduen hezkuntza. Ez da inoiz ikasteko berandu. Hezkuntza eta Eten-gabeko Prestakuntzaren Saila.
Edukia: goitibeherakoa da eta helduentzat prestakuntza-eskaintzaren informazio guztia du.
1.000 ale argitaratu ziren.

- Hizkuntzak ikasiz. Erregimen Bereziko Irakaskuntzen Saila.
Edukia: hizkuntzak ikasteko programen eskaintza eta horiek ikas daitezkeen ikastetxei eta ziurtagiriei buruzko informazioa aurkezten du.
650 ale argitaratu ziren.
- Irakaskuntza artistikoak. Erregimen Bereziko Irakaskuntzen Saila.
Edukia: goitibeherakoa da eta Nafarroan egin daitezkeen irakaskuntza artistikoei (Musika eta Dantza) buruz informazioa du.
650 ale argitaratu ziren.
- Haur Eskolak. Eskola Antolaketaren eta Berriztapenaren Zerbitzua.
Edukia: Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeen izenak eta helbideak eskaintzen ditu, berriz Hezkuntza Sailetik dirulaguntza jasotzen badute edo Hezkuntza Sailak berak finantzatzen baditu. Halaber, Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuaren mendeak agertzen dira.
650 ale argitaratu ziren.

3.7.2.12. Inprimatze-prozesuan dauden argitalpenak

- Bizikidetasunaren Kanpaina. Hemen giro ona dago.
Edukia: goitibeherakoa, egutegi-kartela, orrialdeak markatzekoa eta web orria du.

Euskaraz curriculum berriak argitaratzea:

- Curriculum. Haur Hezkuntza. 2. zikloa;
- Curriculum. Lehen Hezkuntza. 1. liburukia;
- Curriculum. Lehen Hezkuntza. 2. liburukia: hizkuntzen tratamendu integratua;
- Curriculum. Bigarren Hezkuntza. 1. liburukia;
- Curriculum. Bigarren Hezkuntza. 2. liburukia: hizkuntzen tratamendu integratua;
- Curriculum. Bigarren Hezkuntza. 3. liburukia: Aukerako jakintzagaiak.
- “Gogoratzeko” irakurketa sustatzeko kanpaina.
- Irakasleak Prestatzeko Plana. 2007-2008 ikasturtea.
- Ikasturtea hasteko funtzionamendu-argibideak
- Jokabide Arduratsuak Garatzeko liburuxka berriz argitaratzea.

3.8. Nafarroako Arartekoaren jarduerak hezkuntzaren arloan

3.8.1. Alderdi orokorrak

2006. urteko irailean Erakunde honek hurrengo txostena argitaratu zuen: “Espetxe berrian aurrez ikusi beharko liratekeen gizarte-, osasun- eta hezkuntza-neurriak”.

3.8.2. 2006. urtean kexak izan dituzten arloak balioztatzea

Hezkuntzari dagokionez, kexak jaso dituzten arlo nagusiak hurrengoak izan dira:

- Eskola-eraikinak (segurtasuna, kontserbazioa eta eraikuntza)
- Eskola-garraioa eta jangela
- Ikasleak hezkuntza-behar bereziekin
- Ikastetxeetara sartzea (irizpideak aplikatzea)
- Hezkuntza-plangintza (eskaerarekiko egokitzapena)
- Ikastetxeen funtzionamendua (bizikidetasuna, etab.)
- Bekak eta laguntzak
- 0-3 urteko zikloa
- Unibertsitate-irakaskuntzak
- Tituluak homologatzea
- Eskola-egutegia

Hezkuntzaren atalari dagokionez, kexa gehienak gurasoek formulatu dituzte, baina, kasu batzuetan, sistemaren profesionalak berak izan dira.

Erakundearen txostena aztertuz gero, sarrienak honakoekin zerikusia dute: instalazio urriak edo desegokiak, hezkuntza-plangintza, ikasle etorkinen kontzentrazioa, hezkuntza-ereduak, sartzeko arauak, eskola-garraioa, hezkuntza berezia, etab. Halaber, bizikidetasuna puskatzearen eta diziplina-erregimena aplikatzearen ondorioz sortutako kexak agertzen ari dira.

Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen arretari dagokionez, hezkuntzaren eskubidea behar bezala asetzeko eta estaltzeko zerbitzu osagarrien beharrak (lana-ingurunetik garraio-bitartekoak, jarduerak egiteko laguntza pertsonalak...) kexa gehienak sortzen ditu.

Aurreko urteetako jarraibide berdinak erabiliz, ikasleen gurasoek, kasu batzuetan elkarrekin bidez, eta irakasleek barrutien eta eraikinen urritasunen eta egoeren ondo-

rioz **ikastetxe batzuen baldintzak** azaldu dituzte. Halaber, urritasuna eta egokitze-ko eta hobetzeko beharrak adierazten dira. Ildo horri jarraiki, adibidez, "Andrés Muñoz Garde" Hezkuntza Bereziko Ikastetxearen, "Vázquez de Mella" Herri Ikastetxearen (biak Iruñan) eta Tuterako "Elvira España" Herri Ikastetxearen egoerak aztertu dira.

Kasuistika hori estuki erlazionatuta dago behar berrien aurrean egin behar den hezkuntza-plangintzarekin. Horrekin batera "D" ereduarekin zerikusia zuten erabakiekiko keak izan dira. Horiek Mendillorriko "Elormi" Herri Ikastetxean (kendu egin da) edo Iruñako Rochapeako auzoan izan dira. Azkenekoan eredu horretan plazak ez ziren nahikoak.

Esolan agertutako bizikidetasun-arazoei edo –zailtasunei dagokienez, Era-kundera iristen hasi dira.

Hala, tratatu diren ustezkoak kontuan hartuta, honakoak azpimarratu behar dira: ikasle edo irakasle zehatzak behin eta berri portaera desegokia izatearen ondorioz sortutakoak, alde batera utzi gabe eskola-eremura eta ikastetxeetara zabaltzen diren egoerak, gurasoak banatzen edo dibortziatzen ari diren prozesuetan bisita-erregimenak ez direnean betetzen.

2005. urteko txostenean **3 urtetik beherako umeei arreta eskaintzen dieten Nafarroako Ikastetxeetan** Administrazioaren ikuskapen-jarduerarekin zerikusia zuten keak aipatzen ziren, bereziki, ikastetxeek bete behar dituzten gutxieneko betekizunei eta kontrolari buruzkoak.

Horietan Hezkuntzaren Lege Organiko berriaren aurrean araudiaren behin-behinekotasuna aipatzen zen. Ondorioz, araudi-hutsaren egoera izan ostean, arau ezak azpimarratzen ziren.

Horren inguruan honakoa aipatzen dugu: gurasoek beren seme-alaben hezkuntzarikiko duten ahalmena (eskubidea-betekizuna) alde batera utzi gabe, hiru urtetik beherakoaren hezkuntzarako eskubidea legeriak bermatutako eskubidea da. Hala, hezkuntza-etapa boluntarioa izatea gurasoentzako aukera bezala hartu behar da eta herri-agintarientzat betebehar edo derrigorrezko alderdi bezala; nahikoa plazak eskaini behar dituzte eta baldintzen bidez zikloaren hezkuntza-izaera bermatzeko gutxieneko baldintzak bete behar dira, kasu guztietan eta ikastetxe-mota guztietan.

Estimazio hori Ararteko guztiek (estatukoak eta autonomiak) izandako ikuspuntuarekin bat zetorren Santiagon 2004. urtean egindako XIX. Koordinazio Jardunaldietan.

Horregatik, Erakundearen iritziz hezkuntza-sistema une erabakigarrian zegoen Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza-zikloa egokiro arautzeko eta zikloaren hezkuntza-izaera bermatzeko gutxieneko baldintzak zehazteko.

Arlo honetan kexa esangarrienak honakoak dira:

- Unibertsitate-irakaskuntzarako bekari dagokionez umezurtz-pentsio gabe uzteko balioztapena egitea.
- Ikasleak hezkuntza-behar bereziekin: interpretearen beharra.
- Adin txikikoaren hezkuntza-behar bereziak.
- Lanbide Heziketaren goi-mailan sartzeko emandako informazioa.

3.8.3. Izapidetutako kexak

Onartutako ebazpenak

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saila

- 05/191 espedientea, unibertsitate-irakaskuntzarako bekari dagokionez umezurtz-pentsioa jasotzez uzteko balioztapena (iradokizuna).
- 05/305 espedientea, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei Haur Hezkuntzan adin-muga jartzeari buruzkoa (gomendioa).
- 06/107 espedientea, tokiz aldatzeko lehiaketaren prozedurarik gabe maisu-maistrak berriz kokatzeari buruzkoa (gomendioa).
- 06/198 espedientea, adin txikikoaren hezkuntza-behar bereziak (iradokizuna).
- 06/242 espedientea, Lanbide Heziketaren Goi Mailara iristeko eskuratutako informazioari buruzkoa (gomendioa).

Ebazpenak erantzuteke:

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saila

- 05/360 espedientea, hezkuntza-behar bereziak (interpretearen beharra) dituzten ikasleei buruzkoa (iradokizuna).

27. taula

2006. urtean hezkuntza eta irakaskuntzari buruz Nafarroako Arartekoaren aurrean hasitako kexak, izapidetzen eta amaitutakoak

Jakintzagaiak	Hasitakoak	Izapidetzen	Amaitutakoak
2006. urtea	27	0	27
2005. urtea	43	0	43

Iturria: Nafarroako Arartekoaren Bulegoa

3.9. Kontuetako Ganberaren Txostena

2006/2007 ikasturtean Nafarroan hezkuntzarekin zerikusia duten alderdiak aipatuz ez da txostenik egin.

4

Berariazko zerbitzuak eta hainbat programa

4.1. Bekak. Nafarroako Gobernuaren Deialdi Orokorra. Testu-liburuak eskuratzeko laguntzak. Hainbat deialdi.

4.1.1. Nafarroako Gobernuaren laguntza osagarri orokorrak

28. taula

Bekak. Nafarroako Gobernuaren Deialdi Orokorra Erdi-mailako eta Goi-mailako ikasketetarako, 1999/2000 ikasturteik 2006/2007 ikasturtera

Ikasturtea	1999/00	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07 ⁽¹⁾
1. ESKAERA KOPURUA GUZTIRA (Ikasle kop.)	7.853	5.878	6.004	5.638	5.446
2. EMANDAKO BEKA KOPURUA GUZTIRA	5.169	3.884	3.619	3.402	3.364
2.1 Unibertsitateaz kanpoko mailatan	999	1.449	1.412	1.279	1.261
2.2 Unibertsitate-mailatan	4.170	2.435	2.267	2.123	2.103
3. EMANDAKO ZENBATEKOA GUZTIRA	6.146.988	5.721.374	5.501.468	5.279.392	5.347.848
3.1 Unibertsitateaz kanpoko mailatan	763.293	1.107.143	1.109.467	1.015.887	1.014.339
3.2 Unibertsitate-mailatan	5.383.695	4.614.231	4.392.001	4.263.505	4.333.509
4. ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA GUZTIRA	3.441.239	3.345.667	3.119.070	2.840.831	3.062.052
4.1 Unibertsitateaz kanpoko mailatan	326.496	526.737	541.827	447.966	496.773
4.2 Unibertsitate-mailatan	3.114.743	2.818.931	2.577.243	2.392.865	2.565.280
5. BEKA KOPURUA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO MAILATAN					
5.1 IKASKETAK					
Beka kopurua	232	246	182	143	137
Zenbatekoa	76.452	66.688	48.948	37.383	37.589
5.2 GARRAIOA					
Beka kopurua	501	1.030	991	915	902
Zenbatekoa	184.876	444.915	445.982	417.210	406.095
5.3 JANGELA					
Beka kopurua	45	7	17	17	19
Zenbatekoa	13.858	2.722	5.834	5.996	6.659
5.4 EGOITZA					
Beka kopurua	346	348	362	317	313
Zenbatekoa	485.426	581.716	600.544	551.670	556.661
5.5 APARTEKOA					
Beka kopurua	33	15	11	5	10
Zenbatekoa	21.768	11.102	8.159.30	3.628	7.335
UNIBERTSITATEAZ KANPOKO ZENBATEKOAK GUZTIRA (*)	782.380	1.107.143	1.109.467	1.015.887	1.014.339
6. BEKA KOPURUA UNIBERTSITATE MAILATAN KONTZEPTUKA					
6.1 IKASKETAK					
Beka kopurua	3.430	2.404	2.221	2.093	2.046
Zenbatekoa	3.333.741	2.686.024	2.530.330	2.420.921	2.436.610
6.2 GARRAIOA					
Beka kopurua	861	375	399	340	403
Zenbatekoa	273.625	115.212	137.714	135.917	170.794
6.3 JANGELA					
Beka kopurua	190	145	186	186	217
Zenbatekoa	56.433	38.962	49.606	52.375	66.743
6.4 EGOITZA					
Beka kopurua	1.603	1.169	1.095	1.036	993
Zenbatekoa	2.132.583	1.763.596	1.663.692	1.639.530	1.642.181

¹⁴¹ 2007ko uztailleko datuak. Deialdia amaitzeko.

Ikasturtea	1999/00	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07 ¹⁴¹
6.5 APARTEKOA					
Beka kopurua	76	11	10	13	14
Zenbatekoa	73.583	10.436	10.670	14.762	17.181
UNIBERTSITATEKO ZENBATEKOAK GUZTIRA¹⁴²	5.869.966	4.614.231	4.392.001	4.263.505	4.333.509

Iturria: Zentroen eta Ikasketa Laguntzen Zerbitzua.

4.1.2. Testu-liburuak eskuratzeko laguntzak

29. taula

Nafarroako Gobernuaren laguntzak "testu-liburuak eskuratzeko", 2000/2001 ikasturtetik 2006/2007 ikasturtera

	Aurkeztutako eskaera kopurua			Emandako zenbatekoak			Ukatutako laguntza kopurua			Emandako zenbatekoak		
	Lehen Hezkuntza	DBH	Guztira	Lehen Hezkuntza	DBH	Guztira	Lehen Hezkuntza	DBH	Guztira	Lehen Hezkuntza	DBH	Guztira
2000/01	5.085	2.982	8.067	4.824	2.734	7.558	261	248	509	195.088	113.988	309.076
2003/04	9.953	5.508	15.461	5.583	3.121	8.704	4.370	2.387	6.757	291.315	238.251	529.566
2004/05	9.859	5.165	15.024	6.453	3.421	9.874	3.406	1.744	5.150	331.612	253.707	585.319
2005/06	10.440	5.152	15.592	6.640	3.409	10.049	3800	1.743	5.543	324.060	259.449	583.509
2006/07	11.092	5.260	16.352	8.183	3.978	12.161	2.909	1.282	4.191	423.518	315.476	738.994

Iturria: Zentroen eta Ikasketa Laguntzen Zerbitzua.

4.1.3. Hezkuntza Berezirako berariazko laguntzak

30. taula

Nafarroako Gobernuaren bekak eta laguntzak Hezkuntza Berezirako, 2006/2007 ikasturtea

	Eskaerak	Emandakoak	Emandakoak guztira (eurotan)
Haur Hezkuntza	35	9	7.016
Lehen Hezkuntza	80	27	28.405
Hezkuntza Berezia	73	58	52.498
DBH	25	9	10.586
Guztira	213	103	98.504

Iturria: Aniztasunaren, Kulturanzitasunaren eta Inmigrazioaren Arreta Zerbitzua. CREENA

¹⁴²Zenbateko hauek 3. atalean emandako guztizko zenbatekoa gainditzen dute. Izan ere, zenbait kasuetan kontzeptuen baturari % 65, % 80 edo % 70eko portzentajeak aplikatzen zaizkio, ikasketa-mailaren eta kasuan kasuko deialdiaren arabera -2001/02 ikasturtetik aurrekoak-, emandako zenbatekoa kalkulatzeko.

31. taula

Irakaskuntza-laguntza indibidualak zentzumen-urritasunak edo mugitzeko urritasunak dituzten ikasleentzat edo etxean luzaroan egon behar duten ikasleentzat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko mailatan, 2006/2007 ikasturtea

	Eskaerak	Emandakoak	Zenbatekoa (eurotan)
CFGS	7	7	10.326
Batxilergoa	3	3	7.637
Guztira	10	10	17.963

Iturria: Aniztasunaren, Kulturaniztasunaren eta Inmigrazioaren Arreta Zerbitzua. CREENA

4.1.4. Estatuko laguntzak

32. taula

Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren (MEC) laguntzak

Liburuak eskuratzeko

Ikasturtea	1999/2000	2003/2004	2004/2005	2005/2006	2006/2007
Eskaera kopurua	4.767	13.307	11.955	11.673	13.063
Emandako laguntza kopurua	2.994	5.775	6.303	7.508	8.367
Laguntzaren zenbatekoa	215.932	450.450	526.300	606.995	753.030
Haur Hezkuntza					
Eskaera kopurua	640	803	864	455	-
Emandako laguntza kopurua	479	581	436	178	-
Laguntzaren zenbatekoa	109.390	133.165	99.961	40.798	-
Hezkuntza Premia Bereziak					
Eskaera kopurua	120	255	237	249	313
Emandako laguntza kopurua	98	167	169	200	222
Laguntzaren zenbatekoa	58.515	173.158	186.170	222.833	91
Gizarte-bermea					
Eskaera kopurua	238	(*)	(*)	(*)	(*)
Emandako laguntza kopurua	238	-	-	-	-
Laguntzaren zenbatekoa	71.520	-	-	-	-

(*)2000/01 ikasturteetik aurrera ez da laguntza hauen deialdirik egin.

Iturria: Zentroen eta Ikasketa Laguntzen Zerbitzua.

33. taula

MECen beken eta ikasketa-laguntzen bilakaera, deialdien arabera

Ikasturtea	Guztira ¹⁴³		MEC	
	Bekadunak	Zenbatekoa (milaka eurotan)	Bekadunak	Zenbatekoa (milaka eurotan)
1996/97	887.242	595.945	793.878	559.001
1997/98 ¹⁴⁴	816.449	537.091	724.599	499.592

¹⁴³ MECen bekek eta laguntzak bame hartzeaz gain, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandakoak barne hartu dira.; izan ere, bekek emateko transferentzia bere eskumenekoa da.

¹⁴⁴ 1997-98, 1998-99 eta 1999-00 ikasturteetan, bekadunen kopurua eta beken zenbatekoa gutxitu egin da, eta murrizketa horretan zeresan handia du DBHko 2. zikloaren ezarpenari esker derrigorrezko hezkuntzak (doakoa) lortu duen zabalkundeak.

Ikasturtea	Guztira ¹⁴³		MEC	
	Bekadunak	Zenbatekoa (milaka eurotan)	Bekadunak	Zenbatekoa (milaka eurotan)
1998/99	655.525	555.290	566.967	517.210
1999/00 ¹⁴⁵	550.695	546.807	469.542	513.146
2000/01	546.408	627.333	468.449	593.321
2001/02	554.065	663.344	480.799	629.944
2002/03	515.543	662.342	443.001	626.334
2003/04	522.549	677.411	436.598	637.654
2004/05 ¹⁴⁶	522.965	753.446	428.161	711.531
2005/06 ¹⁴⁷	516.178	768.002	413.566	720.244
2006/07 ¹⁴⁸⁻¹⁴⁹	540.616	855.990	433.206	803.385

Iturria: Datos y cifras. 2006/2007 ikasturtea. M.E.C.D.

Oharrak:

- Serietan ez dira kontabilizatu testu-liburuak eta ikasmateriala eskuratzeko laguntzak, ez eta hiru seme-alabako familia ugarien prezio-salbuespenei dagozkienak ere.
- Azken ikasturteetako datuetan kontuan hartu behar da Haur Hezkuntzako bigarren zikloa dohainik eskaintzearekin batera eta, ondorioz, hezkuntza-kontzertuak ugaritzearekin batera, bekadun kopuruak behera egin duela.

4.2. Aniztasunaren arreta

Aniztasunak behar berriak sortzen ditu une oro eta behar horiei erantzun behar die hezkuntzak, horrela lortuko baita irakaskuntza eta ikaskuntza bat etortzea eta behar den bezala gauzatzea.

Ekitateak kalitatea lortzeko aukera-berdintasuna ziurtatu behar du, eta, hortik abiatuta eta hezkuntzaz baliatuta, nor bere nortasunaren garapen osoa gauzatzea lortu behar da.

Normalkuntzaren eta inklusioaren printzipioetan oinarrituta garatu behar da ikasle-en irakatsi eta ikasteko prozesua, eta ikasle orok behar den bezalako arreta jasotzeko duen eskubidea bermatuta egongo da une oro.

¹⁴⁵ Ikasturte honetatik aurrera, bekadunen kopuruen eta beken zenbatekoen barruan unibertsitate-mugikortasunerako beka barne hartu dira.

¹⁴⁶ Ez dira kontuan hartu MECek Perstige-ren hondamendiak eragindako ikasleei emandako laguntzak, ohiz kanpokoak direlako.

¹⁴⁷ Behin-behineko kopuruak.

¹⁴⁸ Kopuru zenbatetsiak.

¹⁴⁹ Ez dira kontuan hartu MECek ingelesezko ikastaroak egiteko eman dituen laguntzak. Ikasturte honetan hasi dira estreinakoz eta 85 milioi euro eta 53.125 bekadun aurreikusi dira.

Aniztasunaren Arretarako Plana (AAP). Ikastetxe guztietan lantzeko orientabideak

Funtsezkoa da ikastetxeko zuzendaritza-taldea eta irakasle-taldeak Aniztasunaren Arretarako Plan bat lantzeko garrantziaz eta beharraz ohartzea. Plan horri jarraituz egingo da aniztasunaren arretarako hezkuntza-neurrien urteko plangintza, betiere Urteko Programaketa Orokorraren barruan.

Kalitatezko hezkuntza jasotzeko gizabanako orok duen eskubide indibiduala ziurtatzeko, Aniztasunaren Arretarako Planean ikasle guztien beharretarako erantzun egoikiak barne hartzen dira, eta arreta berezia jartzen da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen gainean.

Aniztasunaren, Orientazioaren eta Kulturaz Aniztasunaren Zerbitzuak ondorengo edukia eskaintzen du Aniztasunaren Arretarako Planean: ikastetxeetan AAP lantzeko orientabide orokorrak, hainbat lerro orokor eta ikastetxe bakoitzean lantzeko irizpideak eta prozedura.

Agiri honetan eta bere eranskinetan irakasle-taldeek dagokien hausnarketa egitean eta erabakiak hartzeko orduan ezin ahaztu dituzten funtsezko alderdiak adierazi dira.

Ikastetxeei, kasuan kasuko zuzendaritza-taldeak lagunduta, Aniztasunaren Arretarako Plan bat lantzen lagundu nahi zaie eta, bide batez, ikastetxe guztietarako komuna izango den oinarritzko eskema bat ziurtatu nahi da. Xede horrekin, AAP lantzeko prozedurarekin hasteko, azpiprozesuan garatu behar diren jarduerak adierazi dira:

- hezkuntza-erkidegoa sentsibilizatzea
- premiak antzematea eta baloratzea
- aniztasunaren arretarako neurriak proposatzea
- beharrezko baliabideak
- hartutako neurriak ezartzea
- ebaluazioa eta jarraipena

Eta jarduera bakoitzaren barruan, ondorengoak bereizi dira:

- helburuak
- jarduerak
- arduradunak
- kudeaketarako baliabideak
- prozedurak eta egutegia

Planean barne hartutako ikasleak

Eskuarki, Aniztasunaren Arretarako Planean (AAP) ikasle guztien eta bakoitzaren berezitasunak eta aniztasuna hartu behar dira kontuan.

AAPk irakatsi eta ikasteko prozesuetan, arrazoi bat edo beste dela medio, modu egokian aurreratzeko zailtasunak dituzten ikasleei arreta berezia eman behar die. Izan ere, jarduerarik arruntenak errazteko arreta eta baliabideak beharko dira ikasle horiei laguntzeko.

Ikasle horien artean, berariazko hezkuntza-premiak, aldi baterako premiak edo behin betiko premiak dituzten ikasleak bereizi nahi dira:

- Sozioekonomikoki eta soziokulturalki baztertuta dauden ikasleak.
- Ikasle atzerritarrak, hizkuntza ezagutzen ez dutenak edo oinarritzko ezagupenei dagokienez curriculum-desorekak dituztenak.
- Adimen-gaitasun handiko ikasleak.
- Ezintasun fisiko, psikiko edo sentsozialekin erlazionatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak edo nortasunaren edo jokabidearen asaldura larri orokorrak dituztenak.

Aniztasunaren Arretarako Plana

- Ikastetxeari plangintza egiten eta laguntzak antolatzen lagunduko dion bitartekoa da. Erabilgarri dituen baliabide pertsonalak antolatzeko eta lehenesteko balio du, neurri bereziak behar dituzten ikasleen taldeko edota banakako premietara egokitzeko.
- Irizpideak bateratzen laguntzen du, gela barruan eta kanpoan aniztasunari hezkuntza-erantzun egokia emateko. Zentzu horretan, modu koordinatuan egingo dira orientazioa, tutoretza-lana, irakasle tutoreen lana, arloko irakasleen lana eta irakasle arrunten eta espezializatuen laguntzak.
- Ikasle etorkinak eta gizartean zein kulturalki baztertuta dauden ikasleak hartzeko eta integratzeko neurriak eta jarraibideak ezartzen ditu; horretarako, irakasle-taldeak batera adostutako Harrera Plan bat landuko da.
- Plangintza egokia egin behar da eta ikasturtean sor daitezkeen premia berriei erantzuteko neurriak sartzeko irekia izan behar du. Horrela, antolamendu-neurri malguak ezarri behar dira, irakasle arrunten eta espezialisten lanaren bat etortzea lortzeko.
- Ikasturte bakoitzaren amaieran Aniztasunaren Arretaren eraginkortasuna eza-gutzeko barne-ebaluazio egiten laguntzen du. Era berean, hurrengo ikasturtera begira hobetu beharreko alderdiak identifikatzen ditu.

Hezkuntza Premia Bereziak

Minusbaliotasunekin erlazionatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea

Ezintasun psikiko, sentsozial edo mugimenduzkoekin erlazionatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea egiteko prozedura martxan jartzeko or-

duan, ezin da ahaztu hartzen diren erabakiekin ikasleen ezaugarrietara hobekien egokitzen den hezkuntza-erantzuna ematea bilatu behar dela, ahalik eta testuingururik egokienean.

Oro har, ikasleen HPBei ikastetxeen baliabide arruntekin erantzun ahal zaienean (eskola-orientatzailea, pedagogia terapeutikoko irakasleak, audizio eta mintzamenerako irakasleak eta, hala badagokio, zaintzailea, fisioterapeuta eta CREENAren kanpoko laguntzak), ikasle horiek ikastetxe arruntetan eskolatzeko proposatzen da.

Ikasleen HPBei erantzuteko etengabeko arreta indibidualizatua behar denean eta ikastetxe arrunt batek eskaini ezin dituen jarduera bereziak behar direnean, ikaslea horiek Hezkuntza Bereziko Zentro batean eskolatzeko proposatzen da. Era berean, Hezkuntza Bereziko Zentro batean eskolatzeko dira adinagatik dagokien curriculum ofizialeko arloetan muturreko egokitzapen esanguratsuak behar dituzten ikasleak. Kasu horretan, ikastetxe arrunt batean integratzea eta ikasketetan aurrera egitea ezinezkoa dela pentsatzen da.

Eskolatzeko modalitateak.Antolamendu-aukerak

Bi dira eskolatzeko modalitateak eta curriculuma egokitze beharraren eta ikasleak behar duen laguntza motaren eta mailaren arabera bereizten dira:

1. Ikastetxe arruntan eskolatzeko modalitatea/Antolamendu-aukerak:
 - Lehenetsunezko ikastetxea
 - Garapen-asaldura orokorrak dituzten ikasleentzako berariazko ikasgelak
 - Haur eta gazteen eguneko ospitalearen programa terapeutiko hezitzailea
 - Berariazko Curriculumaren Unitateak (BCU)
 - Lanbide Hastapen Bereziko Programak ikastetxe arruntan (PIPE)
2. Hezkuntza Bereziko Ikastetxean eskolatzeko modalitatea/Antolamendu-aukerak:
 - Hezkuntza bereziko gela landa-zonan
 - Eskolatzeko konbinatuko programa: hezkuntza bereziko ikastetxea/ikastetxe arrunta
 - Lanbide Hastapen Bereziko Programak hezkuntza bereziko ikastetxean (PIPE)
 - Helduarora iristeko prestakuntza-programak (T.V.A)

Eskolatzeko modalitatea zehazteko irizpideak

Hezkuntza-premia bereziak antzemateko eta baloratzeko ardurak ikastetxeetako orientatzaileei dagokie. Orientatzaileen lana izango da kasu bakoitzean eskolatzeko modalitatea erabakitzea eta ikasle bakoitzarentzat egokien diren jarduera-planak lantzea.

Ebaluazio psikopedagogikoa egin behar da premiak antzemateko eta ikasleek behar dituzten egokitzapenak, baldintzak eta laguntzak aurreikusi –batzuk beste ba-

tzuk baino espezializatuagoak eta ohikoagoak-. Hori guztia kontuan hartuta erabakitzen dira eskolatzeko modalitatea eta antolamendu-aukerak.

2007ko maiatzaren 4tik 6ra CONCAPAko lehendakari autonomikoek Palman egindako topaguneetan parte hartu da.

Urriaren 6an eta 7an CONCAPAko Eskola Kontseilari Autonomikoek Kordoban egindako bilkuran parte hartu da.

CONCAPAK 2006ko abenduaren 2an antolatutako "Familia irakaskuntzaren askatasunaren eta kalitatearen alde" izeneko Sarietan parte hartu du. Miguel Sanz Sesma jauna, Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta Pedro Núñez Morgades jauna, Madrilgo erkidegoko Adingabeen Defendatzaile ohia, saritu ziren.

3. Beste entitate batzuk antolatutako jarduerak.

- Familiaren Zuzendaritza Nagusiarekin batera lan egin da "Familia, telebista eta beste pantaila batzuk" kanpainaren aurkezpenean.
- Batzordeko hainbat kidek "Familia Ugariaren I. Biltzarrean" parte hartu zuten Iruñean, joan den irailaren 30ean.
- Familia Pastoralaren elizbarrutiko ordezkariak antolatutako "Bizitzaren eta familiaren alde" jardunaldietan parte hartu da.
- "Komunikazio-foroa, Hezkuntza eta Hiritartasuna" jardunaldietan parte hartu da.
- Urtarrilaren 25ean "Nafarroak duintasuna nahi du Erliñoaren irakasgairako" lelopean, Mikael aretoko mahainguruan parte hartu da.
- 2006ko urriaren 27an Katolikoak eta bizitza publikoa Nafarroan izeneko I. jardunaldietara bertaratu eta parte hartu da.

- Red Madre ILP delakoan parte hartu da.
- Nafarroak askatasunean hezten du plataforman parte hartu da.

4.6.1.2. HERRIKOA erakundeak garatutako prestakuntza-jarduerak, 2006/2007 ikasturtea

HERRIKOAK, Nafarroako Guraso Elkarten Federazioak, 144 Apyma elkartu ditu (2007ko ekaina).

Herrikoaren prestakuntza-programa da Federazioaren jarduerarik garrantzitsuenak. Prestakuntza hezkuntza-esparrura bideratzen da eta ikastetxeetan eta bestelako organoen aurrean parte hartzeko bideak erraztu nahi ditu.

Eskolako ingurunean eta familia-ingurunean hezkuntzaren inguruan sortzen diren zailtasunak konpontzeko nahitaezkoa da hezkuntza-agintaritzek esku hartzea, eta, nahitaezkoa da, era berean, erakundeek eskura dituzten baliabideak erabiltzea elkarbizitzarako hezkuntza eta prestakuntza ahalbidetzeko eta hezkuntza-erkidegoa osatzen duten talde guztien arteko elkar-ulertzea lortzeko.

HERRIKOA federazioaren ustez, prestakuntza hainbat ikuspegitatik aztertzea komeni da. Alde batetik, Federazioaren beraren prestatzaileen prestakuntza-beharrei erantzutea lortu behar da, berdinkideen artean prestakuntza igortzen dela ziurtatzeko eta, beste batetik, aiten eta amen prestakuntza ziurtatu behar da oro har.

Ondorengo jarduerak garatu dira:

- Apyma elkarteetara eta, oro har, aitagana eta amengana zuzendutako prestakuntza-plan bat landu da eta ikasturte osoan garatu da.
- Jardunaldiak eta topaguneak antolatu, garatu eta ebaluatu dira; ondorioak ere landu dira.
- CEAPAK eta beste hainbat entitatek antolatutako prestakuntza-programetan parte hartu da.
- “Guraso Eskolak” sustatzeko jarduerak egin dira.
- Nafarroako Eskola Kontseiluan aztertutako gaiak prestatu eta aztertu dira.
- Eskaerei erantzuteko profesionalen datu-base bat osatu da.

Herrikoa federazioak ondoren adierazitako ikastaroak eta lantegiak eskaini dizkie elkartei:

- I. Familia-hezkuntza:
 - Familian ikasten
 - Komunikazio-gaitasunak I eta II
 - Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako aiten eta amen sexu-heziketa.

2. Parte-hartzea:
 - Eskola-kontseiluetan.
 - Batzordeen funtzionamenduan.
3. Hainbat gai buruzko informazioa emateko hitzaldiak:
 - Eskola-jardunaldia: abantailak eta onartzeko gutxieneko baldintzak.
4. Ikastaroak. Ondorengoak egin dira:
 - 14 ikastaro, 80 orduko iraupenarekin. 20 lagunek parte hartu dute batez beste; gehienez ere 45 lagun bertaratu dira, baina salbuespena da.
 - Eskola-jardunaldiari buruz informazioa emateko 5 hitzaldi. Saio bakoitzak 1,30 orduko iraupena izan du eta 100 lagunek parte hartu dute batez beste.
 - Parte-hartzeari buruzko 5 lantegi. Saio bakoitzak 1,30 orduko iraupena izan du eta 20 lagunek parte hartu dute batez beste.
 - “Eskola Jangelei” buruzko jardunaldi bat. APYMA elkarteek eskola-jangela-
ren kudeaketa euren gain hartu dutela kontuan hartuta, ikastetxeetako APY-
MAk betetzen duten funtzioari buruzko hausnarketa egin beharko litzate-
ke. Izan ere, beharrezkoa duten informazioa eta aipatu zerbitzua hobetzeko
egin daitezkeen proposamenak bideratzeko modu bat aurkitu behar da. 15
ikastetxeetako APYMA elkarteetan egin da: El Lago de Mendillorri-Iruñea,
Gareseko IP, Luís Fuentes ip-Lakuntza, Vazquez de Mella IP-Iruñea, Santaca-
ra IP, Iturrama IP, Eultza-Barañain IP, Murchante IP, Altsasu BHI, Olite IP, Zan-
gotzako IP, Altsasuko IP, Corellako IP, Cásedako IP, BHI Irubide.
 - Ikasleekin saioak: “Sexu-heziketa”. I. saioa Zangotzako Luís Gil IPn egin da
eta beste bi Mendillorriko El Lago IPn.
5. HERRIKOAK ondorengo proposamenak garatzen ditu jarduerak hobetzeko:
 - Egokitzen jotzen duen lekuetan prestakuntza-lanetan parte hartzen edota
prestakuntza-lanak egiten jarraitzen du.
 - Aiten eta amen prestakuntzarekin jarraitzen du. Federazioak zerbitzu baten an-
tzera eskaintzen du eta ikastaroetan parte hartzen duten pertsonen egindako
balorazioa altua izan da. Ikastaroetara bertaratutakoek adierazi dutenez, se-
me-alabak hezteko orientazioak behar dituzte eta Herrikoa Federazioak egi-
ten duen eskaintzak euren beharrak asetzen dituela azpimarratu dute.
 - Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan Federazioaren prestakuntza-programei
buruzko informazioa orientazio-zentroetara edo Orientazio Departamen-
tura bidali beharko litzatekeela uste dute, izan ere, ikastetxe horietan fun-
tsezkoa da irakasleak nahastea eta aitak eta amak parte hartzera animatze-
ko lan egitea. Aitzitik, oso zaila edo ia ezinezkoa izango da aurrera egitea.
6. CEAPAK (Guraso Elkarten Estatuko Konfederazioa) antolatutako jardueretan
izandako parte-hartzea.

CEAPAK antolatuta, prestatzaileen eskutik prestakuntza-ikastaroak jaso dira, ondo-
ren adierazitako gaien buruz:

- Elkarbizitza (MECekin batera).
- Komunikazio- eta ebaluazio-trebetasunak.
- Sexu-heziketa aita eta amentzako eta ebaluazioa.
- Hezkidetzak.
- Taldeekin lan egiteko modua.
- Negoziaketa eta lidergoa.
- Jendaurrean hitz egiteko gaitasunak.
- Udako ikastaroak Ciudad Realen “Psikologia, Familia eta Hezkuntza. Familiaren eta ikasleen funtzioa hezkuntza-prozesuetan” izenburupean.

Ondorengoa izan da lortutako balorazioa:

- Ezinbestekoa prestakuntza eskaintzen jarraitzeko.
- Bertan eskaintzen den prestakuntza homologatzeko aukera.
- Prestakuntzaren balorazioa:
- Xede den jendearentzako oso egokia.
- Funtsezko informazio- eta prestakuntza-zerbitzua.
- APYMA elkarteetara hurbiltzeko bide garrantzitsua.
- Ezinbestekoa da etengabeko birziklapena errealitatera hobeto egokitzeko.

Valle Ballano, CEAPako zuzendaritza-batzordeko kide automatiko izendatu dute.

Pedro Rascón CAPAko lehendakariorde izendatu dute eta bere gain hartu ditu Zuzendaritza Batzorde Nazionalako kide izateagatik dagozkion zeregin guztiak. Estatuko Eskola Kontseiluko kide izendatu dute eta, ondorioz, Batzorde Iraunkorren kide izatera pasa da. Era berean, Estatuko Elkarbizitzaren Behategiko kide da. Nafarroako Eskola Kontseiluko Educared Batzorde Exekutiboaren (Telefónica fundazioa) eta Batzorde Iraunkorren kidea izan da, Nafarroako Batzorde Autonomikoko kidea eta FAD erakundeak (Drogamendetasunaren aurkako Fundazioa) antolatzen duen “Ekintza Gorena” sari-ko Batzorde Tekniko Nazionalako kidea izan da, edo Familia eta Lehen Arretaren Nafarroako Sozietateak, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekin batera, antolatzen duen “Carta abierta a un fumador” literatur lehiaketako Epaimahaiko kidea. Santanderreko Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitateak antolatutako “Competencias básicas, convivencia y participación democrática” ikastaroan parte hartu du.

7. Beste federazio batzuk antolatutako jardueretan izandako parte-hartzea.

Ondorengoetan parte hartu da:

- Jardunaldiak GUADALAJARAN: “Parte-hartzea”.
- Errioxa, LARDERO: “Eskola-elkarbizitza”.
- Asturias, Oviedo, “Elkarbizitza eta Parte-hartzea” jardunaldiak.

8. Beste entitate batzuk antolatutako jardueretan izandako parte-hartzea:

Ondorengoetan parte hartu da:

- Ikastetxeetako elkarbultzari buruzko jardunaldia, CCOOk antolatua.
- Ikastetxeetan osasuna sustatzeko esperientziak trukatzeko jardunaldia eta “Haurren babes. Familiaren zeregina” izeneko agiriaren aurkezpena, CA-Pek antolatuta.
- “Kultur arteko bitartekaritzari” buruzko Espainiako Gurutze Gorriaren ikastaroa.
- “Migrazioen alderdi ezkutua: estresarak eta babes-faktoreak” gaiaren inguruko AUKEREN mintegia.
- Drogamendetasunari buruzko Foru Plana, “Txostenen eta mintegien analisi eta proposamen berriak” izenburupean eta “Nerabezaroa, drogak eta gizartea: ikuspegi desberdinak”.
- Iruñeko udaletxearen prestakuntza-programa.
- CRANA, Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroa. “Kontratazio iraunkorari” buruzko jardunaldiak eta “Elikadura arduratsuen Gida Nafarroan” izeneko gidaren aurkezpena.
- 0-3 urteko plataforma.
- Nafarroako Eskola Kontseilua. “Gurasoak: hezkuntza-erantzukizuna eta eskolan dagokien parte-hartzea”.
- Balearretan “Eskola Kontseilu Autonomikoen eta Estatalen XVII. topagunea”.
- HEGOAK elkarteak “Teknologia berriak drogen kontsumoaren fenomenoan esku hartzeko” jardunaldietan parte hartu da.
- Gobernu Ordezkaritzan, “Eskola Elkarbizitza eta Segurtasuna hobetzeko Gida Plana”.

4.6.1.2.3. SORTZEN GURASOAK federazioak antolatutako jarduerak, 2006/2007 ikasturtea

Sortzen Gurasoak federazioaren barruan 34 Guraso Elkarte daude inskribatuta.

2006/2007 ikasturtean aipatu federazioak hiru prestakuntza-hitzaldi antolatu ditu, Iruñeko udalak emandako diru-laguntzaz baliatuta. Hitzaldi horietatik bi aurreko ikasturtean drogamenpekotasunari buruz antolatutakoen jarraipena dira. Iazko hitzaldiaren gai nagusia familia-esparruko prebentzioa izan zen eta, aurtengoena, berriz, arazoa antzemateko moduak eta hasierako kontsumoak izan dira. Gerardo Castillo jauna izan da txostengilea eta bi hitzalditan, bi orduko iraupenekoak, prestakuntza eman die bertaratutako guztiei.

Hirugarren hitzaldia teknologia berriek (telefono mugikorrek edo Internet) haurrentzako dakartzaten abantaileri eta arriskuei buruzkoa izan da. Piluka Labaienek eman du hitzaldia.

Aurreko hitzaldiak Iruñako udalak lagundu zituen diruz.

Ikasturtean hainbat hezkuntza-sektore lantzen ari diren euskal curriculuma ezagutzera emateko saioak antolatu dira. Proposamen horrekin ikastetxe publikoetako aiten, amen eta irakasleen ekarpenak lortu nahi dira. Gainera, 16 urteko ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzean ezagutu beharreko kontzeptuak, eduki beharreko gaitasunak, lortu beharreko prozedurak eta ulertu eta barneratu beharreko balioak eta jokabideak ezagutzeko balio behar du.

Adierazitako guztiaz gain, Nafarroako ikastetxe publikoetan informazioa emateko hitzaldiak antolatu dira Sortzen Gurasoak federazioak eskaintzen dituen materialak eta proiektu pedagogikoak ezagutzera emateko.

4.6.2. Ikasle Elkarteak

68. taula

Ikasle Elkarteei eta Federazioei emandako laguntzak, 2000tik 2007ra

Elkartea	Ikastetxea	2000		2004		2005		2006		2007	
		Zenbatekoa	Elkarte-kop.	Zenbatekoa	Elkarte-kop.	Zenbatekoa	Elkarte-kop.	Zenbatekoa	Elkarte-kop.	Zenbatekoa	Elkarte-kop.
Labeaga Ik.	Labeada Ikastola	424	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Santiago 93	C. N ^o 5 ^a del Puy	708	608	483	63	219	59	329	48	763	79
Luis Amigó	C. Luis Amigó	697	260	614	266	364	290	562	306	1.287	398
Salesianos	I.P. Salesiano	1.094	986	1.160	876	608	870	959	870	1.662	702
Los Fueros	IES San Adrián	498	259	772	285	384	285	598	285	-	-
Aleyju	Hijas de Jesús	419	97	-	-	-	-	-	-	-	-
Alusfron	IESO Azagra	-	-	67	209	314	205	480	195	1.043	195
Sta. Luisa	Col. Sta. Luisa de Marillac	-	-	-	-	-	-	-	-	629	200
Alibas	IES Basoko	-	-	-	-	361	566	446	475	761	356

Iturria: Eskola Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua.

4.7. Hezkuntza Departamentuak eta Osasun Departamentuak, Industriarenak, Herrizaingo Departamentuak, Gizarte Ongizatearenak, Ingurumen Departamentuak, Mankomunitateak eta hainbat erakundek, batera koordinatutako hainbat hezkuntza-programa

4.7.1. Nafarroako Gobernua

Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Gobernua osatzen duten beste Departamentuekin, Udaletxeekin, Mankomunitateekin eta hezkuntza-programetan lan egiten duten bestelako erakundeekin lankidetzan jarduteko bideak errazten ditu. Betera, irakasleak eta ikasleak prestatzeko erabilgarri dauden baliabideen optimizazioa bilatzen da eta ikasmaterialak sortzeko lan egiten da.

Adierazitako guztia sustatzeko, Hezkuntza Departamentuak hainbat lankidetzahitzarmen sinatu ditu Elkarbizitzarako Hezkuntzarekin eta Balioen Hezkuntzarekin erlazionatutako gaien inguruan ardura edo interesa duten erakunde eta antolamenduekin. Ildo horretan, aipatzekoak dira: bakerako eta garapenerako hezkuntza, bi sexuen aukera-berdintasunerako hezkuntza, ingurumen-hezkuntza, osasunerako eta sexu-heziketarako hezkuntza, bide-hezkuntza eta kontsumitzailearen hezkuntza.

Osasun Departamentua

Drogamenpekotasunen aurkako Foru Plana

- Eskola-esparrura zuzendutako prestakuntza-programetan laguntzea bilatzen da.
- Drogamenpekotasunen aurkako Foru Planean barne hartutako hezkuntza-jarduera guztien gaineko aholkularitza eskaini da eta materialak sustatzeko, berri-kusteko eta zabaltzeko laguntza eman da.
- Hezkuntza-erkidegora zuzendutako drogamenpekotasuna prebenitzeko berariatzko programak sustatu dira.

Osasun Publikoaren Institutua

- Ikastetxeetan osasunari buruz garatzen diren esku-hartzeen koordinazioa egin da.
- REEPS (Osasuna Sustatzen duten Eskolen Europako Sarea) Sarean barne hartutako 21 osasun-proiekturen garapenerako aholkularitza eman da eta horien jarraipena egin da.
- REEPS sarean sartzeko laguntza eman zaie ikastetxeei.
- Berariatzko programak eta jarduerak sustatu, lagundu eta zabaldu dira, besteak beste: HIESaren programa, Tabakoa, Heziketa afektibo-sexuala, Ohitura osasungarriak sustatzea eta Prebentzioko programak hezkuntza-erkidegora zuzentzea.
- Batzorde autonomikoaren REEPSko batzorde teknikoaren arteko koordinazioa egin da.
- Hezkuntza-izaera duten lan-proposamenetan eta jardueretan aholkularitza eman da.
- Ikastetxeetara zuzendutako materialak lantzeko eta zabaltzeko orduan lagundu da.

Industria, Merkataritza eta Lan Departamentua

Energiaren atala

- Hezkuntza eta Ingurumen-erkidegoa Garatzeko batzorde teknikoan parte hartu da, bai eta Administrazioaren Energiaren Batzordean ere.
- Prestakuntza-planetan eta eskola-ingurunea eragiten duten jarduera guztietan laguntza eman da.

Kontsumoaren atala

- “Kontsumorako hezkuntzari” buruzko berrikuntza-proiektuen –eta dagozkien memorien- ebaluazioa eta jarraipena egin da.
- Ikastetxeetan esku hartzeko programen koordinazioa eta aholkularitza egin da eta programak sustatu dira.
- Kontsumo arduraturako hezkuntzari buruzko materialak sustatu eta zabaldu dira.
- Kontsumo Zerbitzuak proposatzen dituen jarduera guztietan lagundu da.
- Kontsumo arduratsuaren foroan parte hartzeaz gain, bertan proposatutako materialak lantzeko orduan lagundu da: Kontsumo arduratsuaren gida, Elikagaien kontsumorako gida...

Berdintasunerako Institutua

- Genero-indarkeriaren aurkako Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Bartzordean parte hartu da.
- Eskola-erkidegoan esku hartzeko programetan lagundu da eta irakasle eta familientzako prestakuntza-plan bat lantzen lagundu da.
- Genero-indarkeria prebenitzeko berariazko programak laguntzeko aholkularitza emateaz gain, programa horiek sustatu eta zabaldu dira, Berdintasunerako balioen eta elkarbizitza baketsuaren hezkuntzak ezartzen duen testuinguru orokorrean.
- Berdintasunerako Nafarroako Institutuak hezkuntza-esparrura begira proposatu diren jarduera guztiak sustatu dira.
- Gizonen eta emakumeen aukera-berdintasunerako Behategiaren “Hezkidetza” lan-taldean parte hartu da.

Ingurumen Departamentua*Ingurumen Hezkuntzarako Nafarroako Estrategia*

- Ingurumen Hezkuntzarako Nafarroako Estrategian eta horren ondoriozko jarduera guztietan parte hartu da.
- Ingurumen Departamentuarekin eta Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroarekin, CRANA, hezkuntza-izaerarekin antolatutako ingurumen-ekimen guztietan parte hartu da.
- SOUSTENERGY Europako Proiektua sustatu da eta bertan parte hartu da, ikastetxeetan energia aurrezteko xedearekin.
- “Naturarekin bat egiteko ikasgelak” programaren koordinazioa egin da (17 ikaslekin parte hartzen dute).
- Eskola-ingurunera zuzendutako programak eta materialak ezagutzera eman dira.

Herrizaingo Departamentua

- Bide-segurtasunerako batzorde teknikoan parte hartu da.
- Eskola-erkidegoan esku hartzeko materialak eta kanpainak garatzen eta hedatzen lagundu da.
- Bide-hezkuntza curriculumean barne hartzeko jardueretan aholkularitza eman da.
- Irakasleei bide-hezkuntzari buruzko prestakuntza emateko planaren koordinazioa egin da.

Gizarte Ongizatea. Familiaren Zuzendaritza Orokorra eta Kirola eta Gazteria Institutua

- Ikastetxeetan ikastetxeetara eta familietara zuzendutako programak sustatu eta ezagutzera eman dira.

Nafarroako Auzitegi Nagusia

- Derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeetan “Educando en Justicia” izeneko programaren sustapena eta hedapena egin da.
- Aipatu programa garatu duten ikastetxeetan programaren ebaluazioa egiten lagundu da.

4.7.2. Toki-entitateen programak

4.7.2.1. Iruñeko udala

Guraso Elkarteetarako prestakuntza-programa

2006/2007 ikasturtean 45 elkartek eta federaziok parte hartu zuten (Iruñean 46 daude). Guztira 4.205 pertsonak parte hartu zuten, informazio eta prestakuntzako 193 saiotan eta guztira 313 ordu eman ziren. 60 txostengilek parte hartu zuten halaber.

Aurreko ikasturteko datuekin alderatuta, oraingoan saio gehiago programatu dira eta parte-hartzaile eta elkarte gehiagok parte hartu dute.

1996/1997 ikasturtean ekin zitzaion ekimen honi, Hiri Hezitzaileen Gutunaren zortzigarren puntua betez, Joan den ikasturteko txostenean (4.8. epigrafea), programaren xedearen eta programa zuzentzen den jendearen deskribapen zehatza egin da.

Ondorengo epigrafe orokorretan bereiz daitezke eskainitako hitzaldien eta mintegien gai nagusiak:

Hiri hezitzailea: kultura desberdinak, aisialdia, aisia

3 saio (% 0,83)

Komunikazioa: guraso-seme/alaba komunikazioa, familiako elkarrizketa	62 saio (% 28,33)
Bizitza osasungarria: elikadura, drogamenpekotasunak, sexu-heziketa	54 saio (% 22,50)
Menu irekia: bigarren hezkuntzara sartzea, haur-oldakortasuna, familia gaur egun	62 saio (% 27,50)
Familien parte-hartzea: guraso-eskola	1 saio (% 6,67)
Zeharkakoak: kirola, kulturartekotasuna	6 saio (% 7,50)
Familia: guraso-seme/alaba harremanak, eredu berriak	5 saio (% 6,67)

Hainbat programa

“Ezagutu dezagun Iruña”

22. edizioa egin da oraingoan.

Programaren helburu orokorra ikasleek gure hiria hobeto ezagutzea da. Horretarako, hiriaren historia eta hiri-garapena aztertu eta ikasi dira.

Ikastetxe publiko eta itunduetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzako da.

24 ikastetxe publikok eta 16 pribatuk parte hartu dute eta, guztira 1.778 ikasle izan dira.

Mendiko diapositiben emanaldiak

Iruñeko ikasleei beste herrialde batzuetako bizitza nolakoa den erakutsi nahi zaie. 2006/2007 ikasturtean 49 emanaldi egin dira. Horietatik 9 Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eskaini dira eta 40, berriz, Lehen Hezkuntzakoetan. Guztira 1.975 ikasleek parte hartu dute.

Eskola-bisitak Gayarre Antzokira

Helburu nagusia ikasleengan ikusmina eragitea da eta etorkizuneko ikusle potentzialak osatzea. Iritzi kritikoa eta estetikoak sustatzea bilatzen da. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleentzat pentsatuta dago.

1.042 ikasleek eta 27 ikastetxek parte hartu dute.

Antzeki-tailerrak

Haurrek gauzak adierazteko eta irudikatzeko dituzten baliabideak eta bitartekoak aberastea bilatzen da: ahotsa, mozorroa, keinu dramatiko bat, gorputzaren mugimendua. Analisia egiteko eta ondoren erabiltzeko tresnak ematen zaizkie haurrei, komunikatzeko eta besteekin erlazionatzeko moduak erraztuz. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat dago pentsatuta.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 5. mailetako 88 taldek parte hartu dute. Guztira 2.000 haur izan dira, 26 ikastetxe desberdinetakoak.

Irakurketa sustatzea

Programa honekin irakurzaletasuna sustatu nahi da, irakurtzeko jarrera positiboak motibatu nahi dira, eta literatur sorkuntzaren munduan lan egiten duten pertsonekin harremanak sustatu eta ahozko narrazioari dagokion garrantzia eman.

Ondorengo edukiak eskaintzen ditu programak:

- Irakasleentzako mintegiak: 2006/2007 ikasturtean 14 ikastetxek parte hartu dute.
- Ahozko narrazioko saioak: 98 "Ipuinkontalari" saio egin dira eta Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 4.065 ikaslek parte hartu dute.
- Haur-literaturako sortzaileekin topaguneak. Guztira 91 topagune antolatu dira eta hainbat ikastetxe eta institututako 4.204 ikaslek parte hartu dute

4.7.2.2. Iruñea/Montejurra eskualdeko Mankomunitatearen programak

Ikastetxeetan materialak sustatu eta zabaldu dira.

Ingurumenarekiko errespetua sustatzeko kanpainetan parte hartu da eta eskola-proiektuen ebaluazioa egin da.

Familiaren esparruan irakurketa sustatzeko prestakuntza-jarduerak

2006-2007 ikasturtean FIRA taldeak¹⁶¹ 3 Irakurle Klub gidatu ditu, "Aitek eta amek haur eta gazteen bildumatan argitaratutako liburuak irakurri behar dituzte" izenburupean, honako leku hauetan: Lizarrako liburutegi publikoa, Lizarrako udalak irakurketa sustatzeko garatzen duen hezkuntza-programaren bitartez (6 parte-hartzaile); Burlatako Haur Liburutegia, Burlatako udalak irakurketa sustatzeko garatzen duen hezkuntza-programaren bitartez (14 parte-hartzaile); eta Iruñeko Larraona ikastetxea, ikastetxeko Apymak antolatutako (10 parte-hartzaile). Orotara, 35 ordu eskaini dira.

Talde honek, bestalde, 3 hitzaldi eman ditu –Lizarran, San Adriáñen eta Iruñan-. 46 ama eta aita bertaratu dira eta haur eta gazteentzako argitaratutako liburuen kalitate-balioak –gaia, hizkuntza edo egitura- azpimarratu dira hitzaldi horietan. Horrela, beste irakurle batzuei gomendioak egiteko orduan oinarri sendoak edukitzea lortzen da.

¹⁶¹ FIRA taldeak (Aisialdi eta Arte Ekimenen Sustapena) hezkuntza-programak eta kultur programak lantzen ditu. Bereziki lantzen ditu irakurketaren sustapena eta ingurumen-hezkuntza.

Lizarrako Liburutegiko Irakurle Clubeko parte-hartzaileek eta Haur Eskolako aitek eta amek irakurketei buruzko iruzkinak argitaratu dituzte *Estella lee - Lizarrak irakurtzen du* izeneko aldizkariaren 4. zenbakian. Aipatu aldizkariaren 2.500 kopia egiten dira eta dohain banatzen dira Lizarrako ikastetxeetako ikasleen familien artean. Bestalde, maiatzaren 23an Lacarren antolatutako lan-jardunaldi batean parte hartu da: Lizarra, Iruñea eta San Adriáneko CAPetako irakasleek osatutako Irakurle Clubak elkartu ziren eta Pablo Prestifilippo ilustratzaile argentinar bikainarekin hitz egiteko aukera eduki zuten. Prestifilippo ilustratzaile argentinarrarena da, besteak beste, *“Calcetines salvajes”* (Ed. kalandraka, 2006).

4.7.2.3. Hainbat programa:

Trafikoko Zuzendaritza Probintziala

- Eskola-erkidegoan esku hartzeko materialak eta kanpainak lantzen eta zabaltzen lagundu da.
- Irakasleei bide-hezkuntzako prestakuntza eskaintzeko planaren koordinazioa egin da.

GKEen koordinazioa Nafarroan:

- Eskola-ingurunera zuzendutako ekimenetan aholkularitza eman da.
- Garapenerako, Bakerako eta Elkartasunerako Hezkuntzarako dokumentazio funts bakar baten beharra azpimarratu da.
- Nafarroako GKEek proposatutako programak eta materialak zabaltzen dira.
- Irakasleen prestakuntza-planean lagundu eta parte hartu da.
- Eskola-erkidegoan berariazko hezkuntza-programak sustatu dira.

4.8. Familiari Laguntzeko Plana

Nafarroako Gobernuak 2001eko maiatzaren 7an Familiari Laguntzeko Plana onartu zuen eta 2002ko martxoaren 12an eta apirilaren 11n Nafarroako Gobernuak bere babesa agertu zion aipatutako planari. Plan horren barruan eskola-adineko seme-alabak dituzten aitei eta amei laguntzeko ekintza ugari barne hartu ziren. 2001-2004 urteetarako (biak barne) ekintzak edo programak zituen bakarrik.

Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostenean, 2002/2003 ikasturteari buruzkoan, Planean eskola-adineko seme-alabak dituzten aitei eta amei laguntzeko barne hartutako ekintzen laburpen bat egin zen. Ondoren landutako txostenetan, 2003/2004, 2004/2005 eta 2005/2006 ikasturteetan Planaren baitan garatutako ekintzak barne hartu ziren, hain zuzen ere, Hezkuntza Departamentuaren eskutik garatutakoak.

2007ko maiatzaren 2an egin zen Familiari Laguntzeko Planaren Jarraipenerako Zuzendaritza Batzordearen hirugarren bilera. Bileran hartan “Un marco estratégico pa-

ra el fortalecimiento de la sociedad. Continuidad del Plan de Apoyo a la Familia” izeneko agiria aurkeztu zen.

2006an bi helburu garrantzitsu bete dira. Alde batetik, Familiari Laguntzeko Planaren lehenengo fasea amaitu da eta, bestetik, bigarrenari ekin zaio. Bigarren fasea datozen lau urteetan garatuko da. Era berean, Gizarte Zailtasunak dituzten Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Planaren ebaluazioari ekin zaio.

Familiari Laguntzeko Planaren bigarren ezarpen-fasean barne hartu diren jarduera guztien oinarrian hartu diren printzipioak, Planaren beraren filosofia osatzen dutenak, ondorengoak dira:

- Unibertsaltasuna: diseinatutako neurrietan Nafarroako familia guztiak barne hartu behar dira.
- Parte-hartzea: politikak diseinatzeko orduan familiak izan behar du subjektu aktiboa.
- Laguntza: jarduera publikoekin familien garapena hobetzea lortu behar da.
- Erantzukizun publikoa: botere publikoek Konstituzioan adierazitako guztiari erantzun behar diote.
- Baliabideen integrazioa, izan ere, familia-politika egoki bat lortuko da baldin eta baliabide guztiak kontuan hartzen badira.
- Administrazioen arteko koordinazioa eta bat etortzea: Gobernuko departamentuek erabilgarri dituzten baliabideak eta gainerako gizarte-entitateek dituztenak ahalik eta hobekien eta modu eraginkorrean bat etortzeko eta eraginkorrak izateko.
- Deszentralizazioa eta deskontzentrazioa familiari laguntzeko baliabideak erabiltzeko orduan.
- Jarraikortasuna eta egonkortasuna: arau orokorrak eta jarduerak epe luzera diseinatzen dira.

Familiari Laguntzeko Planaren bigarren ezarpen-fasearekin ondorengo helburu orokorrak bete nahi dira:

- Nafarroako gizartea familia-erakundeak funtsezko nukleo bezala eta garapen iraunkorra lortzeko funtsezko giltza bezala duen garrantziaz kontzientziaztea.
- Familia-nukleo egonkorak indartzeko eta sendotzeko laguntza eman behar da.
- Familien autonomia garatu behar da, eta gizarte-garapenaren benetako protagonista bihurtu behar dira familiak.

Planaren 2. fasea garatzeko bost ardatz daude. Ardatz horien arabera prestatu dira Jarduera Lerroak. Horrela, beraz, ondorengo irizpideak hartu dira oinarrian egungo eta etorkizuneko jarduerak prestatzeko:

- Informazioa: familien bilakaera ezagutu.
- Komunikazioa: familiak funtsezko nukleo bezala eta garapen pertsonala eta soziala lortzeko berme bezala duen garrantzia behar den bezala ezagutzera ematea.

- Prestakuntza: edozein sistemaren lehenetasun bat bezala.
- Bikaintasuna: familiaren beharrak kontuan hartzen direla ziurtatzeko eta Familiari Laguntzeko Planak egituratzeko ardatz gisa.

Datozen urteetara begira jarraituko diren Jarduera Lerroek ondorengo alderdiak zaindu beharko dituzte:

- Planaren programazioak irauten duen bitartean arrakasta lortu duten esku-hartzeak indartzea.
- Aurreko planak kanpoan utzi zituen Nafarroako familien beharrei erantzutea.
- Nafarroako Gobernuak, baliabide zuzenak zein zeharkakoak erabiliz, Nafarroako familiei laguntzeko kudeatzen dituen beste plan eta programa batzuekin bat egitea eta indartzea.
- Familia nafarren eskariei eta itxaropenei aurre hartzea. Horrela lortuko da Foru Administrazioaren irudi bikaina erakustea eta arazo zehatzetarako konponbide zehatzak lortzea.

Ondorengo programak barne hartu dira bigarren fasean:

- Familia gizartean.
- Familia eta arloko politikak.
- Lan-bizitzaren eta familiaren bat etortzea.
- Berariazko beharrak dituzten familientzako laguntza.
- Familiei guraso-rolak eta –funtzioak betetzeko laguntzak.
- Familiaren Zuzendaritza Orokorren kudeaketaren kalitate-kultura berri baten ezarpena.

Programa bakoitzak helburu eta neurri zehatzak barne hartzen ditu. Guztien artean, ondorengo taulan Hezkuntza Departamentuarekin zuzenean erlazioan dudenak adierazi dira.

69. taula

Familiari Laguntzeko Planaren 2. ezarpen-faseko programak, helburuak eta neurriak, Hezkuntza Departamentuari dagozkionak

Programak	Helburuak	Neurriak
	Nafarroako Gobernuaren Departamentu guztiek garatzen dituzten arloko politiketan familiaren ikuspegia ¹ zaintzen dela ziurtatzea	Arloko familia-politiken jarraipen egokia egiteko protokolo adostu bat lantzea
Familia eta arloko politikak (2. programa)	Familiengana zuzendutako ekintzetan erakundeen arteko koordinazioa eta parte-hartzea sustatzea	Familiari Laguntzeko Planeko jarraipenerako zuzendaritza-batzordea eta batzorde teknikoak sortzea eta lanean jartzea Familia-esparruko ekimenak modu bateratuan eta adostuan garatzeko koordinazio-sistema bat arbitratzea Familiari laguntzeko programak, baliabideak eta Zerbitzuak ezagutzera emateko agiriak lantzea

Programak	Helburuak	Neurriak
Familia eta arloko politikak (2. programa)	Familiei laguntzeko erabakitzen diren neurrien eraginkortasuna eta egokitasuna ebaluatzeko egokia den lanerako sistema bat edukitzea	Familiair laguntzeko proposatzen diren neurrien eraginkortasuna eta egokitasuna ebaluatzeko adierazle-sistema egokia diseinatzea Departamentuetatik esparnura egiten diren ekarpen nagusiak barne hartzen dituen urteko txosten bat lantzea Nafarroako Gobernuaren estatistika-programetan Familiari Laguntzeko Planari buruzko eta Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren prestazioei buruzko informazio garrantzitsua barne hartzea
	Behar berrien aurrean jarduera-lerro berriak formulatzea	Batzorde teknikoaren barruan lan-talde malguak antolatzea. Sektore jakin batzuetako behar berriak aztertuko eta ebaluatuko dituzte eta beharretarako erantzun bat aurkitu
Lan-bizitzaren eta familiaren bat etortzea (3. programa)	Lan-bizitzaren eta familiaren bat etortzea erraztuko duten baliabideak eta estrategiak jartzea	Prestazio teknikoak 0-3 urteko haurrentzako haur-eskolak
Berariazko beharrak dituzten familien laguntza (4. programa)	Familia-disfuntzioari erantzuteko eta berau prebenitzeko Zerbitzuak eta baliabideak edukitzea	Familia Orientazioko Zerbitzua inplementatzea
Familiei guraso-rolak eta -funtzioak garatzen laguntzea (5. programa)	Aitatasun eta amatasun arduratsua eskaintzeko estrategiak eta baliabideak jartzea	Familientzako prestakuntza-jardunaldiak eta -ekintzak garatzea Departamentuen artean lankidetzan jarduteko bideak eta beste erakunde batzuekin prestakuntza-ekintzak garatzeko bideak ezartzea Prestakuntza sustatzeko materialak lantzea

Iurria: Nafarroako Gobernuaren Familiari Laguntzeko Plana, 2007-2010 garapen-fasea Nafarroako Gobernu, Familiaren Zuzendaritza Orokorra, 2007ko otsaila.

Programa bakoitzarekin batera, gauzatzearekin eta emaitzekin lotutako adierazleak adierazten dira.

Planak atzeralikatzeko mekanismoak ditu behar den bezala inplementatzen dela ziurtatzeko. Era berean, Planak Nafarroako Gobernuko hainbat departamentu zeharka ukitzen dituela kontuan hartuta, Planaren jarraipenerako zuzendaritza-batzordeak eta batzorde teknikoak indartuko dira.

Planaren tarteko ebaluazioa egingo da, 2007-2010 aldirako.

Hainbat jarduera

2006ko irailaren 22an Gizarte Ongizatea, Kirola eta Gazteria Departamentuak, Radio Televisión Española erakunde publikoak, Irrati eta Telebistaren Institutu Ofizialaren bitartez, eta Nafarroako Ikus Entzunezkoen Batzordeak, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten. 2005ean ekindako prozesuarekin jarraitu behar zela uste zuten, hain zuzen ere, "Aprende a ver la televisión" kanpainarekin hasitako prozesuarekin. Prozesu horretan, "Familia, telebista eta hainbat pantaila" programaren barruan familiengana zuzendutako prestakuntza-jarduerak garatzeko hiru erakundeek kontuan hartuko zituzten baldintzak adierazi ziren.

Hitzarmenean aurreikusitako jardueren bitartez aitei, amei eta familiarekin erlazionatutako elkarte, erakunde zein taldeei prestakuntza-saioa eskaini nahi zaizkie, telebista eta beste hainbat pantaila erabiltzen erakusteko edo trebatzeko.

Programaren aurrekontua 11.000 eurokoa izan da. Familien artean banatzeko prestakuntza-materialak landu dira.

2006ko irailetik abendura garatu da programa. Hasiera batean 30 tailer aurreikusi ziren baina, azkenean, 25 eskaini ziren. Parte-hartze maila onargarria lortu zen oro har eta bertaratu ziren pertsonen parte-hartzea azpimarratu behar da. Horrek garbi uzten du gaia oso interesgarria dela familien ikuspegitik.

APYMA elkarteetako lehendakariak edota kideek egin zituzten eskaerak, nagusiki.

70. taula

“Familia, telebista eta hainbat pantaila” programan parte hartu duten ikastetxeak

Ikastetxea	Data	Parte-hartzaileak
Los Sauces ikastetxea. Barañain	06-10-16	27
Francisco Arbeloa ikastetxea. Azagra	06-10-16	22
Elorri ikastetxea. Mendillorri (Iruñea)	06-10-17	33
San Cernin ikastetxea. Iruñea	06-10-17	17
Lesakako Ikastola ikastetxe publikoa	06-10-23	25
Luis Gil ikastetxea. Zangotza	06-10-24	40
La Presentación ikastetxea. Atarrabia	06-10-24	22
Larraona ikastetxea. Iruñea	06-10-30	41
Luís Amigó ikastetxea. Mutiloabeiti	06-10-30	10
Virgen Blanca ikastetxea. Uharte	06-11-6	35
Ikastola Iñigo Aritza. Altsasu	06-11-6	15
Lorenzo Goikoa. Atarrabia	06-11-7	24
San Ignacio. Iruñea	06-11-7	36
Maristas ikastetxea. Iruñea	06-11-20	26
Peralta ikastetxe publikoa	06-11-20	22
Hilarión Eslava ikastetxea. Burlata	06-11-21	24
San Miguel ikastetxe publikoa. Orkoien	06-11-27	24
Hijas de Jesús ikastetxea	06-11-18	40
Guztira		483

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Familiari Laguntzako Plana. 2007-2010 garapen-fasea Nafarroako Gobernuak, Familiaren Zuzendaritza Orokorra. 2007ko otsaila.

4.9. Nafarroako Eskola Kontseiluak Ikastetxeko Eskola Kontseiluekin egindako jardunaldiak

VIII. jardunaldia, 2007ko apirilaren 21 ekoa. Gaia: “Gurasoak: hezkuntza-erantzukizuna eta eskolan dagokien parte-hartzea”.

199 lagun bertaratu ziren. Horietatik % 66,66 ikastetxe publikoetakoak eta % 33,34 ikastetxe pribatuetakoak.

Ondorengo programa garatu zen:

- 9:45. Inaugurazio ofiziala eta ongi etorria: Hezkuntza sailburua.
- 9:55. Jardunaldiaren eta txostenaren aurkezpena. Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria.
- 10:00 Txostena: **Francisco Javier Urrea Portillo**, Auzitegi Nagusiko eta Madrillgo adingabeen Epaitegiko Fiskalen Psikologoa, Gaia: “*Gurasoak: hezkuntzaren funtsezko maila*”.
- 11 h. 15' Elkarrizketa.
- 11 h. 45' Atsedena. Kafea.
- 12 h. 15' Mahaingurua: Gurasoak: “*Hezkuntza-erantzukizuna eta eskolan dagoen parte-hartzea*” Parte-hartzaileak:
- **Juan Manuel Fernández Martínez** jauna, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakaria.
- **Irene Labarta Calvo** andrea, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuko Orientazio Bulegoko aholkularia.
- **Isi Roldan Arróniz** andrea, eskola-orientatzailea.
- **Ana García Paniego** andrea, ama.
- 13 h 15' Elkarrizketa.
- 13 h. 45' Amaiera.

Jardunaldien edukiari buruzko erreferentzia

Bertaratuak jardunaldien ebaluazioa egin zuten eta ondorengo emaitzak lortu ziren:

71. taula

Nafarroako Eskola Kontseiluaren VIII. Jardunaldien ebaluazioaren emaitzak

	Ez du erantzun	Oso egokia	Egokia	Erdipurdikoa	Eskasa	Ez nahikoa
Epea	% 0,00	% 35,38	% 58,46	% 3,08	% 1,54	% 1,54
Diptikoa	% 2,31	% 23,08	% 69,23	% 4,62	% 0,00	% 0,77
Antolamendua	% 1,54	% 30,77	% 60,00	% 6,15	% 1,54	% 0,00
Gaia	% 2,31	% 69,23	% 26,92	% 1,54	% 0,00	% 0,00
Dokumentazioa	% 8,46	% 43,08	% 45,38	% 3,08	% 0,00	% 0,00
Txostengilea	% 1,54	% 83,85	% 13,08	% 0,77	% 0,00	% 0,77
Mahaingurua	% 10,00	% 27,69	% 50,77	% 11,54	% 0,00	% 0,00
Jardunaldiaren balorazio orokorra	% 4,62	% 62,31	% 31,54	% 1,54	% 0,00	% 0,00

Iturria: Bertan landua.

5

Giza baliabideak

5.1. Irakas-funtzio publikoa

5.1.1. Ikastetxe publikoetako irakasle-plantillaren bilakaera

Aurreko txostenetan Giza Baliabideen Zerbitzutik jasotako irakasleei buruzko datuak daude; irakasleen eta ez irakasten duten pertsona fisikoen lanaldiak barne hartzen dira bertan. Aipatu txostenean Nafarroako Hezkuntza Estatistikan argitaratutako datuen bilakaera erakusten da, eta ondorengo irizpideen arabera dira datuak:

- Datuek 2006ko abenduaren 31n ikastetxeak zuen egoerari buruzkoak dira.
- Pertsona fisikoak barne hartzen dira.
- Hain zuzen, “ikastetxeak eskaintzen dituen irakaskuntza ofizialetan eskola-ordutegiaren barruan zuzeneko irakaskuntza ematen duten langileak” kontabilizatu dira.
- Irakasle ibiltariak atxikita dauden ikastetxean bakarrik hartu dira kontuan.
- Irakaskuntza-mailen arabera irakasleen taulan hainbat pertsona daude eta atal batean barne hartu direnak ez dira atal gehiagotan barne hartu.

72. taula

Ikastetxe publikoetako irakasleen bilakaera irakaskuntza-mailen arabera, 1999/2000 ikasturtetik 2006/2007 ikasturtera¹⁶²

Eskaintzen den irakaskuntza-maila	1999/2000	2003/2004	2004/2005	2005/2006	2006/2007
Haur Hezkuntza bakarrik	561	670	680	686	
Lehen Hezkuntza bakarrik	1.412	1.647	1.701	1.796	
Haur eta Lehen Hezkuntza	419	513	539	576	
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bakarrik	871	960	975	893	
Lehen Hezkuntza eta DBH	76	61	43	55	
Batxilergoa bakarrik	180	179	111	177	
DBH eta Batxilergoa		950	914	877	
Lanbide Heziketa bakarrik	506	665	679	638	
DBH/Batxilergoa/LH	1.010	103	65	85	
Batxilergoa/LH	124				
Berariazko Hezkuntza Berezia	34	58	59	61	
Hainbat aukera (aurrekoetatik desberdinak diren mailen konbinazioak)	34	30	23	13	
Guztira	5.227	5.836	5.789	5.857	
Erregimen Bereziko Irakaskuntzak	231	264	313	325	
Helduen Irakaskuntza		87	98	91	
Guztira	5.458	6.187	6.200	6.273	

Iturria: Nafarroako Hezkuntza Estatistika, 1999-2000 ikasturtetik 2005/2006 ikasturtera. 2006/2007 ikasturteko datuak. Giza Baliabideen Zerbitzua.

¹⁶² Ez dira barne hartu Arte Eskoletako irakasleak (Erregimen Bereziko Irakaskuntzen atalean sartzen da) eta ez dira barne hartu Félix Urabeyen Pertsona helduentzako Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Institutuko langileak (Helduen Hezkuntzaren atalean sartzen da).

73. taula

Erregimen bereziko irakasleak, ikastetxe motaren arabera, 2006/2007 ikasturtea

Irakaskuntza eskaintzen duen ikastetxea:	I. Publikoak
Arte Eskolak	22
Musika Kontserbatorioak	52
Dantz Eskola	4
Hizkuntza Eskola Ofizialak	50
Guztira	128
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeetako irakasleak	47

Iturria: Nafarroako Hezkuntza Estatistika, 2006/2007 ikasturtea.

5.1.2. Irakasleen administrazio-kontratazioak (aldi baterakoak)

74. taula

Ikastetxe publikoetako irakasleen kontratazioaren bilakaera, 1999/2000 ikasturtetik 2006/2007 ikasturtera. Dagozkien taldeak

Taldea	1999/2000	2003/2004	2004/2005	2005/2006	2006/2007
Bigarren Hezkuntzako irakaslea	484	408	378	416	586
LHko irakasle teknikoa	134	104	78	75	78
HEO irakaslea	16	13	12	13	14
Musika eta Arte E. irakaslea	37	55	62	94	107
Arte Plastikoak eta D. irakaslea	24	19	18	20	21
Arte Plastikoak eta D. tailerretako irakasleak	5	8	8	8	9
Eskola Orientatzailea	30	—	—	-	0
Bigarren Hezkuntza guztira	733	607	556	626	815
Maisu-maistra	385	583	794	553	546
DBHko maisu-maistra	64	94	124	127	74
Maisu-Maistrak guztira	449	677	918	680	620
Guztizkoak	1.182	1.284 ¹⁶³	1.474	1.308	1.435

Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua. Lan-legepeko langileen Bulegoa eta Bigarren Hezkuntzako Bulegoa.

5.1.3. Erljioko irakasleen kontratazioa

75. taula

Erljioko irakasleen kontratazioaren bilakaera, 2000/2001 ikasturtetik 2006/2007 ikasturtera

	2000/2001 ikasturtea	2003/2004 ikasturtea		2004/2005 ikasturtea		2005/2006 ikasturtea		2006/2007 ikasturtea	
		Lan. osoa ¹⁶⁴	Lanaldi partz.	Lan. osoa	Lanaldi partz.	Lan. osoa	Lanaldi partz.	Lan. osoa	Lanaldi partz.
Bigarren Hezkuntza	55	47	10	45	17	47	13	49	7
Lehen Hezkuntza	94	89	35	86	49	92	42	94	44

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzua.

¹⁶³ Horien artetik 152k lanaldi partzialeko kontratua dute.

¹⁶⁴ Lan. osoa = Lanaldi osoa. Lanaldi partz. = Lanaldi partziala.

5.1.4. Funtzio publikora sartzea eta espezialitate berriak eskuratzea, 2006/2007 ikasturtea

Maisu-maistren taldean sartzeko lehiaketa-oposaketarako deialdiak. Praktiketarako izendapenak.

76. taula

Maisu-maistren taldean praktiketan sartzea. Plazak eta espezialitateak, 2006/2007 ikasturtea

Especialitatea	Txanda		Deitutako plazak	Izangaiak	Hautatuak		Plaza hutsak
	Libreak	Minusb.			Libreak	Minusb.	
Audizioa eta hizkuntza (gaztelaniaz)	7	1	8	60	7	1	0
Audizioa eta hizkuntza (euskaraz)	8	-	8	23	8	-	0
Frantsesa (gaztelaniaz)	2	-	2	13	2	-	0
Frantsesa (euskaraz)	1	-	1	4	1	-	0
Gorputz Hezkuntza (gaztelaniaz)	9	-	9	197	9	-	0
Gorputz Hezkuntza (euskaraz)	6	-	6	44	6	-	0
Ingelesa (gaztelaniaz)	48	1	49	249	49	-	0
Ingelesa (euskaraz)	23	1	24	79	23	1	0
Musika (gaztelaniaz)	18	1	19	127	19	-	0
Musika (euskaraz)	4	-	4	15	4	-	0
Haur H. (gaztelaniaz)	40	-	40	634	40	-	0
Haur H. (euskaraz)	23	-	23	183	23	-	0
Pedagogia Terapeutikoa (gaztelaniaz)	27	1	28	182	27	1	0
Pedagogia Terapeutikoa (euskaraz)	8	-	8	63	8	-	0
Generalista (gaztelaniaz)	145	3	148	547	147	1	0
Generalista (euskaraz)	36	1	37	94	37	0	0
Euskara	34	1	35	92	34	1	0
Guztizkoak	439	10	449	2.606	444	5	0

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzua.

5.1.5. Lekualdaketa-lehiaketa

2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak eta Hezkuntzari buruzkoak, bere seigarren xedapen gehigarriko 1. atalean egiten dituen xedapenen artean, ondorengoa azpimarratzen du: irakasle funtzionario publikoen estatutu-erregimenaren oinarri gisa plazak hornitu behar dira, nazio-mailako lekualdaketa-lehiaketan bitartez.

3. atalean adierazten denez, hezkuntza-administrazioek lekualdaketa-lehiaketak deitu behar dituzte aldiro Estatu-mailan, hezkuntza-administrazioen mendeko ikastetxeetan hutsik dauden plazak hornitzeko. Era berean, dagozkien funtzionarioek beste hezkuntza-administrazio batzuetan lehiatzeko duten eskubidea bermatu behar dute eta, hala badagokio, lehiaketan lortutako plazak esleitu. Lehiaketetan irakasle funtzionario publiko guztiek parte hartu dezakete, dagozkien hezkuntza-administrazioa edozein izanda, betiere egiten diren deialdietan, plantillen edo lanpostuen arabera, ezarritako baldintza orokorrak eta berariazkoak bete behar direlarik.

Adierazitakoa kontuan hartuta, urriaren 20ko 2141/2006 Ebazpen¹⁶⁵ bidez, Nafarroako Foru Erkidegoan Maisu-Maistren lanpostuak hornitzeko deialdia onartu zen. Urriaren 24ko 2208/2006 Ebazpen¹⁶⁶ bidez, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Arte Irakaskuntzak eta Hizkuntza irakasten duten Irakasleen taldeetako irakasle funtzionarioen lekualdaketen lehiaketa deitu zen.

Ondorengo tauletan ikus daitezke egindako deialdi publikoen emaitzak:

77. taula

Maisu-maistrak lekualdatzeko lehiaketa, 2006/2007 ikasturtea

Ebaz. 2141/2006	Parte-hartzaileak	Lekualdaketa lortu da
Ikastetxean berriro atxikitzea	3	2
Lehentasunezko eskubidea	1	1
Lekualdaketa-lehiaketa	385	198
Kanporatuak	16	0
Guztira	405	201

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzua.

78. taula

Maisu-maistrak lekualdatzeko deialdia, 2006/2007 ikasturtea¹⁶⁷

Derrigorrezkoak:					14
Boluntarioak:					187
Uko egiteak:					19
Kanporatuak:					0
Guztira					220
Lekua aldatu dute	Lekualdaketa lortu dute behin-behinean	Lekualdaketa lortzeko	Nafarroan sartu dira	Nafarroatik atera dira	GUZTIRA
201	121	0	17	28	367

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzua.

79. taula

Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako Teknikarien eta arte-irakaskuntzak eta hizkuntzak irakasten dituzten taldeen lekualdaketa-lehiaketa, 2006/2007 ikasturtea

Parte-hartzaileak		Emaitzak				
Ebaz. 1126/2007 ¹⁶⁸		Bigarren Hez.	Lh tek.	HEO	Musika eta Art. Esz.	Guztira
Derrigorrezkoak	166	Lekualdaketa lortu dute ¹⁶⁹	11	0	0	11
Boluntarioak	291	Lekualdaketa behin-behinean	12	2	1	15
Uko egiteak	16	Lekualdaketa lortzeko	118	30	3	151
Kanporatuak	8	Nafarroan sartu dira	21	0	1	24
Guztira	457	Nafarroatik atera dira	29	4	1	34

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzua.

¹⁶⁵ Ikus 119. zk, 1.1.4.4. epigrafea, 1. kapitulua

¹⁶⁶ Ikus 120.1. zk., 1.1.4.4. epigrafea, 1. kapitulua.

¹⁶⁷ Plaza lortu dute lekualdaketa-lehiaketaren bitartez

¹⁶⁸ Ikus 120.2. zk, 1.1.4.4. epigrafea, 1. kapitulua

¹⁶⁹ Lekua aldatu dute Foru Erkidegoaren barruan.

5.1.6. Hainbat deialdi

Zuzendariak berriro aukeratzeko merituen lehiaketa:

2007ko uztaillean 192 ikastetxetan hutsik zegoen zuzendari-postua. Ondoren adierazi da horiek betetzeko modua:

- 24 ebaluatu ziren:
 - 23k ebaluazio positiboa lortu zuten eta hiru urte gehiagorako berritu zituzten karguak.
 - 1ek ebaluazio negatiboa lortu zuen eta salbuespen moduan berritu zuen kargua.
- 46 hautagai izateko aurkeztu ziren:
 - 38 onartu egin ziren (36k Hasierako Prestakuntza Programa osorik egin behar dute; 31k ez dute Hasierako Prestakuntza Programa egin behar; eta bat Hasierako Prestakuntza Programaren fase teorikoa egitetik salbuesita dago).
 - 8 kanporatuta edo suspendituta geratu ziren eta salbuespen moduan berritu ziren.
- 131 aparteko prozedura bidez izendatu ziren.

Irakasleei Laguntzeko Zentroetan prestakuntza-aholkularien lanpostuak hornitzeko deialdia

327/2007 Ebazpen bidez, apirilaren 2koa eta Eskola Irakaskuntzen eta Irakaskuntza Profesionalen Zuzendari Nagusiarena, Irakasleei Laguntzeko Zentroetan prestakuntza-aholkularien 5 lanpostu hornitzeko deialdia onartu zen. Merituen lehiaketa egingo da eta zerbitzu-eginkizunak beteko dira¹⁷⁰.

80. taula

Irakasleei Laguntzeko Zentroetako aholkularien lanpostuen hornidura, 2006/2007 ikasturtea

ILZ	Aholkularitza	Plazak	Onartuak	Kanporatzeak	Izendapena
Iruña	Haur Hezkuntza Gaztelaniaz	1	1	0	07/09/01
	Bigarren Hezkuntza	1	1	0	07/09/01
Lekarotz Lizarra Tafalla Tuteria	Haur H., Lehen H. eta NNTT	3	3	0	07/09/01
Guztira	5	5	5	0	

Iturria: Eskola Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua.

¹⁷⁰ Ikus 26. zk., 1.1.2.4. epigrafea, 1. kapitulua

5.1.7. Irakasleen lansarien bilakaera

81. taula

Ikastetxe publikoetako irakasleen hileko lansarien bilakaera, 2000 urtetik 2007 urtera (eurotan)

			2000	2004	2005	2006	2007
BHPeta Erregimen Berezia	Katedradunak	Oinarrizko lansaria	1.483,69	1.695,88	1.751,84	1.816,66	1.854,80
		Irakas. Geh. Berezia	519,31	593,56	613,14	635,87	670,70
	Batura	2.002,99	2.289,44	2.364,98	2.452,53	2.525,50	
Bigarren H. irakasleak	Oinarrizko lansaria	Oinarrizko lansaria	1.483,69	1.695,88	1.751,84	1.816,66	1.854,80
		Irakas. Geh. Berezia	400,60	457,80	508,03	526,83	559,41
	Batura	1.884,29	2.153,77	2.259,87	2.343,49	2.414,21	
LHTIP	Oinarrizko lansaria	Oinarrizko lansaria	1.182,65	1.399,10	1.445,27	1.498,74	1.530,21
		Irakas. Geh. Berezia	413,93	489,69	586,78	608,49	639,02
	Batura	1.596,58	1.888,70	2.032,05	2.107,23	2.169,23	
Maisu-Maistren Z.	Oinarrizko lansaria	Oinarrizko lansaria	1.182,65	1.399,10	1.445,27	1.498,74	1.530,21
		Irakas. Geh. Berezia	354,80	419,73	484,17	502,08	530,37
	Batura	1.537,45	1.818,83	1.929,44	2.000,82	2.060,58	
DBH ematen duten Maisu- Maistren Z.	Oinarrizko lansaria	Oinarrizko lansaria	1.182,65	1.399,10	1.445,27	1.498,74	1.530,21
		Irakas. Geh. Berezia	417,06	474,85	508,16	526,96	559,41
	Batura	1.599,71	1.908,23	2.032,21	2.107,39	2.173,02	

Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua,

5.1.8. Erretiroak

82. taula

Erretiroak, 2006-2007 ikasturtea

	Adinagatik	Ezintasuna	Boluntarioa LOGSE	Boluntarioa LOE	Hainbat	GUZTIRA
Maisu-Maistren Z.	2	7	6	64	2	81
Bigarren Hezkuntzako irakasleak	4	5	0	26	0	35
Irakasle Teknikoak	2	1	0	3	0	6
Ikuskatzaileak	0	0	0	1	0	1
ITEM irakasleak	0	0	0	4	0	4
Kontserbatorioetako eta HEO irakasleak	0	0	0	2	0	2
Guztira	8	13	6	100	2	129

Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Bulegoa.

5.1.9. Unibertsitateaz kanpoko langile ez irakasleen arloko mahaia eta 2001eko maiatzaren 31ko itunaren jarraipen-batzordea

Zortzi sindikatuk osatzen dute unibertsitateaz kanpoko langile ez irakasleen arloko mahaia, eta ondoren aipatu dira sindikatuak:

	Ordezkarriak	%
CC.OO	852	19,9298
STEE-EILAS	520	12,1637
ELA	354	8,2807
UGT	354	8,2807
AFAPNA	585	13,6842
CSIF	652	15,2515
STEE-EILAS	692	16,1871
ANPE	266	6,222
Guztira	4.275	100

Oharra: irakaskuntza publikoko sindikatuek duten ordezkaritzari dagokionez, kontuan hartu behar da 2007ko maiatzean izan zirela hauteskunde sindikalak eta, hori dela eta, aldatu egin da datozen lau urteetarako sindikatu-ordezkaritza.

2006-2007 ikasturtean unibertsitateaz kanpoko langile ez irakasleen arloko mahaiak hogeita sei bilera egin ditu, eta ondoren aipatu dira bilera horietan aztertutako gaiak:

- Aurreko ikasturte sindikalaren aktak sinatu dira. LOE erretiro-primari buruzko Foru Legearen aurreproiektua. LHko Irakasle Teknikarien Taldeko funtzionarioek lanpostuak hornitzeko merituen lehiaketarako deialdia, Erkidegorako Zerbitzuen espezialitateak. Pedagogia Terapeutikoa eta Audizioa eta Hizkuntza espezialitateetako Maisu-Maistrentzako jarraibideak. Ikastetxe integratuen proiektu pilotu esperimentalerako ikastetxeak izendatzea. Atlante proiektuari buruzko informazioa.
- Ikasturte hasierako gorabeherak.
- Maisu-Maistren eta ikuskatzaileen lekualdaketen lehiaketa. Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako plantillak.
- Bigarren Hezkuntzako Lekualdaketen Lehiaketarako deialdia. Bigarren Hezkuntzako plantillak.
- Hezkuntza Itunaren negoziazioa.
- Hezkuntza Itunaren negoziazioa. Ikasleak onartzeko dekretua.
- Ikasleak onartzeko Foru Dekretua.
- Enplegu Eskaintza Publikoa – Bitartekoen zerrendak irekitzea.
- Hezkuntza Ituna.
- Hezkuntza Ituna.
- Enplegu Eskaintza Publikoa (Maisu-Maistrak).
- Oposizio-sistema zehaztea.
- H. Hezkuntza eta DBHko (hizkuntzen irakaskuntza ofizialak) 2. zikloko eta Musikako Erdi Mailako curriculumak.- Atlante proiektuari buruzko informazioa.- IESNAPAN pertsona helduen hezkuntzarako 6 plaza zerbitzu-eginkizunetan hornitzeko deialdia. Lekualdaketa-lehiaketen behin-betiko plantillak.- Bajak hornitzea eta irakasleen ordezkapenak.- Asanblada-eskubidea.- Eskola Kontseiluan

- aztertutako gaietako buruzko informazioa: Eskolatzeta eta Gida Plana.- Oposizioen txostena.
- Hezkuntza Itunaren negoziazioa.
 - Hezkuntza Itunaren negoziazioa.
 - Hezkuntza Itunaren negoziazioa.
 - Hezkuntza Itunaren negoziazioa.
 - Hezkuntza Itunaren negoziazioa.
